



BAINU EREMUETAKO ZAITZAILEAK

Debagoieneko sorosleek aginteaz
eta lan baldintzez dihardute / 2

Bi sorosle lanean,
oraingo astean,
Arrasateko
Musakolako kanpoko
igerilekuan.

XABIER URZELAI

Ibarreko ostatuak ia beteta abuzturako

Aurreikuspen onak dituzte Debagoieneko hotel eta landetxeek eta %90eko okupazio-maila espero dute gehienek abuztuko oporretarako / 4

**EH Bilduk izango ditu
gehiengoa eta
presidentea irailean
eratuko den
Mankomunitatean** / 5

**Taldekideekin eta
gertukoekin esango
du agur Markel
Irizarrek, abuztuaren
3an, etxean** / 38

SINADURAK

	IÑAKI ETXEBESTE / 8		PALOMA MARTÍNEZ / 20
	ITSASO ERRETOLATZA / 12		ESTEBAN IRUSTA / 35
	AINZANE OIARBIDE / 48		

 Uztailaren 26a,
Kubako iraultzaren
ikur (M-26-7)

Elena Martín, Jorge
Oteizaz eta haren
obra zabalaz

UDALDIA

Honako egunetan jasoko dituzue
hurrengo aldizkakiak:
GOIENA: Irailaren 6an.
'Puntua': Irailaren 6an.

Ondo
izan!



Atarratz Etxebarria, martitzenean, sorosle lanetan, Musakolako igerilekuan. XABIER URZELAI



Beñat Agirreurreta, Oñatiko igerilekuko eta Usakoko soroslea. BEÑAT AGIRREURRETA

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Uda denboraldiarekin batera ireki zituzten Debagoieneko bainu guneek atea, ekain erdialdean. Azken asteetako tenperatura altuekin, erabiltzaile ugari gerturatu dira bailarak eskaintzen dituen askotariko ur-instalazioetara eta gertuko hondartzetara.

Hala, denek gozatzeko asmotan eta segurtasuna bermatzeko, ezinbestekoa da sorosleen lana. GOIENAk bailarako lau sorosleren lana ezagutu du; sarritan, "gutxi baloratutako" sektorea.

Sorosleen lana, bainu guneak kontrolpean izateko ezinbestekoa

Igerileku, erreka edota hondartzetako segurtasuna bermatzeko ezinbestekoak diren arren, oro har "gutxi baloratuta" sentitzen dira sorosleak. Autoritate maila "txikia" dutela azaldu eta sektorearen egoera "nahiko prekarizatua" dagoela salatu dute

ATARRATZ ETXEBARRIA
MUSAKOLAKO IGERILEKUKO
SOROSLEA

"Prebentzioak funtziona dezan, beharrezkoa da erakunde, erabiltzaile eta langileok norabide berean jokatzeara"

"Nire kasuan, 2011z geroztik dihardut Arrasateko igerilekuan lanean, urte osoan zehar. Gehienbat, istripuak ekiditeko prebentzio lana egitea tokatzen zaigu Musakolako kiroldegian. Horretarako, aurretik zehaztuta dagoen arautegia jarraitzen dugu eta erabiltzaileek hori bete dezaten saiatzeko gara.

Norbaitek arau bat hautsi eta neurri zigortzaile bat ezartzen denean, ez dira neurriok ulertzen. Prebentzio lanak funtziona dezan, erakunde, erabiltzaile eta langileok norabide berean jokatzeara

ezinbestekoa da. Horren adibide da, esaterako, azken urteetan izan den aldaketa; jendearen jarrerari esker, artatze arinen kopurua nabarmen jaitsi da. Hori erabiltzaileen aldaketatik gertatu da, baina baita erakundearen eta langileen lanagatik. Egunerokotasunean, batez ere, halako istripu edo zauri arinak artatu behar izaten ditugu, nahiz eta tarteka ezbeharrak larriren bat izaten den, baina ez da ohikoa izaten.

Arauetako baten arabera, esaterako, 8 urtetik beherako haurren erantzukizuna gurasoena

"SEKTOREAN IZATEN DIREN PROTESTEK ERAKUSTEN DUTE EGOERA PREKARIO UGARI DAUDELA"

da. Horrekin lotuta, aurrekoan, umeen itoaldiak ekiditeko hiru pausoko gomendio bat iritsi zitzaidan, gurasoei zuzendua: *ADI! Haurra uretan*. Kasu horretan, erantzukizuna gurasoena bada, haien ardura da araua bete eta haurrak kontrolatuta izatea.

Lan baldintzei dagokienez, izaten ari diren protestek erakusten dute oraindik ere egoera prekarioak izaten direla sektore honetan. Nire kasuan, udal langilea naiz, eta, hortaz, gaitz nontzeko udal langileen lan baldintza berberak dauzkagu. Urte osoan egiten dut sorosle lana. Noizbehinka, igeriketa klaseak ematea suertatzen zait, egoerak eskatuta.

Orokorrean, jendeak gure lana zein den ulertzen duela iruditzen zait, eta baloratu egiten duela esango nuke".

BEÑAT AGIRREURRETA
USAKOKO SOROSLEA

"Erabiltzaileek, orokorrean, ez dute soroslea autoritate bezala ikusten"

"Soroslearen ardura uretako segurtasun osoa ziurtatzea da. Bai pertsonarena, baita pertsona horrek sortu ahal dituen arazoak ekiditea. Usakon erantzukizuna handiagoa dela esango nuke; izan ere, igerileku batekin alderatuz gero, hau ez da espazio itxi eta mugatu bat. Ingurune natural bat izanda, ez daude erosotasun guztiak, lurra ez da erregularra, belarra egon daiteke, asko kubritzen du.. Elementu natural hauek guztiak oso adi egon beharra eskatzen dute.

Dena den, Usakon egon naizen guztietan, umeek nahiko zentzudun jokatzeko dutela iruditzen zait, eta, arazoak izatekotan,

nagusiekin izan ditugu. Azken asteetan, esaterako, edanda zeuden hainbat lagunekin tirabirak izan ditugu; hasiera batean, guk esandakoa errespetatu zuten eta guri ere ondo erantzun ziguten salto ez egiteko esan genienean. Egunak aurrera egin ahala, baina, garagardoak eskuetan uretan sartzen hasi ziren, baita elkarri botilak botatzen. Hori ez egiteko esandakoa, gaizki erantzun zuten, eta tentsio uneak izan ziren. Halako kasuetan, udaltzainengana jotzen dugu.

Aurten, bigarren kasu bat ere izan dugu, igerian ez zekien pertsona batekin; salto egin eta uretatik irteteko denbora asko tardatzen zuela ikusita, bera ateratzera sartu behar izan ginen. Usakon zailtasuna dute halako erreskateek, ura hotza dago, tentsio handiko egoera da, asko kubritzen du...

Dena den, jendeak arauak errespetatu ohi ditu, eta, bestela, sorosleok ere abisua ematen diegu. Gure lana da, mugatuta dauden gauzekin oso zorrotzak izaten gara. Egun dugun arazoetako bat zigorrak jartzeko eskumenik ez izatea da. Hortaz, jendeak ez gaitu autoritate moduan ikusten, baina askok uste

"MUGATUTA DAUDEN GUNEEKIN ETA ARAUEKIN OSO ZORROTZAK GARA, GURE LANA DA"



Itsaso Martin, eguaztenean, Agorrosingo igerilekuan. JONE OLABARRIA



Inazio Dulanto bergararra, eguaztenean. JONE OLABARRIA

dute eurak salbatzeko zaudela, besterik gabe. Kexa ugari musikarengatik ere etortzen dira; jendea egun-pasa etortzen da eta uretatik kanpo zer egiten duten ezin dugu %100 kontrolatu. Ez gara denera iristen.

Gure kasuan, Oñatiko Udalak kontratatzen duen enpresa bateko langileak gara, eta, orokorrean, nahiko baldintza onak ditugu; urte osoan zehar kiroldegiko langileak gara, baita monitore ere. Udan errefortzuren bat kontratatzen duten arren, 6-7 sorosle izaten gara".

ITXASO MARTIN AGORROSINGO SOROSLEA

"Gure lana gutxietsi egiten dute askok, zaintzaileak garela uste dute"

"Udan udaltzain lana egiten dugula sentitzen dugu, askotan. Ez erre, ez egin salto, ez joan korrika... Teorian, analisiak egin, kanpoko eta barruko igerilekua kontrolatu edota monitoreei lagundu beharko genieke, baina udako hilabeteetan denetarik egin behar izaten dugu... Arauak gutxi eta oso errazak dira, baina erabiltzaile askok ez dituzte errespetatzen.

Gure lana gutxietsi egiten dute askok, zaintzaileak garela uste dute, eta ez da hala. Hemen gauza serioak gertatu dira eta sorosleok atera ditugu aurrera. Gurasoek lan handia ematen dute, haurrak haur dira eta

ulertzen dugu korrika egitea, esaterako, nahiz eta ezin den. Arauetako bat 8 urtetik behetakoak bakarrik egon ezin direla da, eta guraso askok seme-alabei gezurra esan eta 8 urte dituztela esateko agintzen dute, esaterako.

Jende askok konparaketa egiten du; guk saltorik ez egiteko esan, eta beste igerileku batean lagatzen diotela esaten digu, gure araua zalantza jarritz. Denetik dagoen arren, erabiltzaile batzuk oso atseginak dira sorosleokin ere. Animoak ematen dizkigute eta gure lana baloratzen dute. Zenbait kasutan, kaferen bat edo izozkiren bat nahi dugun galdetzen digute. Segurtasun neurriei dagokienez, goizetan bi sorosle egoten gara, bat kanpoan eta bestea barruan. Arratsaldeetan hiruk egiten dugu lan, kanpoan eta barruan 30 minutuko txandak eginda. Abuztutik aurrera, baina, hirugarren sorosle hori ez da egoten eta oso larri ibiltzen gara. Neurri hauek ez dira nahikoak, pertsonal gehiago beharko genuke. Pertsona bat jausi eta sorosleak sendatu behar badu, bi igerilekuetako bat zaintza gabe geratzen da.

"UDAN, GOGORRA DA LANA; MEHATXATU ETA IRAINDU EGITEN GAITUZTE, BATZUETAN"

Orokorrean, udan, lana gogorra da. Aurten, esaterako, iraindu eta uretara bota nau erabiltzaile batek. Ohikoak dira mehatxuak eta irainak urtero. Horren aurrean, erabiltzailea Agorrosindik bota dezakezu, egun batez. Kasu larrietan, espediente zabaldu daiteke, baina hiru hilabeteko prozesua da. Haurrek badakite eta abuztutik aurrera denetik egiten dute, igerilekutik bota arte hilabeteak igaroko baitira".

Graduei aurre egin nahian

Azken astea bereziki beroa izan da Debagoiengan. Eguaztenean, esaterako, 40 gradutik gorako tenperaturak neurtu ziren. Are gehiago, Euskal Meteorologia Agentziak Arrasate ipar isurialdeko toki beroenetako bat dela adierazi du asteen.

Gauzak horrela, herriarrek bainu guneetara jo dute, freskatzeko asmotan, eta zifra altuak erregistratu dira. Agorrosingo igerilekuan, esaterako, 1.500 pertsona inguru ibili dira egunero.

INAZIO DULANTO DEBAKO HONDARTZAKO SOROSLEA

"Iazko grebaren ostean lortu genuen, esaterako, asteburuetan orduak gehiago kobratzea"

"Gure lana, hondartzan, prebentziozko lana egitea da, eta horrek funtzionatzen ez duenean salbamenduzko lanera pasatzen gara. Hiru uda daromatzat hondartzetan lanean, aurten Deban, baina Mutrikun ere ibili izan naiz. Egia esanda, eremu bakoitzak bere berezitasunak ditu, baita hondartzak bakoitzak ere; Mutrikukoa, esaterako, askoz lasaia goa da.

Egunerokotasunean, gehienbat, lehen mailako arreta egiten dugu; zauriak, ziztadak eta halakoak. Noizbehinka, baina, erreskateak egitea tokatzen zaigu. Iaz, esaterako, bi egunean hiru pertsona atera behar izan genituen uretatik; lehen egunean, lankide batekin batera, gizon bat ikusi genuen uretan, eta ezin irrenda zegoela zirudien. Hala koetan, sorosle bakarra sartzen da uretara eta beste bi kanpoan geratzen dira dena ondo doala ziurtatzeko. Beste behin, neska bat etorri zitzaigun abisua ematera, bere aitaita uretatik irten ezin zela esanez. Lehen urtean, 100 kiloko gizon bat atera behar izan nuen, arroketan zebilela marea igo eta ez atzera ez aurrera geratu baitzen.

Astean 39 ordu egiten ditugu lan, 15 eguneko 9 lan, 6 jai. Nahiko ondo errespetatzen da, ekaina eta iraila 8 orduko lanaldia da eta uztaila eta abuztua 9 ordu eta erdikoa. Bazkaltzeko 45 minutu izaten ditugu, baina beti erne egon behar dugu eta hondartza kontrolatuta izan. Normalean, sei pertsona egoten gara txanda bakoitzean hondartza osorako. Iazko grebaren ostean, asteburuetan lan egiten dugunean gehiago ordaintzen digute, baina aurtengo nobedadea da eta ez da sorosle guztiekin gertatzen den zerbait. Orain ere bagabiltza erdi borrokan; lan hitzarmenean jartzen duena eta guk irabazten duguna ez dator bat, hori zergatik gertatzen den jakin guran gabiltza.

Sorosle izateko, 290 orduko ikastaro bat egin nuen, Getxon. Ikastaroak salbamendua, lehen arreta eta desfibriladorearen erabilera lantzen zituen. Horretaz gain, hondartzetan lan egiteko eremu naturaletako titulua beharrezkoa da. Niri, lana asko gustatzen zait, lan kalitatea ona da. Ez nuke bulego baten egiten den lanarekin aldatuko, natura ingurune batean egotea itzela iruditzen zait".

"LAN KALITATEA ONA DA, INGURUNE PAREGABEAN; EZ NUKE BULEGO BATEKIN ALDATUKO"



Bisita gidatu bat, Oñatiko unibertsitatean. E.A.

Okupazio-maila handia ostatuetan

Debagoiendar askok abuztuko oporrak bailaratik kanpo pasatzen badituzte ere, beste hainbat dira kanpotik ibarrera etortzen direnak; horren erakusgarri da zenbait landetxe eta hotel "ia beteta" daudela eta okupazio-maila handia izango dutela datorren hilean

Eneko Azurmendi ARRASATE

Elgetako Maialde landetxean, esaterako, ia %100eko okupazioa daukate abuzturako, Jesus Kalboetxeaga jabearen esanetan. Horrez gain, aurten uztaila ematen ari denarekin ere oso gustura daude. "Normalean, abuztuan beteta edukitzen dugu urtero, eta aurten, uztaila ere oso ona izaten ari da, mugimendu handia daukagu", azaldu du.

Bisitari gehienak Estatukoak dira. "Andaluzia, Katalunia, Madril eta Valentziakoak. Nik esango nuke berotik ihesi etortzen direla asko, klima freskoa-goaren bila".

Kalboetxeagaren esanetan, familiak ere etortzen dira, baina, normalean, bikoteak izaten dira gehienak. Gainera, geroz eta egonaldi luzeagoak egiten dituztela aitortu du. "Batez beste, hiruzpalau egun egiten dituzte-

la esango nuke, eta lasaitasun bila etortzen dira, hemengo, tradizioa, kultura, paisaia eta jendea ezagutzera, eta baita gastronomiaz gozatzera ere".

Hotel "multikulturala"

Arantzazuko Santutegia hotelak %70eko okupazioa du une hauetan, baina %90era ere gerturatuko da abuztuan, Carlos Odriozola zuzendariaren esanetan.

Bisitarien profila definitzeko orduan, "multikulturala" dela dio Odriozolak, aniztasun handiko bisitariak dituztelako. "Estatu mailakoak, Europako he-

BAILARAKO OSTATUEK AURREIKUSPEN ONAK DITUZTE ABUZTURAKO, OKUPAZIOA %70ETIK GORAKOA DA

rrialde ezberdinetakoak eta munduko hainbat txokotakoak etortzen dira; Txinatik ere bai".

Oro har, bikoteak izaten dira, 50 urteren bueltakoak. "Erretiratuak ere dezente gerturatzen dira, 65-75 adin tartekoak, baina horiek astegunetan etortzen dira nagusiki, taldeka. Domekatik ostiralera bitarteko egonaldiak egiten dituzte".

Abuztuari begira, baikor

Bergarako Lamaño-Etxeberri landetxeko jabe Maite Aristegi ere oso baikor azaldu da abuztuari begira; izan ere, %90eko okupazio-maila daukate.

Aristegik dio Kataluniatik urtero etortzen zaiela jendea, eta aurten, horiez gain, madrilarrak ere izango dituztela. Bestalde, frantses talde bat eta AEBetako turistak ere izango dituzte. Oro har, astebete ingu-

ruko egonaldiak egingo dituzte, gutxienez, eta frantsesek, adibidez, bi aste egingo dituzte hemen. Badira, azkenik, egun pare bateko egonaldiak egiten dituzten turistak ere.

Uztaila, ona; abuztua, ere bai

Arrasate Hoteleko jabe Rosa Sarraoak dio uztaila "oso ona" izaten ari dela, eta abuzturako ere "oso aurreikuspen onak" dituztela. Izan ere, %80ko okupazioa dute datorren hilerako.

Hotel horretako bisitari gehienak Europa aldetik etorritakoak dira, Sarraoaren arabera. "Belgikatik, Frantziatik eta Portugaldik etortzen zaizkigu. Bidaia-tzen ari direnak izaten dira, normalean, erdibidean Arrasaten geldialdia egitea erabakitzen dutenak, eta egun bat edo bi igarotzen dituzte hemen", nabarmendu du.

Guztiek ere, plan bertsuak

Salbuespenak salbuespen, bailarako hotel eta landetxeetara datozen turista gehienek plan antzekoak izaten dituzte, ostalari guztiek nabarmendu dutenez. Debagoiena Euskal Herriko erdigunean kokatuta egonik, oinarri moduan hartzen dute, gaua pasatzeko, eta hiriburu ezberdinak eta kostaldea ezagutzera ateratzen dira. Alabaina, badira hemengo inguruak ezagutzen geratzen direnak ere.

Debagoiengan bada eskaintza

Bailaran bertan ere bada eskaintza, inguruak ezagutzeko aukera egiten duten kanpotarrentzat zein hemen geratzen diren debagoiendarrentzat.

Oñatiko Turismo Bulegoak, adibidez, eskaintza zabala edukiko du abuztuan. Egutero bi bisita eskainiko dituzte, 13:00etan eta 17:00etan. "Bisita gidatuak gaztelaniaz izango dira, bisitari gehienak Estatu mailakoak izaten direlako. Edozeinek beste hizkuntza batean gura izanez gero, beste ordutegi batean jaso dezake bisita, euskaraz, ingelesez edo frantsesez. Honetarako, baina, aurrez deitu beharko da izena emateko", azpimarratu du

DONOSTIAKO ORFEOIAK KONTZERTUA EMANGO DU ARANTZAZUN ABUZTUAREN 16AN

Jaione Elorzak, Turismo Bulegoko langileak.

Bestalde, Arrikruz Kobak egutero irekita egongo dira, baina erreserba egitea eskatzen dute galeriak ikusteko. Horrez gain, bisita bereziak eskainiko dituzte. Batetik, EspeleoTxiki, uztailaren 28an, abuztuaren 4an eta 17an, 15:30ean, 6 urtetik gorako haurrentzat –arduradun batekin joan beharko dute–. Bestetik, EspeleoArrikruz, abuztuaren 10ean, 18 urtetik gorakoentzako, 09:30ean. Bi hauek izena eman beharko da aurrez, 943 08 20 00 telefonora deituta edo arrikruz@onati.eus helbidera idatzita.

Egutero irekita egongo dira Turismo Bulegoa eta Arrikruz Kobak, 09:30etik 14:00etara eta 15:30etik 19:00etara.

Azkenik, Txokolateixiak ere bisita gidatuak eskainiko ditu egutero, 12:00etan, doan.

Bergarari dagokionez, Laboratorium museo egutero egongo da irekita. Astelehenetik zapatara 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Domeketan, 10:00etatik 13:00etara. Horrez gain, bisita gidatuak eskainiko dituzte egutero, 11:00etan eta 12:30ean. Erreserba egitea ez da beharrezkoa; hala ere, erreserba eginez gero, hizkuntza aukeratzeko posible izango da –943 76 90 03–.

Leintz Gatzagako Gatz Museoan, azkenik, egutegian, egubakoitzetan, zapatuetan eta domeketan, 11:30ean euskarazko bisita gidatua eskainiko dute eta 13:00etan, gaztelaniazkoa. Ordutegi horretatik kanpo norbaitek bisita jaso gura badu, eskaintzen dute aukera hori ere, hamarretik gorako taldeentzako. Izena emateko, 943 71 47 92 telefonora deituta edo info@gatz-museoa.com helbidera idatzita.

Beste zenbait ekitaldi

Badira beste zenbait ekintza ere. Hilaren 3an, esaterako, emakumezkoen futbolaz gozatzeko aukera izango da Bergarako Agorrosin futbol zelaian. Realak eta Osasunak jokatu dute partidua, 11:00etan hasita. Abuztuaren 16an, Donostiako Orfeoia Arantzazun emanaldi egingo du, 19:00etan –sarrerak Donostiako Musika Hamabostaldiaren webgunean erosi daitezke–. Aretxabaletan, azkenik, Andramaiak ospatuko dituzte –ikus 18. eta 19. orriak–.



Unai Elkorro, Debagoieneko Mankomunitateko presidentearen bulegoan. E.A.

"Daukagun potentziala ez dugu nahikoa aprobetxatzen"

UNAI ELKORO DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEko PRESIDENTEA

Amaitzearen agintaldi honetako presidente izan da Unai Elkorro, eta, lau urte hauek emandakoaren balorazioa egiteaz gain, aurrera begirako erronkez ere egin du berba

Eneko Azurmendi ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitate berria irailean eratzea espero dute. Elkorro azaldu duenez, asmoa uztailan eratzea zen, baina, azkenean, Eskoriatzako eta Oñatiko ordezkariak aste honetan izendatu dituzte, eta irailera atzeratu beharko dute. **Nola baloratzen duzu agintaldia?**

Lehenengo bi urteak nahiko gogorak izan ziren, lan askokoak. Hondakinen kudeaketan aldaketa asko egin behar izan genituen. Lehenik, Bergara eta

Eskoriatzako edukiontzien aldaketa, eta gero, Aretxabaletakoa. Aldaketak egin berritan, gainera, kontratua berritu behar izan genuen, lehengo enpresak ez zuelako jarraitzen. Hori egonkortzen nahiko lan eduki genuen,

"LEHEN BI URTEAK GOGORRAK IZAN ZIREN, LAN ASKOKOAK; GERORA, EGONKORTU EGIN GARA"

baina lortu genuen, eta bukararako Aretxabaletako Udalari denbora gehiago eskaini ahal izan diot, honek denbora asko kentzen baitzidan hasieran.

Zer nabarmenduko zenuke bukatzearen agintaldi honetatik?

Aurreko urteekin alderatuta, istilu gutxiago eduki ditugula nabarmenduko nuke. Ordezkarri ezberdinak gaude, eta bakoitzak bere sistemak dauzka, baina liskar handirik ez dugu eduki. Edozein mankomunitateren helburua da baliabideak

optimizatzea, eta, daukagun estrukturarekin, askoz gehiago aprobetxatu dezakegu, potentzial handia daukagulako. Esaterako, jaietarako materiala, antzezto-kiak, eta abar, herri bakoitzak bereak ditu, baina askoz logikoagoa litzateke Mankomunitateak edukitzea, herri guztien erabilerarako. Kontuan izan behar da estruktura administratiboa ere dezentekoa dela. Finean, beste udal bat da hau, nahiz eta funtzio gutxiago eduki. Beraz, potentzial horri etekin handiagoa atera beharko genioke aurrerantzean.

Gizarte zerbitzuen mapa osatzen ere bazabiltzate.

Helburua da ditugun baliabideekin zerbitzu batzuk ezartzea. Horretarako, egoeraren azterketa egin dugu, eta aurrera begira estimazio bat, ze behar izango ditugun jakiteko. Hor inbertsioak egitea tokatuko da, eta asmoa da herri bakoitzak bereak egin beharrean, Mankomunitateak egitea, baita kudeaketa ere. Zailena hori izango da.

Hondakinen kudeaketari dagokionez, eman al da aurrerapausorik?

Lan handia egin behar izan dugu, berrantolaketa handia, baina orain, ondo funtzionatzen ari da. Egia da ekonomia hobetzen joan den heinean zabor gehiago sortu dela. Era berean, Internetik erosteko joera handia dago eta enbalajeko kartoiaren kontsumoa igo egin da, besteak beste; errefusa ere bai. Hala ere, uste dut gorenean gaudela; bestela, ezin izango dugu eta horrenbeste zabor kudeatu. Bilke-ta selektiboari dagokionez, %78 ingurukoa da, eta esfortzua egin beharko dugu hori mantentzeko. **Ze erronka izango dituzue irailean hasiko duzun agintaldian?**

Epeleko zaborteia bete egingo da eta erabaki egin beharko dugu handitu edo itxi. Handitzea ez dugu bideragarri ikusten, eta logikoena ixtea izango litzateke. Horrek gastu handia ekarriko digu. Beste erronka bat gizarte zerbitzuen mapari behar bezala heltzea izango da. Azkenik, zerbitzu gehiago eskaintzeko ahalgina ere egin beharko genuke.

"EPELEKO ZABORTEGIA BETE EGINGO DA; ERABAKI EGIN BEHARKO DUGU ZER EGIN"

Mankomunitate berriko ordezkariak

Debagoieneko

Mankomunitateak 16 ordezkari ditu, eta herrien biztanle kopuruaren arabera aukeratzen dituzte horiek. Hala, Arrasatek lau ordezkari ditu, Bergarak eta Oñatik hiruna, Aretxabaletak bi eta Eskoriatzak, Antzuolak, Elgetak eta Gatzagak bana. Azken horretakoak karguan jarraitu beharko du udal berria eratu arte. Ordezkariek aukeratzea herri bakoitzeko udalbatzari dagokio, eta baldintza bakarra da zinegotzi izatea. EH Bilduk gehiengo izango du agintaldi honetan, eta presidentea ere alderdi horretakoa izango da. Juntakideek erabakiko dute zein izango den.

Arrasate

- Maria Ubarretxena (EAJ).
- Ander Garay (EAJ).
- Maitane Muñoz (EAJ).
- Aritz Murua (PSE-EE).

Bergara

- Gorka Artola (EH Bildu).
- Ainhoa Lete (EH Bildu).
- Kristina Markina (EH Bildu).

Oñati

- Maite Anton (EH Bildu).
- Izaro Elorza (EH Bildu).
- Anik Zubizarreta (EH Bildu).

Aretxabaleta

- Unai Elkorro (EAJ).
- Ainhoa Cabero (EAJ).

Eskoriatza

- Joserra Zubizarreta (EAJ).

Antzuola

- Beñardo Kortabarria (EH Bildu).

Elgeta

- Iraitx Lazkano (EH Bildu).

Leintz Gatzaga

- Juanito Bengoa (LGHE).



Lehendakaria eta Tapia sailburua, Jaurilaritzako eta trenbide sarearen obren beste arduradun batzuekin, Antzuolan. TXOMIN MADINA

'Eusko Y'-aren Gipuzkoako plataforma amaitu dute

Antzuola-Ezkio tartearen amaierarekin, Gipuzkoako abiadura handiko trenaren plataformaren 57 kilometroak amaitu dituzte; %70, tunel barruan. Eguaztenean egin zuten tarte horretara bisita; Antzuolan izan ziren Iñigo Urkullu eta Arantxa Tapia

Jone Olabarria ANTZUOLA

Eusko Jaurilaritzak amaitutzat eman du *Euskal Y*aren trenbide plataformaren Gipuzkoako tarte. Hori dela eta, bukatu duten azken zatian, Antzuola eta Ezkio artekoan, izan ziren eguazten goizean Iñigo Urkullu lehendakaria eta Arantxa Tapia Ekonomia Garapen eta Azpiegiturarako sailburua, Antonio Aiz Garraio sailburuordearekin eta Aitor Garitano Euskal Trenbide Sareko (ETS) zuzendari nagusiarekin batera.

Horrela, dagoeneko amaiturik daude Bergara eta Hernani arteko 57 kilometroak, hamasei tartetan banatuta; horietatik %70, tunel artean. Lanak aurrera eramateko, Gipuzkoako tarte osoan egindako inbertsioa 1.723 milioi eurokoa da, eta, hain zuzen ere, Antzuola-Ezkio bitarteko tarte amaituta, Asigarragatik Donostiara sartzeko azken tarte eta geltoki berria baino ez dira falta guztiz bukatzeko.

"Egiten jakitea"

Lanak bisitatu ostean, Euskadiren "egiten jakitea" azpimarratu du Arantxa Tapiak. "Arrakastaz, epe barruan eta modu egokian, *Euskal Y*-a martxan jartzeko agindutako proiektuak eta lanak osatzea lortu dugu". Azaldu duenez, "Euskal Trenbide gestorea aurreikusitakoaren arabera ari da bere egitekoak betetzen; eta 2023rako guztia, arrakasta osoz, izango dugu amaiturik".

Era berean, sailburuak zalan-tzan jarri du abiadura handiari dagokionez Espainiako Estatua-ren politika: "Korridore atlantikoak nazioarteko lotura behar du. Espainiako eta Frantziako estatuei eskatzen diegu, boron-

datea jartzeaz gain, aurrekontua jar dezaten, lehenbailehen bukatzeko". Lehiakortasuna garatu ahal izateko, sarea bukatuta eta Europara lotua egotea "ezinbestekoa" dela azaldu du.

"Lehiakortasuna, ezinbesteko"

Iñigo Urkullu "pozik" agertu da, "oso azpiegitura konplexuaren eraikuntza lanetan parte hartu duten ingeniari-tza enpresen eta bestelako enpresen ahalmen teknikoa ikusita".

Era berean, lehendakariak ETSren zerbitzuak eskaini dizkio Espainiari, "egitura instalatzeko lanak bere gain hartzeko", eta, modu horretan, abiadura handia Euskadiko hiriburu-tara iritsi dadin. Horrela, azaldu duenez, Sustapen Ministerioak nahiko balu, "berehala hasi ahalko litzateke trenbidea eta katenaria instalatzen Gipuzkoako tartean; gure ekonomiaren lehiakortasunerako ezinbestekoa den azpiegituran atzerapen gehiago saihesteko".

"LEHIAKORTASUNA LORTZEKO, SAREA AMAITU ETA EUROPARA LOTZEA EZINBESTEKOA DA"



Jose Maria Ormaetxearen hilkutxa, jendez betetako elizara sartzen. MAIALEN REGUEIRO

Azken agur jendetsua egin diote Jose Maria Ormaetxeari

Zapatuan, hilak 20, zendu zen Ormaetxea, 92 urte zituela. Astelehenean egin zuten hileta elizkizuna

Jone Olabarria ARRASATE

Pneumoniak jota egubakoitzean ospitaleratu ostean, zapatuan hil zen Jose Maria Ormaetxea, uztailaren 20ean. Arrasateko mugimendu kooperatibistako sortzaileetako bat izandako Ormaetxea Fagor Etxetresnak izango zen Ulgor abiarazi zuten artean egon zen, eta Mondragon korporazioaren lehen presidentea izan zen.

Hala, astelehenean, uztailak 22, egin zuten hileta elizkizuna, San Juan Bataiatzailearen parrokian. Jende ugari gerturatu zen Ormaetxeari azken agurra emateko: besteak beste, Maria Ubarretxena, Arrasateko alkatea; Arantxa Tapia, Ekonomia Garapen eta Azpiegiturarako sailburua; eta Markel Olano, diputatu nagusia.

Mondragon korporazioa osatzen duten kooperatibetako ordezkariak ere bertan izan ziren: Mon-

dragon Unibertsitateko, ULMA-ko, Fagor Industrialeko, Lanako, LKSk eta ISEAko ordezkariak, besteak beste.

"Ondarea, betirako"

Arrasateko alkate Maria Ubarretxena azaldu duenez, "herriarentzat oso figura garrantzitsua izan da, hain zuzen ere, bost gaztek, amets baten baitan egun oraindik ere dirauen mugimendu kooperatibista sortzeagatik".

Diputatu nagusi Markel Olano, berriz, Ormaetxea pertsonalki ezagutzea "pribilegioa" izan zela aitortu du, eta, pertsonak joan arren, haien ondareak betirako iraungo duela adierazi du. Arantxa Tapiak ere balio kooperatiboak azpimarratu ditu, eta haxe adierazi du: "Mundu mailan Euskadi ezagun bada, kooperatibengatik da, eta hori sortzaileei zor diegu".

Memoria historikoa jasoko duen euskal legearen alde

Frankismoaren krimenen aurkako Euskal Plataformak bertan behera laga du memoria historikoaren herri ekinaldi legegilea. Era berean, bat egin du Euskal Memoria Historikoaren aldeko legea bultzatzeko Eusko Jaurilaritzak hartutako erabakiarekin. Uztailan eman zuen erabakiaren berri Eusko Jaurilaritzak, EAJk ere bat eginda horrelako

euskal lege baten premiaren gaineko iritziarekin. Aurretik, EH Bildu, Elkarrekin Podemos eta PSE-EE ere bat zetozen legearen premiaz. Frankismoaren krimenen aurkako Euskal Plataformaren ustez, Legebiltzarrean erregistratu zuten lege proposamena izan beharko litzateke eztabaidatzeko oinarria: "Lege oso bat, plurala eta eraginkorra onartua izan dadin, inpunitatea uxatuaz eta frankismoaren biktimen duintasuna legez babestuz".



15. UDAKO ARGAZKIEN GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*



HOSSEGORREKO ZUBITIK EGUNEKO AZKEN JAUZIA | Argazkiak: Aneitz Etxe (Aneitz abela)



GOIENA IRATZURTZEN SANTA CRUZ DE CHERRAGOSEN | Argazkiak: Jose-Labeta (Labeta foto)



GARAZI NEAK PEAN TENPLUAREN SARRERAN | Argazkiak: Iba Martin Fernandez de Luza (Anasari)



Argazki guztiak kanal berezi honetan: <https://labur.eus/uda>

MARTXAN DA!

Goienaren Udaiko Argazkien Lehiaketa **abian da!** Aurten, gainera, berritasunekin dator, eta sariak hiru kategoriatan banatuko dira: **Protagonistak**, **Euskal Herrian** eta **Nazioartean**.

Argazkiak posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07) bidal ditzakezu; uztailaren 19tik irailaren 23ra arte –biak barne–.

Sariak

Zu ikusi nahi zaitugu; nondik nora ibili zara?

Bidali zure argazkiak Goienara eta sari hauetako bat irabazteko aukera izango duzu:

Protagonistak: Arrasateko Eroski hipermerkatuari esker, Redmi A6 smartphonea.

Euskal Herrian: Gure Ametsa jatetxean bi pertsonarentzako afaria edo bazkaria.

Nazioartean: Arrasate Bidaia-*i* esker, Zumaiako Zelai Talasoterapiari bi pertsonarentzako zirkuitu termala eta Zelai menua.

Gainera, **publikoaren saria** ere izango dugu, **Bergarako Ereindajan**-en eskutik: bertako eta kalitatezko produktuen saski ederra.

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia non ateratzea den.
- Argazkiak eta datu GUZTIAK posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram (688 69 00 07) bidez bidali daitezke.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 19tik irailaren 23ra arte (biak barne).
- Hiru kategoriatan egongo dira:
 - Protagonistak: pertsonak lehen planoan erakusten dituzten argazkiak, lekua baino garrantzi handiagoa duten pertsonak.
 - Euskal Herrian: Euskal Herriko paisaiak, eraikinak edo bokoak izango dira elementu nagusia, pertsonak agertzen direlarik edo gabe.
 - Nazioartean: Euskal Herriko kanpoko bokoak, pertsonak agertzen direlarik edo gabe.
- Argazkiek gehienez 5 MB izan beharko dute.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoienean jaio edo bizi den orok parte hartu ahal izango du.
- 16 urtetik gorakoei parte hartu ahal izango dute.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak koloretan zuri-zuri beltzean izan daitezke.
- Argazkiek originalak izan beharko dute.
- Udaiko argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste urtean ateratakoak.
- Kategoriatan bakoitzeko saritu bana aukeratzeko epaimahaia Goiena Komunikazio Taldeko kideek osatuko dute eta argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.
- Irailaren 27tik urriaren 2ra Publikoaren Saria aukeratzeko epea zabalduko da. Lehiaketan parte hartu duten argazki guztien artean aukeratu da Publikoaren Saria, bozketak bidez.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 4an emango da jakitera, Goiena aldizkarian.
- Saria jasotzeko irabazleak eskatuko zaien lehiaketaren babesleekin argazki bat ateratzeko.
- Argazkiak Goienaren hainbat euskarritan argitaratu daitezke: Goiena.eus atarian, Goiena aldizkarian, Puntua aldizkarian, telebistan eta sare sozialetan.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egoien irudiltzen zaitzen irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienaren arboan gordetako dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adieraziko da.

Oinarri eta lege oharra osorik: <https://labur.eus/oinarriak2019>

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurant • Jatetxea

ARRASATE BIDAIAK

BERGARAKO
EREIN
DA
JAN



ZABALIK

IÑAKI ETXEBESTE

Gora Greta!

16 urterekin Nobel sarietarako izendatua izatea ez da marka makala.

Baina Greta Thunberg suediarrek beste inork baino hobeto asmatu du klima aldaketaren gaian gure kontzientziak astintzen.

Ekintza eta hitz egokiak, eskolan egon behar luketen gazteen jazarraldiak, eta datuak, bueltarik ez duten datuak, behin eta berriz plazaratu ditu Gretak.

Hemen eta han.

Lurra berotzen ari da.

Asko edo gutxi, baina berotuko da.

Eta horrek neurrigabeko kalteak ekarriko dizkigu bertan bizi garenoi.

Kalteak gutxitzeko neurriak eskatzen ditu Gretak.

Eta, egia, askorentzat txarra.

Frantziako Nazio Biltzarrean izan zen uztailaren 23an Greta.

MEZUA NOLA GIZARTERATU PENTSATZEN ARI GARELA, TENPERATURA GORA ETA GORA DOA

Eskuineko politikari batzuek irainez jaso zuten, eta *apokalipsiaren guru* izendatu zuten.

Ez zen isilik geratu gure Greta.

"Nola ekin dezakegu klima aldaketaren kontra alarmista izan

gabe?", erantzun die iraindu zuten haiei.

Egun batzuk dela, bailaratik klima aldaketari buruzko mintegi batean, mezua gizarteari nola helarazi beharko litzaiokeen eztabaidatu genuen.

Irakasle batek oso mezu alarmista neukala aipatu zidan, eta horrek oso *merkaturatze* eskasa zuela zioen.

Eta Greta etorri zitzaidan burura; izan ere, hainbat mezuk ez daukate positibotik ezer.

Hamabi urte igaro dira Al Gore politikari estatubatuarrari gai beragatik ere Nobel saria eman ziotela.

Egia deseroso hark hor dirau; urte hauetan maila politikoan ezer gutxi aldatu da, eta, tamalez, gizartean ere oso geldo gabilitza egia hori barneratzen.

Eta *helduok* mezua nola gizarteratu pentsatzen ari garen bitartean, tenperatura gora eta gora doa.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Gogoratzten

PILAR KALTZADA
'TTAP'-EN ARGITARATUA

Nire txikitako oporretan eguraldia molde berekoa ateratzen zen beti: eguraldi ona. Oroitzapen biziak ditut garai hartaz, eta ahalegindu banaiz ere, ez dut aurkitu eguraldi txarraren arrastorik, ezta haren kontzientziarik ere. Izango ziren, jakina, euria eta giro goibela egokitzen ziren egunak, baina ahaztu egin ditut, antza.

Zerbaitegatik izango da hori. Baliteke zuzen izatea Angel Gonzalez poeta, txikitari eguraldi txarrik ez dela existitzen idatzi zuen hartan. Onak ziren eguzki galdetan igarotzen genituen

arratsaldeak, erreka garbi eta hotzetan gorputza dar-dar utzi arte irauten zutenak. Onak ziren iluntze gorritzak, ekialdeko bola handiak erdizka argizatzen zizkigunak afari legea bizkor egiten genuen bitartean. [...]

Zoriontsu izandako tokietara ez dela itzuli behar esan izaten da, baina ni ez nago ados. Aurten ere, bueltatu egingo naiz txikitako oroitzapenak gauzatu ziren leku horietara, eta duela makina bat urte utzitako egoera bertsuan egongo da guztia... neu izan ezik.

Murgildu naiz erreketan, baina bizkorregi sentituko dut nik hotza. Ilunabarrak lehengo molde berekoak izango dira orain ere, eta

damutu egingo zait kamera hoberik ekarri ez izana, eskuko txiki honek ez baititu koloreak nire memoriak bezain argitsu jasoko. [...]

Oroitzapenek gorde dute, nola edo hala, orduko gertakizunen xarma. Bere horretan irautea merezi du memoriak bildutakoa, baina gu ez gara lehengo berberak. Aurten eguraldi aldrebesa egokituko zaigula iragarri dute. Ni izan nintzen umeak, gomuten oihartzunez, ez ulertzeko keinua egin du, eta normala da: izan nintzen ume horrek eguraldi txarrik existitzen ez den tokia irudikatzen du.

Post gehiago 10. orrialdean.

goiena“

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Amaia Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Berezibar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BERBAGAI

"Plastiko biodegradagarria egiten dugu behi-larruarekin"


JESUS OLLOKIEGI EKOLBER ENPRESAKO ZUZENDARI NAGUSIA

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA Bergarako Ekolber enpresak Ekintzailatza Berritzailearen Toribio Echevarria saria jaso du oraingo astean. Miguel Altuna Lanbide Heziketa Eskolatik sortutako *start-up* enpresa albiste da, era berean, Viscoflan nafarrak erosi duelako haren zati bat.

Animalien kolageno soberakina erabilita bioplastikoa sortzen du, erabat degradagarria. **Kautxuaren ingeniariaren bitartez, bioplastikoa sortzeko apustua egin duzue. Zer da bioplastikoa?**

Biodegradagarria den plastikoa. Hau da, amaiera izan behar du, konposta egiteko hondakina izan behar da. Horretaz gain, lehengaiak iturri berriztagarrietatik etorri behar dira.

Zeintzuk dira lehengai horiek? Behi-larruak, batez ere. Era berean, baita industriako hainbat hondakin ere: lumak, kafe-hondarrak, konpostak, arrautza-oskolak, artileak,



Jesus Ollokiegi. GOIENA

paper lohiak... Horiek behi-larruarekin nahasten ditugu, eta nahasketa hori zelan lortzen dugun patentatuta daukagu. Sekretua da. Nahasten ditugun produktuen arabera, mota bateko edo

besteko materiala lortzen dugu. Material gogorrakoa edo bigunagoa. Ondorioz, bioplastikoa ere erabilera bat edo beste izango ditu. **Ze erabilera dute bioplastiko horiek?**

Kolagenoarekin bakarrik sortutako filmak elikagaien edo osasungintzan erabil daitezke; artilearekin egondako plastikoak, baratzeetan eta lorategietan belar txarrak saihesteko eta ingurumenari kalterik ez egiteko...

Nola sortu zitzaizuen enpresa sortzeko ideia?

Bergarako Miguel Altuna Lanbide Heziketa Eskolan sortu zen, Urrats Bat programaren baitan. Kimikako departamentuan ikerketa egiten hasi ginen irakasle eta ikasleok. Ostean, patentea lortzeko bidean hasi ginen 2011n eta 2015ean sortu genuen enpresa. Hasiberriak gara, hazten goaz, ikerketa prozesu etengabea.

Zenbat lagun ari zarete?

Sei; denak gara langile eta enpresako jabe. Miguel Altunako ikasle eta irakasle ohiak gehienak.

Viscofan multinazional nafarrak, haragien bilgarriak-eta egiten dituenak, erosi berri du Ekolberren zati bat. Albiste ona?

Bai, bai; Viscofan enpresa indartsua da eta jakintza handia du. Horretaz gain, baita kapitala eta merkatua ere. Bazkide estrategikoa da. Merkaturatzeko prozesuan, batik bat, asko lagunduko digu.

HAU BE BADOGU!

Sare sozialak ere "berotuta"



Tenperatura historikoak bizi izan dira aste honetan Euskal Herrian, beroari dagokionez:

@igaztelubilbao: "Gaur berriro.... Sua!! #sargori #beroa".

@mikelsertu: "Espero dut lurrera jausi behar den asteroide hori nire gainera erortzea, horrela ez dut beroa jasan beharko".

@euskalmet: "Urteko tenperatura altuenak gradutan. Zalla 39.6, Beasain 39.3, Arrasate 39.2, Balmaseda 38.3, Zaldibia 38.2, Ataun 38, Gasteiz 36.7".

Espainiako Kongresuak txio askorako eman du

@19julyus: "Kongresua, miserableek osaturiko antzerki ederra. Demokrazia".

@enekogara: "Kongresua Lehen Hezkuntzako gela bat baino okerragoa da, entzulegoaren jarrerari dagokionez behintzat".

@marinaaaa: "Estebanek Riverari: 'Zu imajinatzen zaitut banda batean, baina mariatxi banda batean'".

@nknmrn7: "Mariatxi taldea? Ba nik Rivera gehiago ikusten dot Taburete+Flos Mariae nahasketa bat bezala".

'#47akherrian' traola, erabilienetakoa

11/13 makroepaiketaren dauden 47 pertsonen aldeko elkartasun traola *trending topic* izan da asteon:

@IgorMeltxor: "Nire babes eta maitasun osoa! Meatzaldetik 47 musu! #i14goazenbilbora #47akHerrian".

@maitemangado: "47ak herrian! Baztandarren Biltzarra ere aldarrikapenerako tokia".

@telmodeun: "Bizikidetzaren alde sinatu dut, eta zuk? Sinatu! #47akherrian".

ITURRI ONETIK

Oiloak hazteko ustiategia Oñatin

Aintzane Agirre oñatiarrak eta haren bikotekide Galder Azkuek oilo-ustiategia jarriko dute azaroan. 3.000 oilo hazi nahi dituzte, haien arrautza ekologikoak saltzeko. Horretarako, Oñatiko baserria atontzen ari dira.

Gipuzkoako Diputazioak lurraldeko lehen sektoreari bultzada emateko eta baserrietan enpresa berriak sortzen laguntzeko 831.940 euro bideratu ditu aurtan, Gaztenek egitasmoaren bidez. 40 urtetik beherako 41 gazte sartu dira proiektuan eta horietako bi dira Agirre eta Azkue.

ALBISTE IZAN ZEN



GOIENA

2004-07-19

Errauste-plana Donostian jartzeko erabakia

Gipuzkoako errauste-planta Donostian eraikitzea erabaki zuen Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorreko Jarraipen Batzordeak. Lurraldeko mankomunitateetako presidentek eta errauste-planta martxan jartzeko hautagai ziren zortzi herrietako alkateek hartu zuten parte batzarrean. Hautagaietako bat zen Bergara. Odon Elortza Donostiako alkatea erabakiaren aurka azaldu zen.

GUTUNAK

Justizia nahi dugu: Iruña-Veleia, SOS

MIKEL ERRASTI
ARETXABALETA

Irakurri duzun izenburuari erreparatuz, kasuistika zabal baten aurrean gaude, zoritxarrez.

Hala nola justizia Altsasuko gazteentzat –ez ditzagun ahaztu–; justizia Osakidetzako langile batek oposizioetan izaten diren irregulartasunak publikoki salatu eta berehala lanetik kanporatua izateagatik; justizia Europar Batasunak errauskailu berriak debekatzeko legedia sartu aurretik, presaka eta modu irregularrean –SWAP kredituak–, gipuzkoarren gaitasun ekonomikoa urte askotarako zorpetzeagatik eta hau guztiau modu demokratikoan geldiarazten saiatu diren Ainhua Intxaurrandietari eta Iñaki Errazkini kartzela-zigorak ezartzen ahalegintzeagatik.

Nik neuk Iruña-Veleia aferan justizia egin dadila irmoki eskatu nahi dut.

Justizia Eliseorentzat eta bere lantaldearentzat, epai baten zain 10 urte luze, baina publikoki eta profesionalki zigortua.

Zoritxarrez, kasu honetan ere komunikabide gehienek nahita edo utzikieragatik

ahaztuta, orain da momentua epaiketa hasi aurretik iluntasunetik atera eta argitara ateratzeko.

Eta zer eskatzen du defentsak? Aztarnategian aurkitutako ostrakak Europar homologatuta eta horrelako kasuak aztertzeko prestatuta dagoen laborategi homologaturen batera bidaltzea. Pentsa, datu moduan: horrelako laborategi bat ez dauka ez Guardia Zibilak, ezta Ertzaintzak ere.

Ni ezkorra naiz; izan ere, nahi izan balitz, argudio zientifikoak soilik erabilita, kasu hau aspaldi konponduta egon beharko luke, baina, Pink Floydek kantuan dioen bezala, paretan zirrikituak irteten hasi dira. Dagoeneko argitaratu dira Europa mailako lehen lerroko zientzialarien – arkeologoak...– txostenak, non dioten Iruña-Veleiako aurkikuntzak benetakoak direla.

Mesedez, ez dezagun Eliseo Gil Euskal Herriko Marcelino Sanz berri bat bihurtu; oraindik denbora daukagu, eta, abestiak dioen bezala, esperantzara kondenaturik gaude.

Post-data: zientziak irabaziko du.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefona eta nortasun agiriaren zenbakia. Helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HANDIK ETA HEMENDIK

Arduragabekeria digitala

DABID MARTINEZ

[HTTPS://LABUR.EUS/XNDQU](https://labur.eus/xndqu)
'ARGIA'-N ARGITARATUA

Esango nuke telefono mugikorrean instalatzen ditugun aplikazioak arduragabekeria handiz instalatzen ditugula.

Hau da, gure telefonoan aplikazio bat instalatu orduko ez dugula sakoneko –kasu gehienetan ezta azalekoa ere– azterketa burutzen. [...] Yonki digitalak garesti onartu beharrean gaude. Ezinbestekoa zaigun dosi berriaren bila. Etengabe.

Gure telefono mugikorretan azken aplikazio moloia instalatuta nahi dugu. Eskaintza agortu orduko. Ustez, gainera, gure sistema eragilearen aplikazio denda dauden produktu guztiak seguruak eta pribatuak direla.

[...] Azken egunotan Face App aplikazioa bolo-bolo ibili da gure telefono mugikorretan. Igandean nire gurasoekin jaten nengoela, ea probatu nuen galdegina zidaten. Aho bete hortz utzi ninduten. Denok nahi izan dugu –behintzat askok nahi izan dute– Face App aplikazioak erabiltzen duen adimen artifizialak norberaren selfiearen prozesamendua burutzea. Atso horrek zein itxura izango duen jakiteko asmoz. [...]

Face App bezalako aplikazioen helburua ez da edadetzen garenean nolako aurpegia izango dugun erakutsiz gure barreak –edo

beste batzuenak– eragitea. Barre horrek ez diolako garatzaileari inongo etekin ekonomikorik uzten. Lagunok, mundu puta honetan, app garatzaile gehienek etekin ekonomikoa nondik aterako den pentsatzen dute kode lerro bakarra idatzi orduko.

Aste bakarrean zaku bete selfie lortu dituen Face App-ak mundu mailako profil desberdinak lortzeko aukera izan du: umeak, gazteak, helduak. Zuriak, beltzak, mestizoak. Emakumeak, gizonak. Bururatzen zait, big data teknikak aplikatuz, asko ikasi dezakeela aurpegi ezagutza hardwareak saltzen duen enpresa batek. [...]

Kasurik onenean zure telefonoan spywarea instalatzeko aukera handiak dituzu.

Baina ez da aplikazio hau etorkizunean arazoak sortu ditzakeen lehen aplikazioa. Hala balitz gaitz-erdi! Egiari zor, beldurra ematen didate eskumuturrean eramaten ditugun kirol monitore horiek. Guraso batzuek beraiei seme-alabak non dauden jakiteko erabiltzen dituzten GPS jarraipen sistemak. Irensten ditugun kalorien zenbaketa egiten duten aplikazioek. [...]

Beldurra ematen dit, laburbilduz, jendarte honek datuak modu hain arduragabea oparitzea. Kappitalismoaren erroak gure sukalderaino sartu izanak beldurtzen nau. Funtsean, zure selfie horrekin, nire aurpegiaren azterketa sakona egiteko aukera oparitu izana.

Harridura

ONINTZA ENBEITA

[HTTPS://LABUR.EUS/70QX0](https://labur.eus/70qx0)
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Ingurua gurasoz eta irakaslez beteta daukat. Agian horregatik hitz egiten dugu hainbeste eskolaz opor garaian. Aldaketa orokorretan egongo da konponbidea: eraiki behar dugun guztiontzako eskola horretan. Bitartean, ordea, egungo sistemaren hutsuneak kasu partikularretan nabarmentzen dira.

Umea eskolaz aldatu zuen lagun batek esan dit oraindik ere herrian ez diotela sinisten umeari gertatutakoa.

Beste lagun baten umea jipoitu egin dute ikastolan. Beste bertsio bat ere badela esan dit beste lagun batek, baina umea hilabete bi egon da ikastolara joan gabe psikologoaren aholkua hala izan delako. [...]

Lagun irakasle batek esan berri dit bajan egon dela hainbat hilabete ezin zuelako eskolarik eman ere egin egon den lekuan. Ikasleek sekulakoak egin dizkiote. Ez omen du sekula hain gaizki pasatu, baina eman dioten laguntza bakarra baja hartzeko gomendioa izan da.

Zerbait oso gaizki egiten ari garela iruditzen zait.

Garela, bai.

Hezkuntzaren onak eta txarrak gizarte osoaren porrotak eta garaipenak baitira.

Post gehiago 8. orrialdean.

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





Parraia baserriko Gorka Gonzalez, bere lurretatik igarotzen den kamioi bat seinalatzen. XABI GOROSTIDI

AHTa egiteko kamioiak "baimen gabe" pasatzen dabiltzala salatu dute

Abendutik hona Parraia eta San Jurgi baserrien arteko bide pribatutik egunero 50 kamioi inguru pasatzen direla diote jabeek. Eurei inork baimenik eskatu ez diela diote, eta halako kamioi trafikoa etxe alboan izatea "kaltegarria eta arriskutsua" dela

Xabi Gorostidi ARRASATE

Zabolain sagardotegira heltzeko dagoen bide zatitik AHTa egiten dabilzan kamioiak pasatzen dira egunero. UTE Sector 2 izeneko aldi baterako enpresa elkartearentzat egiten dute lan, Udalatz inguruko trenbide zatia egiten.

"Abenduan hasi ziren lanak eta egunero 50 kamioi inguru pasatzen dira; hormigoia eramaten dutenak dira gehienak, baina baita hondeamakina handiak ere", azaldu du Parraia baserriko Gorka Gonzalezek.

Aipatutako UTE Sector 2 enpresak 450 metroko eremuan trafikoa mozteko baimena eskatu zion Udalari 2019ko martxoan; Kobate-Lizueta-Arlaban eremuan egitea eskatzen zuten, zehazki. Udalak baimena eman zien, honako baldintza hauekin: lanean ari diren bitartean bideak ixtea eta jaiegunetan zabaltzea, moz-

ketari dagozkion seinale informatiboak jartzea, eta basoetako lanak egonez gero, bien artean koordinatzea.

Baina Parraia eta San Jurgi baserrietakoek diote bi baserri horien arteko bidea ez dela Kobate-Lizueta-Arlaban eremuan sartzen.

"Gure baserrietako bide zatia hortik kanpo dago, Gesalibar barruan dagoelako. Eremu horren barruan sartu badute ere, inork ez digu baimenik eskatu, eta, ondorioz, ez dugu alegaziorik jartzeko aukerarik ere izan", azaldu du Gonzalezek.

BI BASERRIEN ARTEKO BIDEA BAIMENDUTAKO EREMUTIK KANPO DAGOELA DIOTE

"Kalteak eta arriskuak"

Era horretako kamioi astunen trafikoa etxetik gertu edukitzeak "kalteak eta arriskuak" eragiten dizkiela azaldu du: "Bidea bus-tita badago, kamioiek ez dute apenas frenatzen, eta halako batekin bidean topo egitea oso arriskutsua da. Bestalde, kalteak daude: kamioi batzuei hormigoia jausten zaie bide gainera, eta hor geratzen da. Horrez gain, San Jurgi baserriak bide alboan duen ur saneamendua konpondu egin behar izan du. Ez daki-gu, zehazki, kamioien bibrazioak eragin duen, baina...".

Gonzalezek dio 2009 inguruan Adif-ek euren baserriak desjabetzeko aukera izan zuela, baina baztertzea erabaki zuela. "Bide zati hau 2012an egin genuen auzolanean. UTE Arrasate-Elorriok materiala jarri zuen eta auzokideok, ordea, lana".



Hondeamakina Lizuetako hariztian botata. GORKA GONZALEZ

Lan istripua "estaltzeko ahalegina"

Ekainaren 28an, UTE Sector 2 enpresako langile batek istripua izan zuen, eta Gonzalez lekuko izan zen. "Hondeamakina Lizuetako hariztian zebilen lanean, baina kontrola galdu eta irauli egin zen. Langileak zauria izan zuen beso batean, eta enpresakoek auto batean eraman zuten ospitalera, anbulantziari deitu gabe". Zauritua auto batean eraman izanak Gonzalezen susmoak piztu zituen, eta ostean egindako dei batzuekin susmoa baieztatu egin zuen: "SOS Deiak-era deitu nuen, baina ez zuten gertatutakoaren inongo zantzurik. Ostean, Ertzaintzara deitu nuen, eta erantzun bera. Osalanera ere deitu nuen, eta ezer ez; eta zirkulua ixteko, Arrasateko Udaltzaingora, eta berdin". Ikusitakoak ikusita, Gonzalezek salaketa jarri zuen sorospen-omisioagatik. Uztailaren 3an jarri zuen, 1 zenbakiko Gasteizko Instrukzio Epaitegian.



Bidea moztuta eta kamioiak eta udaltzainak ezin pasa. GORKA GONZALEZ

Uztailaren 16an, planto

Baimenik ez izan arren azken hilabeteetan kamioiak etxe albotik pasatzen ari zirela ikusita, Gorka Gonzalezek bidea oztopatzea erabaki zuen uztailaren 16an.

"Baserritik gertu nire autoa aparkatu nuen, bidea oztopatuz eta kamioiak pasatzea galaraziz. UTEko langileekin eztabaidan aritu nintzen nire bidea baimen gabe erabiltzen ari zirela esanez, eta hauek Udaltzaingora deitu zuten. Udaltzaingoa agertu zenean, esan zidaten kamioiek badutela bertatik igarotzeko baimena, eta autoa kentzeko eskatu zidaten. Ez zidaten dokumenturik aurkeztu, baina, autoritatea direnez, autoa kentzea erabaki nuen.

GOIENAK jakin duenez, Gesalibarko auzo-alkateak azalpen eske deitu zuen asteazkenean Udalera, eta datorren astean batzartzeko hitzordua egin dute Udaleko ordezkariekin.

2015-2019 agintaldiko diru banaketa, ikusgai

Udal webguneko gardentasun atarian berriki argitaratu dituzte 2015-2019 agintaldian politikariei eta alderdi politikoei egindako ordainketak, non liberatuenak ez diren ageri; alderdi bakoitzak ordainketak jasotzeko irizpide ezberdinak ditu

Xabi Gorostidi ARRASATE
Gardentasun politikaren baitan, 2015-2019 agintaldian zinegotziei eta alderdiei egindako ordainketen taula argitaratu du Udalak www.arrasate.eus webgunean.

Asignazioak eta dietak
Alderdiek eta zinegotziek bi kontzepturen arabera jasotzen dute diru publikoa: asignazioenatik eta dietengatik.
Bi asignazio daude: partidu politikoko asignazioa -8.550 euro urteko zen aurreko agintaldian-

eta zinegotziko asignazioa -6.840 euro-. Dietak, aldiz, bileretara joateagatik jasotzen diren ordainsariak dira. Bilera mota asko daude, eta hauek dira aurreko agintaldian ordaintzen ziren kopuruak: batzordeak -57 euro zinegotziek eta 115 euro batzordeburuek-, osoko bilkurak -57 euro zinegotziko- eta tokiko gobernu batzarrak -Gobernuko kide bakoitzeko 57 euro-. Aipatu behar da liberatuta dauden zinegotziek -sei izan ziren aurreko agintaldi amaieran- ez dituztela dietak kobratzen.

Ordainketak, alderdiz alderdi
Alderdi bakoitzak ordainketak jasotzeko modu ezberdina du, eta horrek eragiten ditu taulan dauden diferentziak. EH Bilduren eta PSE-EEren kasuan, zinegotziko asignazioak alderdiak jasotzen ditu zuzenean. EAJren, Baleikereren eta Irabaziren kasuan, aldiz, zinegotziek.



2015-2019 agintaldiko azken osoko bilkurako irudia. XABI GOROSTIDI

Alderdiei eta zinegotziei ordainketak

LIBERATU GABEKO ZINEGOTZIEI ORDAINKETAK		
BALEIKE	OPOSIZIOA	57.919 €
EAJ	GOBERNUA	57.211 €
BALEIKE	OPOSIZIOA	45.087 €
EAJ	GOBERNUA	39.786 €
EAJ	GOBERNUA	37.508 €
IRABAZI	OPOSIZIOA	32.376 €
EAJ	GOBERNUA	30.040 €
PSE-EE	GOBERNUA	22.558 €
PSE-EE	GOBERNUA	14.592 €
EAJ (%55ean liberatuta)	GOBERNUA	14.360 €
EAJ (%50ean liberatuta)	GOBERNUA	13.075 €
EH BILDU	OPOSIZIOA	10.032 €
EH BILDU	OPOSIZIOA	9.804 €
EH BILDU	OPOSIZIOA	9.462 €
EH BILDU	OPOSIZIOA	7.011 €
EH BILDU	OPOSIZIOA	6.384 €
EH BILDU	OPOSIZIOA	5.244 €
EH BILDU	OPOSIZIOA	4.617 €

ALDERDI POLITIKOEI ORDAINKETAK	
EH BILDU	214.845 €
PSE-EE	90.638 €
IRABAZI	61.688 €
EAJ	34.508 €
BALEIKE	34.271 €

OHARRA: UDALAK ARGITARATUTAKO DATU HAUETAN EZ DIRA ZINEGOTZIEN IZEN-ABIZENAK AGERTZEN, ETA BERTAN AGERI DIREN KOPURUAK ORDAINSARI GORDINAK DIRA.

Liberatuen ordainketak, kanpo
Taulako ordainketak ordezkari politiko izateagatik jaso dituzte alderdiek eta zinegotziek. Baina badaude herri ordezkari izateagatik soldata publiko bat jasotzen duten politikariak; hau da, liberatuak. 2015-2019 agintaldian

kopuru hauek jaso dituzte lau urtetan: Maria Ubarretxenak 262.600 euro, Ander Garayk eta Oscar Garciak 132.636 euro, Ibon Arrupek 72.948 euro, Juan Ramon Mendiak 66.316 euro eta Eneko Barberenak 47.401 euro -19 hilabetez egon zen liberatuta-.

NIRE USTEZ
ITSASO ERRETOLATZA

Ilargian bizi

Ez dago ezer Ilargia eta Lurra fisikoki konektatzen dituenik, eta, hala ere, etengabe gugana tiraka ari zaio Lurra Ilargiari. Eta honek planetaren orbitan lerro tangential perfektua irudikatzen du. Bi gorpu zerutiar, balsean dantzan, bikotea balira bezala. Euskaldunontzat, hilen argia edo ilunean argia izan da, itsasargi baten bide, zeruargi gidari bat. Eta bestalde, ilunari beldurra, babes faltan, ilbeltzetik datorkigu. Eta Ilargiak gure itsasoa ere maneiatzen du, mareak noiz bizitu erabakiz. Olatuak eraikiz. Eta naturaren egutegian, eragin ziklikoa du, 29 egunetik behin gertatzen baitira mirariak. Bizitzeko, bata zein bestea behar ditugu, hala beharrean. Eta lurtarrok, Ilargira joan nahi eta 50 urte pasa diren honetan, bertan estazio finkoa jartzea erabaki dugu.

Susmoa dut, zaborra itsasoan ezkutatu bezala, orain arte aldaketa klimatikorik onartu ez duten *lunatiko*-ek Martera ihesi joateko planak egiten dihardutela. Berandu batean, gehiengo lurtarrok hemen gelditu beharko dugu, ala denontzako plaza egongo da?

OHARRAK

Udalako jaiak
Abuztuaren 2an, 3an eta 4an ospatuko dituzte; egitarau osoa Goiena.eus webgunean dago ikusgai.

Azken ostirala
Gaur, 19:30ean, Herriko Plazan elkarretaratzea egingo dute Arrasateko presoak etxeratzea eskatzeko. Kubako iraultzaren eguna denez, Arrasateko Askapenak bat egin du deialdiarekin.

Saltsa ikastaroa
Uztailaren 26a denez, herriko tabernetan mojitoa eta saltsa soinuak izango dira gaur. Azken hau ondo dantzatu nahi dutenek hitzordua dute Monterronen, 17:00etan.



X.G.

40 gradu herrian martitzenean

Aste honetako protagonista nagusietakoa beroa izan da, zalantzarik gabe. Afrikatik etorritako hegoa haizeak tenperatura altuak eragin ditu; urteko altuenak. Martitzena izan da egunik beroena, eta, Zarugalde kaleko farmazia horren kanpo aldean ikusten denez, 40 gradura iritsi zen tenperatura Arrasaten.



Eneko Diaz, Denis Itxaso, Maria Ubarretxena eta Maria Jose Telleria, asteazkenean, Kulturaten. MAIDER ARREGI

Kooperatibismoa eta euskara, aztergai nagusi

Foru Aldundiko Kultura Sailak, Koldo Mitxelena Kulturaguneak eta Udalak Kultur Memoriak proiektuaren emaitzak aurkeztu dituzte; Arrasateko memoriari eta ondareari buruzko mapatze parte hartzaileari eta sorkuntza soziokulturalari buruzko proiektua da

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasateko biztanleek udalerrria esploratu eta miatu dute, bertako errealitatea identifikatuz eta dokumentatuz. Herriko kultura eta istorioak hainbat ikuspuntutatik azaleratzea izan dela helburuetako bat kontatu du Arrasateko alkate Maria Ubarretxena. Eta azaleratu eta landu dituzten gaien artean, bi azpimarratu dituzte: kooperatibismoa eta Arrasateko euskara, hain zuzen.

Industria eta Kooperatibismoa proiektuan, mugarri den Arrasate Zientzia Elkarteak entitateak parte hartu du, bazkideetako baten testigantzen bidez. Aipu historiko bat egin du industriaren jatorriari, mineralen erazketari, burdinolei eta Arrasateko altzairuaren kalitateari buruz, zeina XV. eta XVII. mendeetan Europako onenetarikotzat jo zen. Industria horren bilakaerak industria txiki askoren sorrera ekarri zuen: Union Cerrajera, bailarako industrian enpresa

erreferentea izan dena urte askoan; Vasco-Navarro trenbidearen iritsiera; industriaren garapena; Jose Maria Arizmendiarrieta; eta gaur egunera arteko mugimendu kooperatiboaren garapena eta hazkundera.

Euskarari buruzko proiektuan, iritzia eman dutenek Arrasate Euskaldundu Dezagun elkartearen historiaren errepaso bat egin dute, eta nabarmendu dituzte bai horrelako elkarre batek sorreraren momentuan izan zuen garrantzia, bai urteetan zehar aurrera eraman dituen jarduerak.

Kultura, "kohesiorako tresna"
Memoria kolektiboa berreskuratzeko funtsezkoa dela dio Denis

ARRASATE ZIENTZIA ELKARTEKOEK EDO TXATXILIPURDIKOEK HARTU DUTE PARTE, BESTEAK BESTE

Itxasok, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatuak, eta herri baten identitateari eta nortasunari eustea ezinbestekoa dela: "Memoria kolektiboa berreskuratzeko funtsezkoa da ondare soziokulturala sortzeko, horrekin identifikatuta senti gaitezen eta balioen oinarri bat ezar dezagun, gipuzkoar guztiok partekatua".

Kultura kohesiorako tresna izan behar dela gaineratu du eta norabide horretan doan aurrerapena dela aurkeztu berri duten Kultur Memoriak ekimena. Era berean, herri bakoitzak daukan elementu diferentzial horiek ezagutzearen eta gordeztearen garrantzia nabarmendu du Itxasok.

Kultur Memoriak ekimenaren baitan jasotako bideoak eta informazioa Gipuzkoako Aldundiko webgunean dute herritarrek eskura. Aurreratu dute, baina, asmoa dela etorkizunean gai gehiago lantzea eta ekimena osatzen jarraitzea.



Hernandez, Okina, Trojaola, Morras, Artola, Urteaga eta Zubiaga. IMANOL BELOKI

EH Bilduk prest dauka udal batzordeetan aritzeko lantaldea

Bi lagun %50ean liberatzeko eskaria ezeztatu ostean, laster jakinaraziko dute nor izango den euren liberatua

X.G. ARRASATE

Astelehenean, prentsa agerraldia egin zuen Arrasateko EH Bilduk, Udaleko batzordeetan zein zinegotzi arituko diren aditzera emateko. Hau da egin duten banaketa: Obrak, Zerbitzuak, Mantenua eta Auzoak, Kepa Urteaga; Berdintasuna, Itxaro Artola; Hirigintza, Mugikortasuna eta Ingurumena, Aitor Zubiaga; Kirola, Fernando Okina; Barne Antolaketan Ogasuna Joseba Ezpeleta eta Pertsonala Maider Morras; Garapen Komunitarioa, Nerea Hernandez; Hezkuntza eta Enplegua, Aitor Zubiaga; Kultura eta Euskara, Kepa Urteaga; Tokiko Merkataritza, Maider Morras; eta Bizikidetzak, Larraitx Trojaola.

"EH Bilduko zinegotziek interes publikoak interes pertsonalen gainetik jarriko dituzte eta zin egiten dugu gure denbora, indarra eta gogoia arrasatear

guztien interesetan irauliko dugula", adierazi zuen Morrasek.

EH Bilduren liberatua

Gobernuarekin lehen harremanak ez direla onak izan adierazi zuen Morrasek; batez ere, oposizioari "diru gutxiago" bideratuko diotelako eta EH Bilduk jardun erdiko bi liberatu izatea eskatu ostean "ezezkoa" eman diotelako. "Zarautzen posible izan dena, zergatik ez Arrasaten? Borondate politikoa balego, hemen ere posible litzateke". Udal Gobernuak aditzera eman du Eudel-en txostenak eta udal txeko idazkariarenak ez duela onartzen liberazio zatikaturik. Baina bigarren txosten horrek aipatzen du badagoela aukera bat udal karguen zatikako deikazioa egiteko, lehendakaritza, lehendakariordetza, delegazioak eta halako erantzukizunak edukiz gero.

Ekain Zubizarreta babesteko udako argazkien kanpaina

11/13 auzia dela eta Ekain Zubizarretari babesteko dinamika abiatu eratu ostean, martitzenean bigarren batzarra egin zuten. Lantaldeka antolatuko dira aurrerantzean, modu autonomoagoan ekintzak prestatzeko. Hala ere, udarako *Elkartasun argazkia* kanpaina antolatu dute; kartel batekin argazkia atera eta partekatzea da asmoa.

62.862 euro erabiliko ditu Udalak kirol inbertsioak egiteko

Padel pistak itxi egin dituzte, eta bertako belar artifiziala berritu. Uarkapen, ordea, gimnasioa kristaletan biniloak jarri dituzte, egun eguzkitsuetan babestuago egiteko. Hurrengoak hauek izango dira: Iturripeko kantxako marrak margotzea eta ur bero sanitarioa hobetzea eta Antoñako kantxan saskibaloia saski gehigarri bat jartzea.



Eneko Carrascal eta Iñigo Uribarren, Mojategin, eguaztenean eginiko entrenamenduan. E.A.

Eneko Azurmendi ARRASATE

Pasa den asteburuan, Avilan aritu ziren Eneko Carrascal (1999) eta Iñigo Uribarren (1993) atleta arrasatearrak, estatu mailako *meeting* batean, eta irabazlea eta bigarren sailkatua izan ziren, hurrenez hurren, salto hirukoitzean. "Bero handia egin zuen, eta gu altueran salto egitera ez gaude ohituta, baina ondo joan zen. Sentsazioak oso onak izan ziren, nahiz eta marka ez zen hain ona izan, 15,64 metro", azaldu du Carrascal.

Uribarrenek ere "oso sentsazio onekin" amaitu du Avilan, 15,37 metroko marka lortuta, eta hasi baino hobeto amaitu du denboraldia, berak azaldu moduan.

Astebete lehenago, Euskadiko Txapelketa eduki zuten, Durangon, eta emaitza berak lortu zituzten: Carrascal irabazi zuen eta Uribarren bigarren izan zen. Lehenak, gainera, marka pertsonala ondu zuen -15,82 metro-. "Egia esan, ez nuen espero hain salto ona egitea. Denboraldi hasiera txarra eduki nuen, teknikoki ez nituen zehazten mugimendu batzuk, eta orpoan lesio txiki bat eduki nuen. Horri buelta ematen joan naiz, pixkanaka, baina ez nuen espero halako saltorik egitea. Oso gustura atera nintzen handik", azpimarratu du bietan gazteenak.

Uribarren nahiko urrun ibili zen bere marka onenetatik -16,13 metroko marka dauka aire librean eta 16,17 metro pista estalian-, baina pixkanaka sen-

Denboraldia gogorra izan den arren, "sentsazio onekin" bukatu dute

Nola Eneko Carrascalek, hala Iñigo Uribarrenek, denboraldia "oso gogorra" egin zaiela onartu dute; lehenak bihar amaituko du denboraldia, Iruñean jokatu duten Espainiako federazioen arteko txapelketan; Uribarrenek, berriz, oporretan du burua

tsazio onak berreskuratu dituela onartu du, eta hura ere pozik azaldu da egin duen denboraldi amaierarekin.

Denboraldiko gorabeherak

Ingeniaritza ikasten ari da Carrascal, eta, adierazi duenez, garai onean suertatu zitzaion pista estaliko denboraldia, azterketarik gabekoa, eta "txukun" ibili zen. Aire libreari dagokionez, "estres asko" eduki zuen unibertsitatean, eta entrenamenduak ez zituen behar bezala egin ahal izan. "Hasiera kaxkarra izan ostean, baina, atzetik au-

rrera egin dut eta maila onean ari naiz bukatzen denboraldia".

Uribarrenek aitortu du "oso luze" egin zaiola denboraldia. "Hiru errelebotara aritu naiz lanean Oñatin, eta Donostian entrenatzen. Beraz, astean bizpahiru alditan joan behar izaten nuen Donostiaraino, ondo deskantsatu gabe. Urte gogorra izan da, fisikoki nekatuta sentitu naizelako, baina emaitzarik onenak denboraldi amaiera honetan lortu ditut", dio.

Psikologikoki ikasteko urtea

2018an lesio grabe bat eduki zuen Uribarrenek, faszia plantarra ia apurtu egin baitzuen. "Irailean hasi nintzen entrenatzen eta sarri lesionatzen nintzen berrirori. Izan ere, salto hirukoitze oso gogorra da oin-zolarentzako. Urte oso gogorra izan da niretzat, bai fisikoki eta baita

mentalki ere. Gero, gainera, lana dela eta, gorputzak ez dit nik gura moduan funtzionatu. Hori ulertzea kostatu egin zait, eta nire buruari gehiegi exijitu diot. Momentu batzuetan, gaizki pasa dut psikologikoki, eta atletismoa uzteko zorian ere egon naiz. Hala ere, buelta eman diot, eta denboraldia txukun amaitu dut. Urte zaila izan da, baina pozik nago sentsazio onak berreskuratu ditudalako bukaera honetan", azpimarratu du.

Urte "gogorra" izan da biontzat. Uribarrenentzat, lesioagatik; eta Carrascalentzat, ikasketengatik.

SENTSAZIO ONAK BERRESKURATU OSTEAN, IRAILEAN "GOGOZ" ITZULIKO DA IÑIGO URIBARREN

"Psikologikoki asko ikasi dugu denboraldi honetan, eta baita modu egokian lehiatzen ere. Ikasteko urtea izan da biontzat", adierazi du Carrascalek.

Bihar, azken txapelketa

Euskadiko Txapelketa irabazi ostean, Euskadiren ordezkari izango da Carrascal bihar, zapatia, Iruñean, Espainiako federazioen arteko txapelketan. "Ez dakit ze aurkari edukiko ditudan, baina ni nire marka hobetzera joango naiz. Azkeneko bi asteetan oso erregular mantendu naiz, eta aste honetan sentsazio onak izan ditut. Gai ikusten dut neurre burua horretarako".

Denboraldiko azken txapelketa izango da Carrascalentzat, eta abuztuan oporrak hartuko ditu. Uribarrenek, berriz, Avilan lehiatu ostean, bukatu du denboraldia, eta oporretan dago.

AEBetako egonaldia, gazi-gozo

Carrascal AEBetan egon zen iaz. Lau urteko Ingeniaritza ikasketak han egitea zen asmoa, baina itzuli egin behar izan zuen. "Hango unibertsitateak arazo batzuk izan zituen nire ikasketekin, bekarekin ez zuelako bat egiten. Konturatu ziren ez zela bideragarria nik han jarraitzea. Beraz, itzuli egin behar izan nuen, eta aurren zerotik hasi behar izan naiz berrirori unibertsitatean hemen", azaldu du. "Esperientzia moduan ondo egon zen, gauza berriak ikasi nituelako urtebete hartan, baina ez zen behar bezala irten. Hala ere, hemengoa baloratzen lagundu dit".

Atletismoa herritarrei erakutsiz

Datorren denboraldiari begira, "talde polita" izango dute Mojategin. "Alain Egia, Alex Agiriano eta Mikel Agirre gazteak ere gurekin izango dira, eta hain maila oneko talderik ez dugu sekula eduki. Guztion artean talde ona osatuko dugu, eta urte oso ona izan daiteke".

Bestalde, irailean Biterin egingo duten erakustaldia dela eta, herritarrei gerturatzeko deia egin diete. "Gura duguna da herritarrek ikustea egiten dugun lana. Hemen oso maila oneko atletak gaude, eta jende askok ez daki. Gainera, aukera asko eskaintzen dituen kirola da atletismoa, eta hemen ditugun estruktura eta baliabideak kontuan hartuta, aprobetxatzeko modukoa dela uste dugu".

"Gure 'abueloen' bidaia ez zen erraza izan"

GORKA HERMOSA AKORDEOI JOLEA

Uztaila kultur ikuskizunez bete duen Udazabal egitarauak egin du bere bidea, baina ez du agur esango azken kartutxo erre gabe: domekako 'Hezurbeltzak' ikuskizuna

Xabi Gorostidi ARRASATE

Musika eta testua uztartzen dituen ikuskizuna da *Hezurbeltzak*. Jon Maia bertsolariak, *Piti* gitarristak eta Gorka Hermosa akordeoi joleak hartzen dute bertan parte eta domekan geldialdia egingo dute Arrasaten: Aldai parkean, 20:00etan.

Nondik sortu zen *Hezurbeltzak* ikuskizuneko hirukotea?

ELE! *Lorca-Lauaxeta* antzezlanean elkarrekin aritu ginen. 30 saio baino gehiago egin ostean, oso harreman ona sortu zen gu hiruron artean, eta horri jarraipena emanez jaio zen *Hezurbeltzak* ikuskizuna. Arrasatetik gertu, Oñatin, bi asteko epean birritan aritu ginen: bata **ELE!** *Lorca-Lauaxeta*-rekin, eta ostean, 100 metroko distantziara, *Hezurbeltzak*-ekin.

Izan al zarete Arrasaten?

Bai. Niretzat, oso kontzertu berezia izango da, urtero joan bainaiz Akordeoi Lehiaketa bertatik bertara ikustera. 31 urtez jarraian, konkretuki. Horrez gain, urte hauetan izan ditudan bestelako proiektuekin behin baino gehiago etorri izan naiz Arrasatera.

***Hezurbeltzak* proiektuari helduz, ez da kontzertu soil bat, ezta?**

Jon Maiak dioenez, mundua aldatzeko kantak egiten ditugu. Ez dakit horrenbestearino iristen garen, baina gure mundu txikian eragiten ahalegintzen gara. Jon Maiaren gurasoak eta nireak kanpotik Euskal Herrira etorritakoak dira, eta gure sustraiei begira egiten ditugu kantak. Nire familia, adibidez, Extremaduratik eta Segoviatik etorritakoa da. Hala ere, gu euskaldunak gara, eta euskaraz egiten dugu gure lana, bestek beste, euskal kultura munduan zehar zabalduz. Gure *abueloak* eta *abuelak* goraipatzen ditugu, kanpotik hona egin zuten bidaia ez zelako batere erraza izan. Baina, horri keinu egiteaz gain,



Gorka Hermosa, Jon Maia eta Piti. HEZURBELTZAK

"GURE AITONA-AMONEI, LORCAREN LURRETATIK LAUAXETARENERA ETORRI BEHARRA TOKATU ZITZAIEN"

euskal kultura ere goraipatzen dugu, bien arteko zubiak eraikiz. **Arrasate bada abuelo eta abuela asko dituen herri bat; beraz, ikuskizun gertukoa izan da askorentzat...** Baliteke, bai. Nire kasuan, gainera, Arrasatera etorritako lehengusu batzuk ditut. Espektakulua ikustera etorri diren gehienek esan digute oso hunkituta irten direla. Kantuez gain, Jon Maiak testuak ere irakurtzen ditu, eta kanta eta kanta artean benetan trebea da jendea hunkitzeko orduan. Jakitun gara gure familien istorioa kontatzen dugunean Euskal Herrian dauden familia askoren istorioa kontatzen ari garela, euskaldun askok baitugu kanpotik etorritako *abuelo* bat.

Garai zailak bizi izan zituzten horiei aitortza txiki bat da?

Azken finean, jende gutxik uzten du bere sorterrira plazeratik.

Gure aitona-amonei, Espainiako hegoaldetik iparraldera joatea tokatu zitzaien; Lorcaren lurraldetik Lauaxetarenera. Gaur egun, ordea, mugimendu horiek ez dira eten. Lehen baino luzeagoak dira, Mediterraneo itsasoa izaten duten erdibidean. Gure familien istorioa baliagarria da gaur egun beste askok sufritzen duten ezinegonazazaltzeko eta mahai gainean jartzeko.

Gai serioa da, ezbairik gabe, baina umorez janzten jakin izan duzuen... Bizitza, umorerik gabe, oso aspergarria litzateke, eta Jon Maiak badu umorea lantzeko trebezia berezi bat. Kantetako asko negar egitekoak dira, baina beste batzuen helburua ikusleen irribarre bataratzea da.

2018ko azaroan argitaratu zenuten taldearen izen bera duen diskoa. Zer-nolako harrera izan du?

Oso pozik gaude jendeak eman digun erantzunarekin eta denbora gutxian taldeak izan duen zabalkundearekin. 2018ko abuztuan grabatu genuen diskoa, Arbizun. *Piti* duela 20 urtetik gora ezagutzen dut, eta Jon Maia duela lau zapabost urte. Oso harreman ona dugu, eta horri esker funtzionatu dugu ondo.



Mario Fernandino eta bere taldekideak, Montenean jotzen. IMANOL SORIANO

Arrasate Blues jaialdiak emandakoarekin, "oso pozik"

Bidean izandako laguntzaileak mantenduz gero, beste edizio bat egiteko prest azaldu da Ibai-Arte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Azken hilabeteetan egindako lan eskergaren ostean, urduri zegoen Ibai-Arteko presidente Jon Apraiz ostegunean, jaialdiaren ataritan. Baina astelehenen Arrasate Irratiaren deia jaso zuen jaialdiaren balorazioa egiteko, eta urduritasuna alaitasun bihurtuta zegoen ordu-rako.

"Gauza berri eta ezberdinak egiteak beti ditu bere arriskuak. Baina asteburua nola joan den ikusita, oso pozik gaude guztiok. Ez bakarrik merkatariorik edo tabernariak, baita musikariak eta ikusleak ere. Jende asko aritu da kontzertuetan eta tabernetan, eta pozgarria da harrerara ona izan duela ikustea".

Jaialdiaren helburuetako bat zen arrasatearrei, kanpora joan ordez, herrian geratzeko arrazoiak ematea. Ikusle kopurua altua izan denez, helburua bete


egin dela ondorioztatu daiteke. Baina Apraizek gogoratu du bazeudela beste helburu batzuk, eta horiek ere bete egin direla: "Beste helburuetako bat zen herrian ditugun musikari puskei ikusgarritasuna ematea. Kanpoko bertokoa baino hobea dela pentsatzeko joera dugu, baina Arrasate Blues-ekin uste dut lortu dugula herrian musikari paregabeak ditugula erakustea".

Bigarren edizioa

Emaitzak ikusita, bigarren ediziorik izango den galdetu ostean, hona Apraizen erantzuna: "Ibai-Arte laguntza handia izan du hau posible egiteko: Danateko soinu teknikariak, Udala, tabernariak, musikariak, Arrasate Musikaleko irakasleak, komunikabideak... Beraz, horiek guztiek laguntzeko prest jarraitzen badute, bigarren jaialdi bat antolatuko dugu".

Gospel erlijiosoa Arrasaten zapatu arratsaldean

Cada Dia En Su Presencia taldeak kontzertua joko du zapatuan, Biteri plazan, 19:30ean. Nafarroako, Gasteizko, Errenteriako eta Arrasteko elizkideek osatutako korua da, eta laugarrenez arituko dira Arrasaten abesten. *Halelu Yah* izeneko bira egiten ari dira, eta, besteak beste, Iruñera, Zaragozara eta Teruelera joango dira abestera.



lazko kontzertua Arrasaten. I. SORIANO



Aramaioko San Martin eskola. J.I.

Murritzketaren gaineko erantzunen zain eskolan

Jaurlaritzak iragarri zien hiru langile gutxiago izango direla 2019-2020an, hamabost barik hamabi. Eskolak eta Udalak –Pedro Elosegiren bitartez– egindako gestioekin, hamahiru izango direla da eskolak duen azken berria. Eskolan, baina, ez daude ados

Julen Iriondo ARAMAIO

Eskolak dio halako erabakieta-rako prozedura eta epeak ez dituela errespetatu Hezkuntza Sailak, eta, bestetik, ez du ulertzen langile kopurua irizpide matematikoa bakarrik erabiliz erabakitzea. Saioa Uriarte zuzendariak dio ezin dela konparatu hiriburu batean, adibidez, eskola batek betetzen duen funtzioa eta Aramaio bezalako herri batean betetzen duena, herriko eragile bat gehiago direla eta hori igarri egiten dela egiten dituzten ekintzetan; eta, ondorioz, langile kopurua erabakitzeke irizpidea ezin dela hiriburu baterako erabiltzen den bera izan.

Gaia aurreko asteko osoko bilkuran aztertu zuen udalbatzak –bertan izan ziren eskolako ordezkariak–. Lantaldeko kide kopurua iragarri moduan ez murrizteko, Udalaren izenean, EAJko zinegotzi Pedro Elosegik egin zituen gestioak Jaurlaritzarekin –eskolak egindakoez gain–, bere taldeak eskolako

kideen "arrazoi gehienak" konpartitzen dituelako, adierazi zuenez, eta hamabi beharrean hamahiru langile izateko konpromisoa hartu du Jaurlaritzak gestio horien ondotik.

Eskolakoentzat –eta EH Bilduk ere bat egin zuen horrekin– hori ez da nahikoa, ez dakitelako, adibidez, hamahirugarren hori ze profiletako langilea izango den: "Hamahirugarrenarekin, Lehen Hezkuntzako talde batek tutore oso bat izatea lortuko litzateke, baina hezkuntza premia bereziko ikasleei erantzuteko irakasle espezialistarik ez dute izango, dakigula". Azkenean hori horrela bada, ez litzateke ulergarria, Saioa Uriarteren arabera, aurreko ikasturtean,

LITEKEENA DA PREMIA BEREZIKO IKASLEEI DAGOKIEN PROFILEKO IRAKASLERIK EZ EGOTEA 2019-2020AN

premia bereziko ikasle kopuru berarekin, pertsona bat izan baitute. Oro har ere, murrizketa ez dute ulertzen, bategiteen ondorioz talde bat gutxiago izan arren, bi ikasle gehiago dituztelako kurtso berrirako –117–.

Aurreko asteko osoko bilkuran Udal Gobernuak prestatutako idatzia onartu zuten, EH Bilduren aldeko botoekin eta EAJren kontrakoekin, eta Hezkuntza Sailari ere helarazi dio astean. Udal Gobernuak onartezin deritza ikasturte berria hasteko hilabete pasatxo falta denean hainbat galderak oraindik erantzunik ez izateari. Lierni Altuna alkateak adierazi zuen Jaurlaritzak erabakian atzera egiten ez badu, "abian diren egitasmo eta proiektu batzuk aurrera eramatea zailagoa" izango dela, eta beste batzuk "ezinezkoa".

Eskolako zuzendariak, berriz, adierazi du "borrokan" jarraituko dutela, "ikasleek kalitatezko hezkuntza bat izateko esku-bidea dutelako".

65.600 euro, hainbat inbertsio egiteko eta behar berrietarako

Osoko bilkuran, aho batez onartu zuen udalbatzak 2018ko likidazio positiboa horretara bideratzea

J.I. ARAMAIO

Dirua ondorengo gauzetarako izango da: udaletxeko fitxaketa sistema berria jartzeko (877,25); Pedro Ignazio Barrutia kalean, erreka kontra, hesi berria jartzeko (14.760,00); Arragako ur edangarri sarean berritze lanak egiteko (4.500,00); Bentamotz bideko "malda handi eta bihur-gunedunean" hormigoia aldatzeko (6.500,00); arrapala mugikor berrirako (1.072,80); kultura etxerako armairuetarako (500,00); kultur etxerako hogeitaukitarako (850,00); kultur etxeko areto soinu ekipoaren berrikuspena eta konponketa egiteko (2.000,00); Uribarriko aparkalekuko bidea eta aparkalekua bera asfaltatzeko (18.460,06); Basautiko bidearen lehen zatia asfaltatzeko (10.106,53); jaietako agertokiaren toldorako (3.500,00); eta duatloia egiteko (2.500,00).



Mendiko bizikletan. GOIENA

Mendiko duatloia, azaroan

Azaroaren 17an mendiko duatloia egingo da Aramaion. Untzillan hasi eta amaituko da, eta Muru eta Asensiomendi artean burutuko da. Banaka edo bina-ka parte hartu ahal da. Izena emateko: *Kirolprobak.com*.

Udalekuen balorazio baikorra egin dute arduradunek

Uztailaren 10ean hasi eta eguaztena bitartean, 3 eta 12 urte arteko 81 umek hartu dute parte Aramaioko udalekuetan. Arduradunek adierazi dute aurreikusitako ekintza guztiak egin dituztela, eta umeak oso gustura ibili direla. Askotarikoak egin dituzte asteotan, eta, amaitzeko, euskal kulturari buruzko jaialdia egin zuten herenegun.



Umeak begiraleekin. ARAMAIOKO UDALEKUAK

San Esteban jaiak ospatuko dituzte asteburuan Uribarrin

Gaur, barikua, 16:00etan da egitarauko lehen hitzordua, auzolanerako. Txupinazoa 19:30ean botako dute, eta kanpai jotzea egingo dute jarraian. 21:30ean, kantu eta bertso afaria egongo da: bertsotan Manex Agirre eta Xabi Igoa ariko dira, eta Arantzazu Ruiz de Azua eta Manex Arriolabengoa kantuan, akordeoiarekin eta gitarrarekin.

Bihar, 12:00etan, meza egingo dute, abesbatzak lagunduta; 13:00etan, bolo txapelketa, eta trikitilariekin auzo-jira ere bai, aldi berean; 17:30ean, briska eta mus txapelketa izango dira; 18:00etan, ume jolasak; 19:30ean, Ertzak taldearen kontzertua; 21:00etan, afaria, *Zuk ein, zuk jan*; 22:30ean, azkenik, Los Clayton taldearen emanaldia.

Domekan, auzoko hildakoen aldeko meza egingo dute, 12:00etan, eta karta jokoetako finalak, 12:30ean.

"Idazten ez dugu ikasi, eta trebatu egin nahi dugu"

Norbere euskara hobetzeko ikastaroa jarri nahi du martxan Alaiak erretiratuen elkarteak irailean, AEKrekin batera. Euskalkiarekin eta batuarekin egingo dute lanketa, eta testu motzak irakurri eta idazteko trebetasuna izango dute helburu, 60 orduko ikastaroan

J.I. ARAMAIO

Batuari dagokionez, eta eguneroko ahozko harremanetarako euskalkiarekin ondo moldatu arren, zenbait egoeratan baliabide hori izatea ere komeni izaten dela-eta egingo dute lanketa; bestetik, zuzen idazteko -mezu elektroniko bat, adibidez- trebetasuna ere lantzeko dute: "Guk idazten ez dugu inoiz ikasi, eta poliki-poliki trebatu nahi dugu idazten, komunikatzeko beste modu hori ere aukeran izan dezagun. Whatsappez-eta ibiltzen gara, baina hanka-sartze asko egiten ditugu. Bestetik, ahozkoari dagokionez, kanpoko inori harrera bat egin beharko banio, adibidez, arazoak izango nituzke", dio Migel Loitik, Alaiak erretiratuen elkartearen presidentea.

Horren harira, ondorengo dio Loitik: "Arabako erretiratuen elkarte guztiek topaketa bat egiten dugu, urtero leku desberdin batean. Aurten, Bastidan egin da, eta batek esan

zidan egunen batean Aramaion egin behar dugula. Eta zergatik ez? Baina nahiko nuke kanpotik etorriko balira harrera bat egiteko modua edukitzea".

Hamar lagun inguruko taldea osatu nahi dute, urtean zehar asteen bi orduko saioak egiteko. Erdia-edo badaude dagoeneko, eta asmoa da irail erdirako taldea osatu eta eskolekin hastea. AEKtik etorriko da irakaslea.

AEK-ko Oskar Elizburuk dio ondo dagoela batuarekin halako nolabaiteko kontaktu bat eduki nahi izatea: "Kartelak eta ipintzerakoan, adibidez, akatsak egiten dituzte; eguneroko gauza txikiak ondo jartzea litzateke kontua, ordutegiak, eta abar, edo oharrrak, edo..."

KARTELAK-ETA IDAZTERAKOAN, ADIBIDEZ, ZUZEN IDAZTEA IZANGO DA HELBURUA

Memoria tailerra

Memoria tailerra ere iragarri zuten Alaiak elkartetik uda honetan bertan hasteko, baina, kasu honetan ere, taldea osatu nahian ari dira oraindik. "Nik uste dut elkarte askok dugun arazoa dela; jendeak ez du konpromisorik hartu nahi, eta asko kostatzen da jendea topatzea", dio Loitik.

Tailer horretan, memoria lantzeko askotariko ariketak egitea nahi dute: kalkuluak, irakurketa, idazketa...

Jendea aktibatu nahi du elkartearen presidentek, eta beste ekintza batzuk ere baditu buruan: "Udazken hasieran egin nahi dut hitzaldi bat alderdi fisikoari buruz: aulkian nola jartzen garen, nola zutitzen garen, ze arrisku egoten den etxean, nola mugitzen garen etxean... Horrekin batera, *nordic walking* delakoa ere landu nahi nuke, ideia batzuk eman, bi makilarekin eskuak nola mugitzen diren, giharrak, eta abar".

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Zigarrokinak Albinako urtegi

Irakurle batek dio oso zabalduta dagoela zigarrokinak edonon botatzea. "Eta halako leku ederretan ere bai!", dio. Salatzen du normaltzat hartzea zigarrokinak lurrera botatzearena.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Julio Galartaren lanak bildu eta erakusketa egin nahi dute

Pintorearen Lagunen Elkartea haren lanen inbentarioa ari da egiten; 3.000 koadrotatik, 1.500 katalogatu dituzte

J.I. ARAMAIO

Julio Galarta Pintorearen Lagunen Elkartek artistaren ekarpenaren inbentarioa egiteari ekin zion duela hiru urte, eta, egun, 1.500 koadro ditu katalogatuta. Baina jakin badakite oraindik asko falta zaizkiela jasotzeko: "Gure kalkuluen arabera, 3.000 lirateke Galartak margotutakoak".

Pintore arrasatearrak oso gustuko zituen Aramaioko bazterrak, eta koadro askotariko aitzakia izan zituen: "Horieta hainbat identifikatuta daude, baina ba-

dakigu jakin oraindik katalogatu ez diren asko etxe partikularretan geratzen direla". Horrengatik eskatzen diete aramaiorrei Galartak margotutako koadroren bat ezagutzen badute adieraz diezaieten galartaelkartea@gmail.com helbidera idatzita.

Koadroak katalogatzearekin batera, erakusketa egin nahi dute Aramaion, aurtengo urrian: "Erakutsiko diren margolanen izendatzaile komuna Aramaio izango da: inguruak, baserriak, kaleak, eta abar". Aramaioko Udalaren laguntza du ekimenak.



Oskar Elizburu eta Migel Loiti. J.I.

Benantzi Bilbao organo-jotzailea, abuztuaren 18an

34. Arabako Organo Jaialdiaren barruan egingo du emanaldia Benantzi Bilbao Aramaion, abuztuaren 18an; San Martin elizan izango da, 19:00etan. Europako hainbat kontserbatorio eta zentro espezializatutan piano, klabezin, organo, kantu, abesbatza zuzendaritza eta antzinako musika ikasketak egindakoa da, emaitza paregabeekin.



Partitura, organo gainean. GOIENA



Tiritirantes antzerki taldeak, *Ulterior*, *bidaia* kale ikuskizuna ekarriko du Duranara, abuztuaren 14an. TIRITIRANTES

Opor bezperan, jaiei begira

Andramaixetako egitaraua herritarren etxeetara iristear da; berrikuntzatxo batzuk iragarri dituzte: pilota partiduak ordutegi aldaketarekin eta bola-txapelketa, esaterako. Txosna-gunean, berri, adin guztietarako ekitaldiak antolatu dituzte

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Abuztuko oporrak hartu aurretik eman du Andramaixen berri Udalak. Yera Sanchez ilustratzaile aretxabaletarrak egindako irudia hautatu dute egitaraua aurkezteko, eta, "adin guztietako herritarren beharrak ase nahian" gertatu dute, beste behin; horretarako, 87.486 euro erabiliko dituzte. Unai Elgoro alkateak jaietan parte hartzerak gonbidatu ditu herritarrek: "Abuztuko egunok atsedean hartzeko aprobetxatu, eta gero, animatu guztiok Andramaixetara gerturatzerak".

Txupinazoa eta pregoiak

Jaiei hasiera ofiziala emateko, Oihana Aldai Aranzabal futbol jokalaria igoko da udaletxeko balkoira; orain arte Realeko atezain izan denak eta gaurtik Eibarren diharduenak egingo

du pregoia eta gero txupina bota. Pozik agertu da aretxabaletarra berarekin akordatu izanagatik, eta gogotsu dago jaiok hasteko. Bestetik, Haurren Egunean, hilaren 16an, Beñat Zubizarreta Uribarren eta Janire Iglesias Salaberriak -hurrenez hurren, alkate eta alkateorde txikiak- irakurriko dute pregoia, eta umeei eskainitako egunari hasiera emango diote.

Pilota partiduak, arratsaldean
Berrikuntza askorik ez du aurtengo egitarauak, baina bai aldaketa azpimarragarri bi: bate-

**BEÑAT ZUBIZARRETA
ETA JANIRE IGLESIAS
IZANGO DIRA ALKATE
ETA ALKATEORDE
TXIKIAK**

du pregoia eta gero txupina bota. Pozik agertu da aretxabaletarra berarekin akordatu izanagatik, eta gogotsu dago jaiok hasteko. Bestetik, Haurren Egunean, hilaren 16an, Beñat Zubizarreta Uribarren eta Janire Iglesias Salaberriak -hurrenez hurren, alkate eta alkateorde txikiak- irakurriko dute pregoia, eta umeei eskainitako egunari hasiera emango diote.

Bigarren aldaketa abuztuaren 17an dator: ohiko txaranga egon beharrean eguerdi parteko giroa berotzen, dantzaldia izango da Arantxa eta Pantxorekin, Mitarte kalean, 12:30ean.



Roba Estesa talde katalaneko kideak. ROBA ESTESA

Folk doinuak protagonista oholztan

Cadizko jatorria duen La Mare bakarlariak afrikar ukituko abestiak eta flamenko doinuak ekarriko ditu. Zazpi lagunek osatutako Roba Estesa talde katalana, otera, folk eta doinu dantzagarriekin etorriko da, aldarrikapen feministak oinarri izanda.



Wood Strings talde aretxabaletarra. IMANOL SORIANO

Etxeko taldeen agertokia

Txosna-guneko oholta etxeko taldeak hartzeko gertu izango da, beste behin. Besteak beste, Txerrikumeak, Delirium, Jasan, Wood Strings eta Virgin Mari DJ Set, izango dira. Era berean, Los Zopilotes Txirriak nafarrak itzuliko dira, azken urteotan huts egin ostean.

Bola-txapelketa berreskuratu

Berrikuntza izango dena da bola-txapelketa. Sanmigeletan egin izan bada ere Andramaixetan ez, eta aspaldiko ohitura berreskuratzeko dutela jakinarazi du Kepa Urria antolatzaileak. Hilaren 16an izango da, eta herritarrek gerturatzerak gonbidatu ditu Urrak, bolatokia bete eta tarte atsegina pasatze aldera. Izena emateko, 10 euro ordaindu behar da, eta sari asko izango direla iragarri dute.

Egun horretan, txirrindulari lasterketak ez du hutsik egingo;

dagoeneko 81.ez egingo dute Leintz bailarari itzulua, eta, oraingoan ere, 23 urtez azpiko eta elite mailako punta-puntako txirrindulariak espero dituzte.

Kaleko giroa sustatzen

Kale ikuskizunen artean izarra izango da Tiritirantes taldeak eskainiko duen *Ulterior*, *bidaia*. "Kale antzerkia egiten eskarmentu handia duen talde honek bost metroko pertsonaiak ekarriko ditu, kalean gora eta behe- ibiltzeko", jakinarazi du Ainhoa Cabero Kultura zinego-

Egitaraua

ABUZTUAK 13

18:00 Karta lehiaketa, *fitokola* eta fruta-poteoa, txosna-gunean.

20:00 Pregoia, txosna-gunean.

20:15 Kilimak taldearen kontzertua, txosna-gunean.

21:00 Herriko taldeen kontzertuak, txosna-gunean: Delirium, Txerrikumeak eta Jasan.

ABUZTUAK 14

13:00 Triki-poteoa, txosna-gunean.

14:30 Gazte bazkaria eta ondoren jolasak eta gazte argazkia, txosna-gunean.

16:00 Kanpai-jotzea, Andramari jaiei hasiera emateko.

16:00 XL. Mus Txapelketa, Herriko Plazan.

16:00 Ur puzgarriak, Arlutzeko kanxan.

18:00 Ginkana, txosna-gunean.

19:00 Ikurrinari agurra udaletxe aurrean, Aretxabaleta Abesbatzak eta Leizarra musika eskolako dantzariak lagunduta. Jarraian, Oihana Aldaik pregoia irakurri eta txupina botako du. Bukatzeko, konfeti eta serpentina ikuskizuna.

19:30 Ondalan erraldoien konpartsa kalejiran.

20:00 Salbea, Aretxabaleta Abesbatzak lagunduta, Andre Mariaren Zeruratze parrokian.

20:00 Ekitaldia, txosna-gunean.

20:30 Rukula taldearen kontzertua, txosna-gunean.

22:00 DJ-KI Fest, Herriko Plazan.

23:00 *Ulterior*, *bidaia* ikuskizuna kaleetan zehar, Tiritirantes taldearen eskutik.

23:00 Sarraski deiak taldearen kontzertua, txosna-gunean.

00:00 DJ-KI Fest, Herriko Plazan.

00:00 Virgin Mari DJ Set, txosna-gunean.

ABUZTUAK 15

10:00 Diana, herriko txistularien eskutik.

11:00 Pilota partidak, herriko pilotari gazteen eskutik. Iturrigorri pilotalekuan.

11:00 Udaltzatzeekin batera, Milagroko Bandaren bisita zaharren egoitzara.

11:45 Elizbira.

12:00 Meza nagusia Andre Mariaren Zeruratze parrokian. Udaltzatze kideak han izango dira, eta, elizkizunaren ostean, txistulariek joko duten *Alkate soinuaz* lagunduta irtengo dute.

12:30 *In Konzert* Haur ikuskizuna Trokolo Teatrotan eskutik, Herriko Plazan.

13:30 Milagroko musika banda, Durana kalean.

17:00 Milagroko musika bandaren kalejira.

18:00 Antzerkia, txosna-gunean.

18:30 *Jazz & Fusion Musik* Kale animazioa, BraZZtet MV Brass Banden eskutik.

19:00 Kontzertu akustikoa, txosna-gunean.

22:30 Kontzertuak: La Mare eta The Potes taldeak, Herriko Plazan.

23:00 The Big Mac DJs, Txosna-gunean.

02:00 Galtzontzillo, kulero eta tanga lasterketa, txosna-gunean.

ABUZTUAK 16

10:00 Leintz bailarako 81. birxindulari lasterketa, Durana kalean hasita. 23 urtez azpikoen eta elite mailakoen lasterketa.

Bitartean, Bizikleta jaia –6-14 urte bitarteko neska-mutilentzat–, Durana kalean.

11:30 Alkate txikiak eta alkateorde txikiak pregoia irakurriko dute udaletxe bakoian, eta han dauden haurrentzako zapiak banatuko dituzte. Ondoren, japoniar bonben jaurtiketa.

Ondoren, Haurren eskutik buruhandiak, Herriko Plazan.

11:00 Zirku tailerra Zirika Zirkus taldearekin, Herriko Plazan.

13:00 Potxin eta Patxin pailazoak, Herriko Plazan.

14:30 Elkartasun bazkaria, txosna-gunean. Ondoren, kantaldia.

16:30 Bitxiak, txapak eta aurpegia margotzeko tailerrak, Herriko Plazan.

16:30 Gazte parkea: quad pista, *jumping*–a, zezen mekanikoa eta puzgarriak, Herriko Plazan.

17:00 Txartelak banatuko dira ekintzetan parte hartu duten haurren artean –euro baten truke–, herriko hainbat gozoki dendetan gastatzeko.

17:30 Profesionalen arteko pilota partidak Iturrigorri pilotalekuan –sarrera, 10 euro–.

18:30 Bola-txapelketa, bolatokia –izen-ematea, 10 euro–. Sariak: 1.ak, urdaiazpikoa eta batutako diruaren %40; 2.ak, urdaiazpiko-besoa eta diruaren %30; 3.ak: batutako diruaren %20; 4.ak: batutako diruaren %10.

18:30 *Reziklator!* ekitaldia Zo Zongo! konpainiarekin: antzezlan + birziklatutako materialekin musika tresnak egiteko tailerra + tresna horiekin batukada. Herriko Plazan.

19:00 Mikro irekia, txosna-gunean.

20:00 Alkate txikiaren eta alkateorde txikiaren agurra eta oparien zozketa.

22:00 Kontzertuak: Roba Estesa eta McOnak taldeak, Herriko Plazan.

23:00 Kontzertuak: Wood Strings eta Tribade taldeak, txosna-gunean.

ABUZTUAK 17

11:00 Diana herriko txistulariekin.

11:30 Animaliekin jolasak Arno ganadutegiaren eskutik, Durana kalean.

Ondoren, Sokamuturra, Durana kalean. Debekatuta dago 16 urtetik beherakoek



sokamuturrean parte hartzea. Adin horretako lagunen bati ezbeharren bat gertatuz gero, Udalak ez luke erantzukizunik bere gain hartuko.

12:30 Dantzaldia Arantxa eta Pantxorekin, Mitarte kalean.

14:30 Herri bazkaria Herriko Plazan: paella debalde. Paella bukatu arte banatuko da, eta norberak eroan beharko ditu gainerako jatekoak eta edatekoak.

Bazkalostean, Kuadrillen arteko jolasak, Herriko Plazan.

15:30 Egurrezko jokoak haurrentzat, Herriko Plazan.

17:30 Animaliekin jolasak, Durana kalean.

Ondoren, Sokamuturra, Durana kalean.

18:30 Ur-jolasak, txosna-gunean

19:30 Kuadrillei sariak, Herriko Plazan. 16 urtetik gorakoak: 1. saria, 300 euro; 2. saria, 180 euro; 3. saria, 120 euro; 4. saria, 60 euro. 16 urtetik beherakoak: 1. saria, 100 euro; 2. saria, 70 euro; 3. saria, 60 euro; 4. saria, 50 euro.

19:45 Rockalean taldea, kaleetan zehar.

22:30 Raza Azteka mexikar taldearen emanaldia, Herriko Plazan.

Ondoren, Zezensuzkoa. Ibilbidea: Herriko Plaza, Durana eta Mitarte kaleak.

00:00 Kontzertua: Los Zopilotes Txirriaos; eta ondoren, erromeria, txosna-gunean.

01:00 Txinoko katuaren banaketa, txosna-gunean.

Ondoren, DJ txekorra, txosna-gunean.



M.A.

"Bereziak dira bezpera eta azken eguna"

OIHANA ALDAI
ARANZABAL PREGOILARIA

Realeko atezain ohi eta egun Eibarkoa den Aldaik emango die hasiera jaiei.

Ilusiorik egiten dizu txupina botatzeak?

Bai, bai. Ez nuen inondik inora espero, eta, deia jaso nuenean, baietza eman nuen bi aldiz pentsatu gabe.

Aurretik gertatuko duzu pregoia?

Seguru asko, zerbait eramango dut aurretik pentsatuta, baina ez naiz luzatuko, herritarrak jaietan murgiltzeko gogotsu egongo dira eta...

Zer duzu gustukoan Andramaixetan?

Hilaren 14a beti izaten da berezia; polita da gazte guztiok elkarrekin bazkaltzeko elkartzeara. Eta gero, Kuadrillen Eguna ere polita da; jokoak, kuadrilla bakoitza bere kamisetarekin... Kolore askoko eguna izaten da.

tziak. Horrez gain, Brazztet MV Brass Band taldeak jazz, swing, funk, hip-hop eta beste hainbat doinurekin beteko ditu kaleak.

Umeek ere izango dituzte kale ikuskizunak; horien artean bereziena Zo Zongo konpainiaren *Reziklator* saioa da: lehenengo, antzezlan eskainiko diete; gero, birziklatutako materialarekin musika tresnak egiteko tailerra; eta bukatzeko, batukada sortu-tako tresnekin.

Hainbat eratako kontzertuak

Musikariek ez da faltako aurten-gogotako jaietan ere. Abuztuaren 15ean,

HERRITAR GUZTIAK GONBIDATU GURA DITUZTE HILAREN 16AN JOKATUKO DEN BOLA-TXAPELKETARA

esaterako, Cadizko La Mare bakarlariak eta The Potes talde arrasatearrek emango dute kontzertua Herriko Plazan; eta abuztuaren 16an, Roba Estesa kataluniarrek eta McOnak bizkaitarrek.

Bestetik, jaiok errespetuz gozatzeraz animatu dituzte herritarrak udal ordezkariak. Era berean, eskerrak eman dizkiete jaiok antolatzen lagundu duten elkarte eta herritarrei: "Eskerrak, baita, orain arte egitaraua lantzen jardun izan duen Joxe Miguel Uribarreni ere".

Txosna-gunean ere gertu

Txosna-guneko ekitaldia ere gertu dituzte Atxabaltako Gaztiok Eraikitzen taldeko kideek; azken urteotan legez, hilaren 13an hasiko dituzte jaiak. Horretarako apiril inguruan hasi zirela elkartzen batzarretan jakinarazi

dute; 30-40 lagun inguru, hain zuzen ere: "Iazko egitarauari begirada bat bota genion eta balorazio orokorra egin genuen. Hortik aurrera, aurtengo egitaraua prestatzen hasi ginen, hobe-zeko zegoen guztia kontuan hartuta", adierazi dute, eta, beste behin, herriko taldeen aldeko hautua egin dutela diote: "Taldea berriak proposatu ziren arren, herritik herriarendako nahi ditugu, eta, hortaz, herriko talde eta artistendako ere egin ditugu tarte batzuk. Horien artean, Virgin Mari DJ Set, Beñat Arizabaleta...".

GAZTE-BAZKARIRAKO TXARTELAK SALGAI DAUZKATE HAIZEAN, KIXKORREN ETA URBALTZEN

Egitaraua adin eta gustu desberdinetara egokitzen saiatu direla gaineratu dute: "Arratsaldean gogotsu hasi eta hurrengo eguneko goiza arte luzatuko diren ekintza, jolas eta kontzertuekin beteko ditugu jaiak. Horrez gain, egunero ohol-tza gainean emakumeen presentzia bermatzea nahi izan dugu, eta, horretarako, herriko zein kanpoko neskak izango ditugu Andramaixak giroan".

Eta herritarrak txosna-gunera gonbidatu dituzte: "Beste urte askotan bezala, txosna-gunea jaietako erdigunea izatea espero dugu. Eta herri, adin eta gustu desberdinetako pertsonak batuko gara jai giroan".

Abuztuaren 14ko gazte-bazkarirako txartelak dagoeneko salgai dituzte taberna hauetan –menu beganoaren aukerarekin–: Haizea, Kixkor eta Urbaltz.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALET

Teknifikazio campusa izango da irailean

UDAK antolatuta, 2005, 2006, eta 2007. urteetan jaiotako haurrei zuzenduta izango da campusa, eta irailaren 2tik 5era bitartean gauzatuko da. Entrenamendu horietan, futbolaren gaineko eduki espezifikoak landuko dituzte, besteak beste

Imanol Beloki ARETXABALETA

Teknifikazio campusa antolatu du, lehen aldiz, UDA Aretxabaleta Kirol Elkartek; irailaren 2tik 5era bitartean izango da, Ibarra futbol zelaian. Euskal herriko haurrei zuzenduta dago –2005, 2006 eta 2007. urteetan jaiotako gaztetxoentzat–, eta esperientzia aberasgarria eta dibertigarria izango dela adierazi dute entrenatzaileek.

Entrenamendu saio hauetan, futbolearen erabilgarri diren hainbat ezaugarri landuko dituzte, betiere, jolasa bidelagun izanda, helburua ondo pasatzea izanik eta balio ezberdinen garrantzia eta nutrizioa landuz.

Balioak transmititu

Teknifikazio campusa goizez izango dute, astelehen, martitzen, eguazten eta eguenetan, honako ordutegi honetan: 09:00etatik 13:00etara, Ibarra futbol zelaian. Gaztetxoek futbolaren gaineko eduki espezifikoak landuko dituzte bertan: postuak, baloiaren domeinua eta trebetasuna, teknika, taktika, lidergoa... eta balioen eta emozioen lanketa lehiaketan ere izango dute. Horretaz gain, nutrizioa kirolean ere landuko dute. Elikagai osasuntsuez gain, hidratazioak entrenamenduan zehar eta ostean duen garrantzia izango dute ikasgai campus osoan zehar.

Izen-ematea zabalik dago

Campusean izena eman gura duenak Udaretxabaleta.eus/teknifikazio-campusa helbidearen bitartez egin beharko du, orrialde horretan dagoen *Izena eman* esteka sakatu eta eskuorria beteta.

Campusean parte hartzeko, 80 euro ordaindu beharko dira. Horrekin batera, edozein informazio, zalantza edo argibide gura dituenak udakefutboleskola@gmail.com helbide elektronikora idatzi dezake.



UDAK antolatutako Geroa sortuz topaketan batutakoak. MIRARI ALTUBE

UDA-zaleak mundutik

Bestetik, Aretxabaleta Kirol Elkartearen Instagram kontuan [#UDAAoporrak](https://www.instagram.com/UDAAoporrak) traoldun argazki guztiak batuko dituzte aurten ere. UDA-zaleak mundutik agertzea nahi dute, beste urte batez,

koloreak harrotasunez erakusteko asmoz. Horretarako, argazkia [#UDAAoporrak](https://www.instagram.com/UDAAoporrak) traolarekin Instagramera igotzea edo UDA-ren kontura [@udaretxabaleta](https://www.instagram.com/udaretxabaleta) bidaltzea eskatu dute elkarteko kideek.



Hamabi taldek hartu zuten parte UDAK antolatzen duen **Eskobeerfest garaile Ibarra**

Debagoieneko kuadrillen arteko zazpiko futbol txapelketaren zortzigarren edizioan. Eskobeerfest talde eskoriatzarra izan zen garaile, finalean 3-0 irabazita Spat Aretxabaletako taldeari.



NIRE USTEZ

PALOMA MARTINEZ

Altorra mingain puntan

Argia-k argitaratutako hikari buruzko erreportaje bat irakurri nuen eta flipantea iruditu zitzaidan. Ze berezia den hika eta ze egoera larrian dagoen. Jakin-mina piztu zidan. Aretxabaletan nola dago hika? Zeintzuek egiten dute? Zeinek?... Geroztik, aukera daukadan bakoitzean ateratzen dut gaia jakin-min hori asetzeko. Dena dela, euskaldunen jarrera hika aipatzen danean da gehien harritzen nauena. Orokorrean, harridura da lehenengo erreakzioa; bistan gelditzen da hika ez dela gaur eguneko gaia. Gero etsipena azaleratzen da. Gehienek hika hiltzat jotzen dute. Baikorren artean ere, nahiz eta maitatu eta erabili, ez diote iraunkortasunik ikusten. Noski, harrotasuna ere agertzen da, hika baita euskararen altorra euskaldun askorentzat. A ze kontradikzioak dauzkan bizitzak! Hika, hain altxor ederra dena, hain berezia dena, zailegi omen da ikastea eta ia ezinezkoa berreskuratzea; aldi berean, euskara ez dakienari euskara ikastea eskatzen zaio eta euskaldunari egitea. Ba, nik euskaldunei erronka botatzen diet: altxor polit hori bitrinatik atera, hautsa kendu eta mintzatu.

Lurra ikertzen ari dira

Azbe lantegia zenaren alboko bidegurutzean, behar bezalako biribilgune bat egingo du Foru Aldundiak. Lan horiek hasi aurretik, baina, lur horien egoera ezagutu gura dute; izan ere, Eusko Jaurlaritzak eskatu du ea kutsadurarik duten ikertzeko; laginak jasotzen dabilta. Hala ere, lanok ez dute baldintzatuko Eroski supermerkatuaren irekiera.



MIRARI ALTUBE

Kiroldegia eta liburutegia, egun batzuetan itxita

Ibarra kiroldegia astebeteko oporrak hartuko ditu abuztuaren: hilaren 12tik 18ra, hain zuzen ere. Eta liburutegia bi astez itxiko dute, hilaren 12tik 25era.

Ibarra kiroldegiko abuztuko ordutegia honako hau izango da: astelehenetik zaptura bitartean, goizez, 09:00etatik 14:00etara; eta arratsalde, 16:00etatik 20:00etara. Domeketan, oster, goizez bakarrik zabalduko dute, 09:00etatik 14:00etara. Andramaixetako astean, oster, itxi egingo dute: hilaren 12tik 18ra, hain justu –bi horiek barne–. Liburutegia goizetan bakarrik zabalduko dute abuztuaren, 09:00etatik 13:00ak bitartean. Hilaren 12tik 25era, oster, itxita egongo da.

OHARRAK

Bola-joko txapelketa

Zaindari duen San Inaxioren omenezko jaiaren barruan, Muru Alde elkarteak bola-jaurtiketa irekia antolatu du domekarako. Bolatokia 11:00etan zabalduko dute eta izen-ematea 5 euro da.

Herri kirolak

Kulki elkarteko kideek antolatuta, herri-kirolak eta garai bateko jokoak egongo dira gaztetxoentzat, Ilargi plazan, abuztuaren 7an, 18:30ean.

Txotxongilo ikuskizuna

Rosa, ipuin bat kontaidazu txotxongilo ikuskizuna izango da domeka honetan, 18:30ean, Herriko Plazan.

Sozialki eta pertsonalki garatuz, pozarren

Adimen desgaitasuna duten pertsonak laneratzearen alde apustu egiten duen egitasmoa da 'Pauso berriak'. Horren bitartez, Maite Urreta aretxabaletarra Jose Arana nagusien egoitzan ari da lanean, eta "oso gustura" dagoela adierazi du

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gureak eta Atzegi erakundeek sustatuta, *Pauso berriak* egitasmoa jarri zen martxan 2010ean. Desgaitasun intelektuala duten pertsonak ingurune arrunt batean laneratzearen alde egiten du apustu ekimen honek; ingurune horiek euren garapen pertsonalean eta sozialean bultzatzeko asmoz eta lantalde bateko beste kide bat gehiago bihurtzeko asmoz. Hala, Eskoriatzako Jose Arana nagusien egoitzak bat egin du proiektuarekin, eta, hori horrela, bertan ari da lanean Maite Urreta aretxabaletarra.

Egoitzakoak, "pozik"

Eskoriatzako Jose Arana egoitzak, esaterako, Maite Urreta laneratzeke integrazioaren aldeko apustua egin zuen, *Pauso berriak* programaren bitartez. Urretak lau hilabeteko formakuntza saio bat egin zuen, lehenbizi, eta gero, praktikak egin zituen Jose Arana egoitzan. "Bertan, askotariko zereginak burutzen ditu, garbitegian nahiz jangelan. Hala ere, hemendik aurrera bere jarduera zerbitzu okupazionalean jarraituko du; berri honek poztasun handia sortarazi dio, hainbeste desiratzan zuena errealtate bihurtu delako", adierazi du Mireia La-



Jose Arana nagusien egoitzako erizainak egoiliarrekin batera. IMANOL BELOKI

'PAUSO BERRIAK' PROGRAMAREN BAITAN, MAITE URRETA LANEAN ARI DA NAGUSIEN EGOITZAN

rrañagak, Jose Arana nagusien egoitzako zuzendariak. Horrekin batera, egunez egun zailtasunak gainditzeko erakutsi duen ahalagin eta ilusioagatik zoriondu nahi izan dute egoitzako lankideek eta zuzendaritzak.

Garapenean aldaketa positiboa Fran Navarro *Pauso berriak* egitasmoko arduradunak haxe adierazi du: "Proiektu honen bidez, aukera bat ematen diegu adimen urritasuna duten pertsonen, eta beraien bizitzan eragin positiboa du. Maite Urreta oso gustura ari da Eskoriatzako Jose Arana nagusien egoitzan, eta bertako erizainak ere oso pozik daude berarekin. Bere garapenean aldaketa handi bat ikusi dugu, alde batetik, garapen pertsonalean eta, beste aldetik, sozialean".



MAITE URRETA
LANGILEA

"Goizetan etortzen naiz Jose Arana egoitzara, eta oso ondo nago hemen, oso gustura. Ez dira gogorak nirekin, baina jartzen dizkirate lanak, e!".



MIREIA LARRAÑAGA
ZUZENDARIA

"Guk oso gustura ikusten dugu Maite, eta gu ere pozik gaude berarekin. Jangelan jasotzen ibiltzen da, Asuni garbitegian laguntzen dio...".



FRAN NAVARRO
'PAUSO BERRIAK'-EKO ARDURADUNA

"Maitek lau hilabeteko formakuntza egin zuen, eta, praktikak egin ostean, jarraitu egin du. Pozik gaude, hobekuntza handia ikusi baitugu".



Udalekuek hainbat haur, irteera batean. TXIRIKILLA

Sekula baino irteera gehiago izanda, haurrak "oso pozik"

Irteerekin batera haurrek sukaldaritza tailerraren metodo berriarekin disfrutatu dutela adierazi dute koordinatzaileek

Imanol Beloki ESKORIATZA

222 haur izan dira aurtan Txirikilla Aisialdi Elkarteak eta Eskoriatzako Udalak antolatutako udaleku irekietan. Aurtan oso ondo joan direla adierazi dute koordinatzaileek, eta, eguraldia lagun, primeran aritu dira.

Haurrek balorazio positiboa egin dietela adierazi du Nekane Atxaga udalekuekako koordinatzaileak. "Sekula baino arazo gutxiago izan ditugu arlo guztietan. Oso ondo portatu dira haurrak, eta hezitzaileak oso motibatuta eta langile aritu dira. Gainera, egindako planifikazioa-

rekin ados etorri dira haur guztiak, eta gurasoen partetik ere laguntza izan dugu", azpimarratu du Atxagak, eta horrek onerako eragiten duela nabarmendu.

Sekula baino irteera gehiago

Gamarrara, Gopegira, Usakora, bizikletan askotariko irteerak, mendira... joan dira aurtan, eta irteera gehiago egin izana positiboki hartu dute. Sukaldaritza tailerreko metodoa ere aldatu egin dute; diru pixka bat ematen zieten produktuak erosteko, eta txikiek aldaketarekin disfrutatu egin dutela adierazi du Atxagak.



I.B

Areto futbol txapelketan, bikain

Luis Ezeizako areto futbol txapelketa izan zen atzo, Eskoriatzan. Goizetik gauera arte jokatu ziren partidua Luis Ezeiza Herri Eskola pareko kantxan. Guztira, zortzi taldek hartu zuten parte; horietako bat, Eskoriatzako emakumez osatutakoa. Bero handiegia egin zuen arren, musikaz girotuta ederto aritu ziren bertan batutako jokalariek eta zaleak.



Martitzenean, udal ordezkariak, ohiko osoko bilkuran. IMANOL BELOKI

EH Bilduk ardura gehiago eskatu dizkio EAJri

Aretxabaletako eredia hartu eta eurek ere ardurak hartu nahi dituztela adierazi dute EH Bilduko zinegotziek uztailleko ohiko osoko bilkuran. Bestalde, ezbeharrei aurre egiteko partida egotea ere adostu zuten, aho batez

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martitzenean, uztailleko ohiko osoko bilkura izan zuten Eskoriatzako udal ordezkariak, eta hainbat gai landu zituzten. Horieta bat Nestor Arana zinegotziaren kargu-hartzea izan zen. Izan ere, Inbestidura egunean, zinegotzi guztiek hartu zuten kargua, batek izan ezik. EH Bilduko Nestor Arana ez zen egon, eta, beraz, Arana zen agintaldi honetako udal ordezkarietan bakarra kargua hartzeke. EH Bilduko zinegotziak zein batzordetan egongo diren ere jakinarazi zuten.

Ardurak hartzeko nahia

Batzorde informatzaileetan parte hartzeko proposamena ere izan zuten hizpide, eta, horrekin batera, udal ordezkariak izendatu zituzten hainbat erakundetarako. Azken puntu horretan, EH Bilduk ezetza bozkatu zuen, hainbat argibide emanda: "Botere kontzentrazio bat ikusten dugu. Hamabost titularretatik

bakarra da emakumezkoa. Ikusten dugu zuen taldean badaudela hainbat emakume, eta emakume gehiagoren presentzia eduki beharko zenuketela uste dugu. Guretzat, Martxoaren 8a gaur da, eta berdintasunaren aldeko pauso bat eman behar da". Horri erantzunez, Josu Ezkurdia jeltzaleak honako hau adierazi zuen: "Ez da botere kontua, eta ulertzen dugu zuen ezezko botoa, baina arrazoia objektiboa eta teknikoa da. Alkateak ardura gehiago ditu, baina aukera gehiago ere badu bileretara joateko. Alkatea emakumea balitz, berdina jokatu genuke".

Horrez gain, EH Bilduk hauteskundeetan bere botoak jaso

**ERAKUNDEETARAKO
UDAL ORDEZKARIAK
IZENDATU DITUZTE
UZTAILEKO OSOKO
BILKURAN**

zituela ere nabarmendu zuen, eta eurek ere badutela ordezkarietza esan. "Aretxabaletan moduan, pauso bat eman beharko genuke. EH Bilduri ardurak eman dizkiote bertan, eta guk ere eredu horretan sinisten dugu. Beraz, gertu gaude ardurak hartzeko. Ulertzen dugu alkateak ardura gehiago izatea, baina esfortzu bat egin beharko genuke", adierazi zuen Nestor Aranak.

Partida berria kaltetuentzat

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa ere onartu zuten, aho batez. Eta bi kreditu aldaketa onartu zituzten: bat, San Pedro jaietan erretako salmenta postuei diruz laguntzeko; eta bigarrena, Dorletako Ama txirrindularitza lasterketan tarteko helmuga herrian jartzearren eskatutako 100 euroko laguntza emateko.

Bestalde, udako oporrenegatik, abuztuan ez da ohiko osoko bilkurarik egongo, eta hurrengo datorren irailean egingo dute.

Udal zerbitzuetan aldaketak izango dira abuztuko oporraldian

Ordutegian hainbat aldaketa izango dituzte udal zerbitzuek; informazio gehiago, udal webgunean

I.B ESKORIATZA

Udaletxeko harrera zerbitzuak, gizarte zerbitzuek, Manuel Muñoz kiroldegiak, bibliotekak, kultura etxeak eta Ibarraundi museoak aldaketak izango dituzte ordutegian abuztuan.

Udaletxeko harrera zerbitzua 10:00etatik 13:00etara bitartean egongo da zabalik astelehenetik egubakoitzera bitartean, jaiegunetan eta abuztuaren 16an izan ezik. Gizarte zerbitzuetan ere berdina, baina, abuztuaren 16az gain, abuztuaren 14a ere itxita egongo da.

Manuel Muñoz kiroldegiak abuztuan ateak irekita izango ditu, eta, ohiko espazioez gain, kanpoko igerilekua ere zabalik izango du. Biblioteka, berriz, itxita egongo da uztailaren 30etik abuztuaren 25era, eta zabalik izango da abuztuaren 26tik 30era bitartean, ordutegi honetan: 10:30etik 14:00etara. Kultura etxea, aldiz, itxita egongo da abuztuaren 1etik 31ra bitartean, eta, azkenik, Ibarraundi astegunetan irekita izango da 10:00etatik 13:00etara eta abuztuaren 12tik 16ra itxita izango da, biak barne.



IMANOL SORIANO

Madalena jaiak, bikain

Pasa den asteburuan ospatu zituzten, urtero moduan, Madalena jaiak, Marin auzoan. Zapatuan, etxafuegoekin eta Arientzako kanpai-jotzaile eskolako kide baten errepikekin hasi zituzten jaiak, eta auzo-afaria ere izan zen. Gauari amaiera emateko, berriz, AZ Gaubelak taldearen emanaldia izan zen, eta dantzara animatu ziren hainbat auzotar.

Odol ateratzeak, astelehenean, 16:30etik 20:15era

Eman odola, zu zara giltza lelopean, udako kanpaina jarri du martxan Osakidetza. Hori horrela, Arabako Odol Emaileen Elkartekoak odol ateratzeak egiteko autobusarekin izango dira datorren astelehenean, uztailaren 29an, Fernando Eskoriatza plazan, honako ordutegi honetan: 16:30etik 20:15era bitartean.

Ekainean ziren etortzekoak, baina, Arabako Odol Emaileen Elkartekoek adierazi dutenez, agenda arazo bat izan dute, eta uztail amaieran etortzea erabaki dute. Hori horrela, oraingoan, egun batez soilik izango dira odol ateratzeak egiten Eskoriatzan.

Odola emateko, 18 urtetik gorakoa eta 70 urtetik beherakoa izan behar da. Gutxienez, 50 kilo izan behar da, eta nortasun agiria eraman beharko du autobusera doan.

Maila Nazionalari aurre egiteko gogoz daude

Eskoriatza areto futbol taldeak Maila Nazionalan jokatu du datorren denboraldian. Abuztuaren amaieran hasiko dituzte entrenamenduak, eta, lagun arteko hainbat partidu jokatu ostean, ligari irailaren amaieran ekingo diote

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatza areto futbol taldea Euskal Ligan aritu da azken 14 urteetan, eta, denboraldi bikaina egin ostean, Maila Nazionalera salto egitea lortu dute Iker Molinaren mutilek. Talde sendoa eraikitzea lortu dute azken urteetan, eta zaleen animoak ere bikainak izan dira; izan ere, Manuel Muñozeko harmailak beteta izan dira ia etxeko partidu guztietan. Hori horrela, abuztuko azken egunetan hasiko dira prestaketa lanetan, eta irailaren amaieran hasiko dute denboraldi berria.

Apirilean amaitu zuen liga Eskoriatza areto futbol taldeak, eta igoera lortu zutenean ederto asko ospatu zuten, eta, urte osoko lanaren osten, deskantsua ere ezinbestekoa da. Hala ere, gogotsu dago taldea erronka berriari aurre egiteko. Hauxe adierazi du Jabi Corbal Eskoriatza kirol elkartearen presidentek: "Abuztuaren 26an hasiko ditugu entrenamenduak, eta asteen hiru entrenamendurekin hasiko gara. Asmoa ere badugu ordu gehiago entrenatzeko; hori horrela, kantxan ordu gehiago izateko eskaera egingo dugu, baina zaila dago... Denboraldi berrirako helburua, berriz, maila mantentzea izango da".



Eskoriatza areto futbol taldeak igoera lortu zueneko momentua. IMANOL SORIANO

Taldean aldaketa barik

Eskoriatza areto futbol taldea duela 14 urte izan zen Maila Nazionalan, eta berriz bueltatu da. Hala, igoera lortu duten taldekideak mantenduko dituztela adierazi du Jabi Corbalek: "Printzipioz, ez dugu fitxaketarik egiteko asmorik. Gaur egun dauden jokalariek lortu dute mailaz igotzea; beraz, horiek dira jokatzeko merezi dutenak. Hala ere, bigarren taldeko bi edo hiru jokalarik lehen taldera igo nahi ditugu, baina ez da aldaketa nabarmenik izango".

Helburua, mailari eustea

Eskoriatzaren helburuak dira ahalik eta ondoen aritzea, jokalariek zein entrenatzaileek ikastea eta, ahal bada, mailari eustea. Lehen taldea sailkapenean 4, 5 eta 6. postu inguruetan aritu da azken urteetan, igotzea lortu dute, eta hori beste mailetakoko jokalariei indarra emateko ere baliagarria dela adierazi du Eskoriatza kirol elkartearen presidentek. "Gazteagoek erreferente dituzte lehen taldekoak, eta, beraien lorpena ikusita, ilusioa pizten zaie hauei ere...".

Aire akrobazia ikastaroa

Pasa den asteburuan, Joseba Iñurrategi pilotalekuan dagoen gimnasioan aire akrobazia ikastaroa izan zen Agurtzane Telleria irakaslearen eskutik. Zortzi pertsona izan ziren hastapeneko saioan, eta elementu ezberdinak landu zituzten. Hainbat lagun ikastarotik kanpo geratu zirenez, beste saio bat ere izango da: gaur, 11:00etan, Mendiola auzoan.



AGURTZANE TELLERIA

LEINTZ GATZAGA

23

Udako bisitetarako prestaketa lanetan ari dira Gatz Museoa

Eguenetik domekara izango dira bisita gidatuak: 11:30ean euskaraz eta 13:00etan gazteleraz

Imanol Beloki LEINTZ GATZA

Gatzagako Gatz Museoa ezarri dute udako oporretarako ordutegia. Hala, Gatz Museoa, herria bera edo Dorleta santutegia bisitatu nahi duenak aukera izango du horretarako.

Bisitak eguenetik domekara bitartean izango dira, 11:30ean euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Ez dago erreserbatu beharrik, baina bertako arduradunek adierazi dute eskertzen dutela abisatzeari. Horretarako, 943 71 47 92 telefono zenbakira deitu daiteke. Talde handiko bisita badago, bestalde, derrigorrezkoa izango da erreserbatzea; hala, bisita berezi bat izango dutela gaineratu du Libe Ramilak, Gatz Museoko arduradunetako batek: "Abuztuaren 2an, esaterako, Andaluziatik 50 pertsonako bisita berezia dauka, baina ez da ohikoa izaten halako talde handia etortzea".



Udako egurra ebakitzen. GATZ MUSEOA

Egurra ebakitzen egunotan

Bisita gidatuak izaten direnean, gatz egiten dute, eta basoetako egurra eraman dute museoraino. Egunotan, zatitzen ari dira egur hori, bisitei begira, museoko sua piztu eta dorletan gatz egiteko.

Lara Gonzalez izan da kartel lehiaketako irabazlea

Gatzagako Andramari jaiak irailaren 6an, 7an, eta 8an ospatuko dituzte, eta, urtero moduan, jaietako kartela egiteko lehiaketa antolatu du Udalak. Lehiaketako irabazlea Lara Gonzalez izan da. Horrekin batera, jai batzordea lanean izan da, eta, egunez egun egitaraua prestatuta, laster emango dute jaietan izango diren hitzorduen berri.



Aurtengo jaietako kartela. GATZAGAKO UDALA

Pilota txapelketako finalerdiak domekan eta eguaztenean

Leintz Gatzagako eskupilota txapelketa irailean amaituko da, baina domekan –uztailak 18– eta eguaztenean –uztailak 31– jokatu dira finalerdiak.

Bi egunetan, 10:00etan hasiko dira bikotekako partiduak, eta, guztira, zortzi partidu jokatu dituzte gaztetxoek. Garaile irtezen direnak finalerako sailkatu-

ko dira: Gatzagako Andramari jaietan izango da, irailaren 7an.

10, 12, 13, eta 14 urteko benjamin, alebin eta infantil mailetakoko Euskal Herri osoko pilotariak ari dira txapelketan, baina bailarako pilotaririk ez da sailkatu finalerdietarako. Izan ere, pasa den zapatuan, lehiaketatik kanpo geratu ziren. Hala ere, maila handiko partiduekin gozatu ahal izango dela adierazi dute antolatzaileek, maila oso handiko pilotari gazteak daudela nabarmendu dute eta.



Argazkiaren eskuinaldeko belardian egingo da bide berria; irailean hasiko dira lanak eta hiru hilabete iraungo dute. ENEKO AZKARATE

Pasabide berria, herria eta Miguel Altuna lotzeko

850 metro luze eta 2,5 metro zabal izango den bidea egiteko lanek irailean hasi eta hiru hilabete iraungo dute, eta Gabiriako tunela inpermeabilizatzeko obra irail hasierarako bukatuta egotea espero dute; Miguel Altuna berriko klaseak irailaren 9an aurkeztuko dira

Jokin Bereziartua BERGARA

Itxaronaldia luzea izan da eta hainbat atzerapen izan dira irekiera datei dagokienez, baina hurrengo ikasturtean bai, 2019-2020 kurtsoan Miguel Altuna Lanbide Heziketak egoitza berria izango du. Irailaren 2an, astelehena, martxan egongo dira eta irailaren 9an aurkeztuko dituzte

klaseak. Hori bai, inaugurazio ekitaldia ez da irailean egingo, Miguel Altunako zuzendari Josune Irazabalek aurreratu duenez.

Egoitza eta herria lotzeko asmoa Ikusteke dago lekualdaketa herri barruan izango duen eragina nolakoa izango den, besteak beste, zirkulazioari, komertzioa-

ri eta ostalaritzari dagokienez. Aurreikustekoa da ikasleek alde zaharrari ematen dioten bizitasunak nabarmen egingo duela behera. Hain zuzen, Udal Gobernuak 2020ko otsailerako gertu egotea espero duen mugikortasun planak herri barruko zirkulazioan izango den aldaketa ahalik eta zehatzen jaso nahi du.

Bide berriko obra, irailean hasita Ikasturte berria egoitza berrian hasiko dutela ziurtatuta, Udalak herriaren eta Miguel Altunaren distantzia ahalik eta gehien txikitze proiektu bat garatu zuen, eta orain gutxi esleitu du obra. Hau da, egoitza berria herrigunearekin lotzeko asmoz, 850 metroko luzera izango duen pasabide bat eraikiko du Morgia SA enpresak. Obra horrek 235.890 euroko aurrekontua izango du –BEZa barne– eta lanak irailean hasiko direla adierazi du asteon Udalak; hiru hilabete inguru irautea aurreikusten dute.

Pasabidea Miguel Altuna berriaren eta Gabiriagañekoa baserriko lurren artean egingo da, eta 2,5 metroko zabalera eta 850 metroko luzera izango duen arrapala bat eraikiko da. Arrapala hori hormigoi-lauzarekin zolatuko dute eta aglomeratuarekin osatua izango da. Pasabide berria oinezkoek eta bizikletan doazen herritarrek erabili ahaliko dute, eta, led sistema erabiltzen duten hamar luminaria-puntu jartzearekin batera, barandak, zuhaixkak eta hainbat eserleku ere jarriko dituzte.

Tuneleko lanak, irail hasierarako Pasabide berriaz gain, Gabiriako tunela inpermeabilizatzeko eta eusteko lanak ere egingo ditu Udalak abuztuaren zehar. Lan horien aurrekontua da 48.109 eurokoa da eta Geotunel SL enpresa arduratuko da proiektua

exekutatzeko. Aurreikusitako lan horiek egiten diren bitartean, tunela itxita egongo da herritarrentzat; horregatik, ahalik eta eragozpen gutxien sortzeko, obra irailaren hasierarako amaitzea espero du Udalak: "Ahalegin guztiak egingo ditugu irail hasierarako lanak bukatu eta ordurako tunela irekita izateko".

Berria, zaharraren ia bikoitza

Bi eraikinetan banatuta, 9.719 metro koadro izango ditu egoitza berriak, orain artekoaren ia bikoitza. Aurrealdeko eraikinak 3.329 metro koadro ditu: erdisotoan, 200 pertsonarendako lekua izango duen aretoa eta jantokia –ikasleentzat zein irakasleentzat– izango dira; 0 solairuan, zerbitzu orokorrak, irakasleen gela eta bilera gelak joango dira; eta lehen solairua, azkenik, administrazio alorreko heziketa zikloetarako baliatuko dute.

Atzeko eraikinak 6.335 metro koadro ditu eta bi zatitan banatuta dago. Batetik, ekipamendu tekniko hornituta dauden gelez betetako lau pisu ditu eta, bestetik, tailerra dago. Tailerrean, 2.062 metro koadroko espazioan, horma bakar bat dago.

9.719 METRO KOADRO DITU EGOITZA BERRIAK BI ERAIKINETAN BANATUTA; ZAHARRA BAINO IA BIKOITZA DA

Nafarroako uholdeei aurre egiteko, "auzolan ekonomikoa"

Udalak dirulaguntza bideratuko du eta bergararrei eskatu die ireki diren banku-kontuetan ekarpena egiteko

J.B. BERGARA

Uztailaren 8ko uholdeek kalte handiak eragin zituzten Nafarroa erdialdeko hainbat herritan, eta 25 urteko Zeru Cañadaren heriotza eragin zuen. Hala, asteleheneko osoko bilkurara proposamen bat eraman zuen Gobernuak: "Hondamendi natural honek eskumena duten administrazioen parte-hartzea eskatzen du, baita horren larriki kaltetua izan den eskualdearekiko elkartasuna adierazi nahi duten guztien dirulaguntza ere". Akordioak jasotzen du uholdeen

ondorioz kaltetuak izan diren herritarrei elkartasuna adieraztea –bereziki, Zeru Cañadaren senitartekoei–, kalteak berrekitzen laguntzeko dirulaguntza bideratuko dute gizarte zerbitzuek eta, azkenik, bergararrak animatu nahi dituzte "auzolan ekonomikoan" parte hartzera, kaltetutako udalek ireki dituzten kontuetan ekarpena eginez.

EH Bilduk eta PSE-EEk alde bozkatu zuten eta EAJ abstenitu egin zen; jeltzaleek gaia alde aurretik landu behar zela argudiatu zuten abstenitzeko.

Lur-jausia AHTaren lanetan

Angiozarko AHTaren lanetan egin zuten behera lurrek, eta errefortzurako jarritako horma ere behera etorri zen. Uztailaren 18an izan zen, eta Angiozarko alkate Mila Elortzak dio aurretik ere lur-jausi bat izan zela eta horregatik jarri zutela horma. "Lurra lehor dago eta apur bat besterik ez da jausi. Eurria eginda balego, beste kontu bat izango litzateke", gaineratu du.



NORA PALMITANO



EAJko Elena Lete Gorka Artolari zuzentzen, bilkurako galderen eta eskaeren tartean, parkingaren proiektuaren harira. J. BEREZIARTUA

EAJ: "Atzerapauso itzela da parkinga ez egitea"

Seminarioko aparkalekuaren gainean EAJk dio "erabaki latz" bat "oso arin" hartu duela Gobernuak, eta alkateak berretsi du "ziurtasun osoa" behar dutela halako proiektu bat garatzeko; azken estimazio teknikoaren arabera, hiru milioi euroko aurrekontua izango luke

Jokin Bereziartua BERGARA

Seminarioko parkingaren proiektua izan zen eztabaidagai nagusia astelehenean, uztailako ohiko osoko bilkuran. EAJko bozeramaile Elena Letek eskaeren eta galderen tartean atera zuen gaia, eta "gonbidapena" egin zion egungo Gobernuari proiektu horren bueltan eman diren "pauso guztiak" kontatu zitzaizkion. Besteak beste, adierazi zuen aurreko astean prentsaren aurrean ez zela "egia osoa" esan.

Letek denboran atzera egin eta gogora ekarri zuen seminarioko parkingaren bueltan "kolore ezberdinetako" gobernuek "askotariko urratsak" egin dituztela seminarioko parkingari begira. "Oraindik zenbaterainokoa izango den ez dakigun atzerapauso bat eman du Gobernu honek. Modu oso arinean, erabaki latz bat hartu du. Plan Orokorrean jasota zegoen seminarioan parking bat egitea, eta Plan Orokor bat aldatzeko batez besteko denbora lau urtekoa izan ohi da. Denbo-

ra hori itxaron beharko dugu?", gaineratu zuen.

Hiru milioi euroko aurrekontua

Gorka Artola alkateak joan den astean iragarritakoa berretsi zuen. Hau da, mugikortasun planaren emaitzak izan arte ez da aparkaleku berririk egingo. Eztabaida "aspalditik" kalean dagoela ere gogoratu zuen: "2002an bazegoen planteamendu bat, 2007an erosi zen orube hori eta 2009an Plan Orokorrean sartu zen. Horregatik, proiektua gaur eguneratu egin behar dugu. Urteak pasatu dira eta egungo mugikortasun eredurantz antolatu behar da herria; eta hor, lehengo planteamendu batzuk zalantzan jar daitezke, eztabai-

ALONSO (PSE-EE): "EAZER DIOTEN HONETAZ DAKITENEK; OBJETIBA DEZAGUN, EGIN DEZAGUN AZTERKETA"

data eta berrikusi; hau da, bergararren beharrei egokitutako alternatiba onena zein den jakin behar dugu ahalik eta ziurtasun handienarekin". Izan ere, azken estimazio teknikoaren arabera, hiru milioi euroren bueltan egongo litzateke proiektuaren aurrekontua, Artolaren arabera.

PSE-EEko Alberto Alonsok uste du hauteskundeetan bergarrek "garbi" esan zutela parkinga ez dutela nahi seminarioan eta gaineratu zuen zain daudela: "Objetibatu dezagun, jar ditzagun datuak mahai gainean, egin dezagun azterketa. Ea zer dioten honetaz dakitenek".

Kereila artxibatuta, helegitea

Ekainaren 14an udalbatzako talde guztiek frankismoko krimenen aurka aurkeztutako kereila artxibatu egin zen lehen instantzian eta asteleheneko osoko bilkuran aho batez onartu zen erabaki horri helegitea jartzea. Udalak Auzitegi Konstituzionaleraino joateko asmoa agertu du.



JOKIN BEREZIARTUA

Euskara Plana gizarteratu nahian

Euskara Plana gizarteratzeko hainbat ekimen aurreikusi ditu Udalak; etxeko etxe banatuko dute eskuorri bat eta, gainera, hainbat alorretako testigantzak jasotzen dituen ikus-entzunezko bat prestatzen ari dira. Asteleheneko osoko bilkuraren aurretik, udalbatzako zinegotziek argazkia atera zuten; EAJko Esther Ortiz de Zarate eta Angel Murgiondo ez ziren egon.

OHARRAK

Labegaraieta itxita dago, garbiketa lanengatik

Domekara bitartean ezingo da kiroldegia erabili.

Dolmenen ibilbidea: bisita gidatua domekan

Domekan, uztailak 28, euskarazko bisita egingo dute. Bederatzi kilometro inguruko ibilbidea izango da Bergarako, Soralezeko eta Eibarko lurretan. Argibide gehiagorako: 657 79 46 77.

Aire libreko 46. Simon Arrieta pintura lehiaketa

San Martin jaietarako Beart-ek antolatu ohi duen lehiaketa irailaren 15ean izango da. Lanak egunean bertan egin beharko dira eta Udalak erakusketa jarriko du osoko bilkuren aretoan, irailaren 20tik urriaren 3ra. 1.620 euro banatuko dira saritan.

Basalgoko jaietako azken egunaz gozatuko dute gaur

Atzoko egun handiaren ostean, gaur izango da Basalgoko jaietako azken eguna: meza, luntxa eta umeendako jolasak (12:00); auzoko erretiratuendako eta jai batzordeko kideendako bazkaria (14:30); eta auzotarrendako eta elkarteko bazkideendako mus txapelketa (17:00) izango dituzte. Jai batzordekoek eskerrak eman nahi dizkiete laguntzaile guztiei.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Seminarioko patioan egindako apar festa oso arrakastatsua izan da aurten ere. JARDUN

Emaizak ikusita, merezi izan du hartutako lanak

Familia batzuen balorazioak jasotzeko dauzkagu eta erantzun horiek oso garrantzitsuak dira guretzat, baina aurten ere udaleku irekien gaineko balorazio positiboa egin beharrean gaude; lehen hiru asteetan 457 neska-mutiko eta 55 hezitzaile izan dira egunerokoan

Goiena komunitatea

Jardun euskara elkarte / BERGARA

Gaur, uztailak 26, amaitu dira udaleku irekiak. Koordinatzaileek adierazi digutenez, aurten ere udaleku irekien gaineko balorazio positiboa egin beharrean gaude. Oraindik ere, zerbitzu hau erabili duten familia askoren balorazioak jasotzeko dauzkagu eta guretzat euren balorazioak jasotzea oso garrantzitsua da. Horrela, aurrera begira ere, aldatzeko edo hobetzeko gauzak zeintzuk diren jakin dezakegu. Izan ere, haien seme-alabak dira udalekuetako protagonistak eta haientzat ahalik eta eskaintzarik onena lortzea da gure helburua.

Zirkuaen Egunekeo magoa

Udaleku irekietan izena emateko orduan hiru edo lau astez jarduteko aukera egon da aurten ere. Uztaileko lehen hiru asteetan 457 neska-mutiko eta 55 hezitzaile izan dira egunerokoan. Amaitu berri dugun laugarren

asterako, aldiz, kopurua nabarmen jaisten da normalean eta aurten ere horrela izan da. 261 neska-mutiko eta 33 hezitzaile izan dira azken aste honetan.

Udaleku irekietan lan egin behar duten hezitzaileekin formakuntza saio bat egiten da eta, lanketen artean, programazioak garrantzi handia izaten du. Udalekuak amaituta, umeak egun hauetan egiten dituzten ekintzen gaineko oroitzapen polit batekin gelditzea garrantzitsua da guretzat eta espero dugu aurten ere lortu dugula. Ekintza arrakastatsuen artean, urteroko apar festak erantzun ona izaten du eta aurten Zirkuaen Egunekeo ospakizunean ekarritako magoa ere oso

ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU URTERO GUGAN KONFIANTZA IZAN ETA IZATEN DUTEN GUZTIEI

gustukoa izan da umeentzat. Hala ere, adin eta maila bakoitzeko umeek eta hezitzaileek egiten dituzten ekintzak ere arrakastatsuen artean egongo dira, seguru.

Gero eta eskaintza zabalagoa

Udaleku irekiak kudeatu ditugu baina badakigu aurten kirol campusa ere egon dela. Azken finean, eskaintza gero eta zabalagoa egotea herriarentzat orduan eta aberatsagoa dela uste dugu; familia bakoitzak euren seme-alabentzat egokiena dena aukera dezatela, bai horixe.

Horrekin batera, eskerrak ematea nahi dugu urtero gugan konfiantza izan eta izaten duten familia guztiei. Hilabete askotako lana izaten da baina, emaitzak ikusita, sinetsita gaude merezi duela. Guk herriko haur eta gaztetxoek aisialdi euskaldun eta hezitzaile bat izateko aukera eskaintzen jarraituko dugu, betiere gure leloak diotenari eutsiz: *Euskarak batzen gaitu!*

GORA ETA BEHERA



J.B.

Hesituta dagoen zuloa estaltzeko ordua dela



Elorregira paseoan joan ohi den bergarar batek salatu du estalki gabe dagoen estolda bat denbora luzez hesituta dagoela; dio ondo dagoela hesitzea, baina eskatu du behin betiko estali dezatela.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Abuztuaren ordutegi berezia izango dute udal zerbitzu gehienek

Abuztuaren ordutegi berezia izango dute udal zerbitzu gehienek. Udaletxeko bergararren arreta zerbitzua abuztu osoan egongo da zabalik, astelehenetik egubakoitzera -07:30etik 14:30era-, abuztuaren 15ean eta 16an izan ezik. Agorrosin egunero egongo da zabalik, salbuespenik gabe, 09:00etatik 21:00etara. Udal Liburutegia itxita egongo da abuz-

tuaren 3tik 25era eta Labegarairetako kiroldegia ere bai abuztuaren 5etik 18ra; gainerako egunetan, kiroldegia irekita egongo da 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 22:30era.

Bisitariei begira, Laboratorium eta Turismo Bulegoa egunero egongo dira zabalik: astelehenetik zapatara 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara eta domeketan 10:00etatik 13:00etara. Udal Artxiboa abuztu osoan zehar egongo da zabalik, 08:00etatik 15:00etara.

Osintxuko Kofraixak abuztuaren 30ean, 31n eta irailaren 1ean

Martiritxo jaitsi eta igo bitartean, adin eta gustu guztiak asetzeko moduko egitaraua prestatu dute osintxuarrek

J.B. BERGARA

Abuztuaren 30ean, 31n eta irailaren 1ean, Kofraixak ospatuko dituzte Osintxun. Abuztuaren 30ean Martiritxoren jaitzieraren (18:00) jaiak hasi eta hainbat ekintza izango dituzte: bizikleta lasterketa Soraluzera (18:30); Matraza elektro-txarangarekin poteoa (20:30); buruhandiak (21:00); eta Gonapik, The Potes eta DJ Arnoren zuzeneko emanaldiak (23:00) izango dituzte. Abuztuaren 31rako, hainbat ekintza izango dituzte: umeendako jolasak (11:00); kuadrillen arteko jolasak (13:00);

kuadrillen bazkaria (15:00); puzgarriak (15:00etatik 18:00etara); sukaldaritza lehiaketa (18:00); apar festa (18:00); toka txapelketa (19:00); herri afaria (21:00); eta Laket taldearen erromeria (00:00). Irailaren 1ean, galtzontzilo eta tanga lasterketa (06:30); meza (12:00); Bergarako zezenak (12:30); haragi-pintxoaren banaketa (12:45); pilota partidua (17:30); pintxopote magikoa Imanol Ituño magoaren eskutik, Osintxuko urreko kofradiari saria (20:00); eta Martiritxoren igoera (21:00) izango dituzte, besteak beste.

Munduko onenekin onena eman eta historia egitera

Abuztuaren 8tik 19ra Tokion (Japonia) jokatu den munduko txapelketan eta abuztuaren 22an Arcon (Italia) hasiko den gazte mailako txapelketan lehiatuko da Mikel Linazisoro: "2020ko Olinpiar Jokoetarako txartela ere badago jokoan eta lehia itzela egongo da"

Jokin Bereziartua BERGARA

Debagoienak inoiz eman duen eskalatzailerik onena da Mikel Linazisoro (Bergara, 2000) eta oraindik zeresana emateko gogoz dabil. Innsbruck-etik (Austria) erantzun die GOIENAREN galderari, gosaltzen ari zela, abuztuaren izango dituen urteko bi zita garrantzitsueni begira gogor entrenatzen ari delako. Munduko txapelketa bana jokatu duela 19 urteko bergararrak, senior mailan lehena eta gazte mailan bigarrena –azkenengoz lehiatuko da gazte mailan–.

Bi txapelketa, bi helburu

Abuztuaren 8tik 19ra jokatu du Linazisorok senior mailako munduko txapelketa Tokion (Japonia). Eta jarraian, deskanstatzeko apenas denborarik izan gabe, abuztuaren 22tik 30era Arcon (Italia) jokatu den txapelketan parte hartuko du. Lehen erronka Tokion izango du eta haren helburua izango da fina-



Linazisoro, uztailaren 20an, Briançon-en, munduko kopako finalerdietan. SYTSE VAN SLOOTEN

lerdietara heltzea: "Senior mailan, munduko azken bi kopetan [urtean sei proba dira] finalerdietan egon naiz eta ederra litzateke hori lortuko banu txapelketan [aste bakarreko lana da]. Gazte mailan, ea boulderrean finalera sailkatzen naizen [sei sailkatzen dira] eta ea sokaan podiuma egin dezakedan".

Lana "ia perfektu" egin beharra

Horrez gain, munduko sailkapeneko lehen 20ren artean egoitea gustatuko litzaioke, dioenez, "oso maila altua" dago eta: "2020ko Olinpiar Jokoetarako zazpi onenak sailkatuko dira eta lehia itzela egongo da. Ez da batere erraza izango; dena ia perfektu egin beharko dut sailkatzeko".

Hiru modalitatetan lehiatuko da: boulderreko zailtasunei aurre egiten, pareta errazagoak azkar igotzen eta erresistentzia ezinbestekoa den horma luzeetan gora ibili beharko da Linazisoro mailarik onena ematen helburu handiak lortu nahi baditu: "Erresistentzia lantzeko probetan aritzen naiz gusturen, baina zerbait handia lortu nahi badut beste bi probetan ere nire mailarik onena eman beharko dut".

Innsbruck-en dago, entrenatzen

Eskalatzailerik bergararra Austrian ari da bi txapelketak prestatzen. Joan den astean amaitu zuen udako munduko kopa, Briançon-en (Frantzia), eta hamar egun egingo ditu Innsbruck-en, lagun

batzuekin batera, gogor entrenatzeko. "Abuztuaren 2an, 3an eta 4an Europako kopako beste saio bat izango dut Austrian eta ordura arte hemen geratuko naiz. Ondoren, Bartzelonara joango naiz Tokiora joateko. Modalitate guztiak ari naiz prestatzen, baina bereziki boulderra eta soka ari naiz lantzen".

Orain bertan eskalatzera begira bakarrik dagoelako antolatuta Linazisororen egunerokoa. 08:00etan esnatu ohi da, 08:30ean gosaltu eta 10:00etarako rokdromoan dago entrenatzen. Goizean zehar 13:00ak arte entrenatzen dute; gero bazkarirako erosketak egin eta bazkalurreko bainua hartu ohi dute, errekan. Bazkaldu, eta gero "oso garrantzitsua" den siesta egiten dute. Gero, 17:00etarako berriro daude rokdromoan, 21:00ak arte edo: "Mundu osoko eskalatzailerik daude orain hemen eta, askotan, batera entrenatzen gara, eta hori ederra da. Gainera, eskalatzen ez dugun egunetan mendi txangoak egiten ditugu; sekulako parajeak daude hemen", gaineratu du.

Narasaki eta Ondra faborito

Linazisororen arabera, senior mailako Tokioko munduko txapelketa irabazteko faboritoak Tomoa Narasaki japoniarra edo Adam Ondra txekiarra izango dira: "Ezusteko handia litzateke bata edo besteak ez irabaztea, maila bat gorago daude".

Kaleko futbolaren berezitasuna bihar, egun osoz, seminarioan

Hamabi taldek eman dute izena Semicup txapelketaren seigarren ediziorako; 08:30ean hasita, finala 19:15ean

J.B. BERGARA

Bihar, uztailak 27, jokatu da Semicup txapelketa bereziaren seigarren edizioa. 08:30ean hasita, gutxi gorabehera 20:00ak arte ia etenik gabe areto futbol izango da protagonista seminarioko patioan. Aurten, hamabi taldek eman dute izena eta sei taldeko bi multzo egin dituzte. 15 minutu iraungo dute partiduek, eta 15:45ak arte multzo barruko partidua jokatu dira. Hau da, 17:00etan hasiko dira final-laurdenak; horrenbestez, multzo bakoitzetik lau talde

sailkatuko dira azken faserako. Finalerdiak 18:00etan hasiko dira eta final handia, 19:15ean.

Sei sari banatuko dituzte

Finala bukatu ostean banatuko dituzte sariak. Lehen hiru talde sailkatuek kopa bana jasoko dute eta modu indibiduallean egindako lana ere sarituko dute antolatzaileek: pitxitxiarentzako, jokalaririk onenarentzako eta jokalaririk bereziarentzako sariak egongo dira. Jokalarien artean gizonezkoak nagusi diren arren, antolatzaileek diote urtez urte



Semicup txapelketako partidu bat, artxiboko irudi batean. GOIENA

gora egiten duela emakumezkoen parte hartzeak.

Grina pizteko, bideo umoretsua

Gainera, parte hartzaileei lehiarako grina pizteko, bideo bat egin dute umore ukitu nabar-

menarekin: 2022. urtea irudikatzen dute bideo horretan, eta egiteko zen aparkalekuagatik seminarioan patiorik egongo ez dela iradokitzen dute; hala, parking barruan futboleak jokatzen ageri dira antolatzaileak.

Mikel Mujikak hirugarren egin du Zaragozako triatlloan

Uztailaren 20an Zaragozako Mequinenza herrian jokatu zen triatlloan, Mikel Mujika atleta bergararrak hirugarren postua egin zuen. "Pirinioetan entrenamendu gogor batzuk egin ostean, ondo erreperatu ote nintzen zalantzekin joan nintzen eta, azkenean, sekulako lasterketa atera zen". Zaragozako proban, atletek 1.900 metro egin zituzten igerian, 88,5 kilometro bizikletan eta 21 kilometro antxintxiketan, eta ibilbide hori egiteko Mujikak lau ordu, hamabost minutu eta 37 segundo behar izan zituen (4.15.37). Abuztuaren 25ean Vichy-n (Frantzia) egingo den ironman proba dauka begiz jota orain Mujikak.



Miren, Amaia eta Paxkalin Aire ahizpak taula gainean, kantuan. OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA

Abuztuan ere kulturaz gozatzeko aukera dago

Bergarako Udalak kultura programazio zabala prestatu du abuztuko egunetarako. Musika eta magia izango dira kale ikuskizunetan; eta, horrez gain, aire libreko zinema emanaldiak eskainiko dituzte, adin guztiei zuzendutakoak

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA
Musika, kale ikuskizunak eta aire libreko zinema emanaldiak izango dira abuztuan zehar herrian. Kultura programazio zabala antolatu dute, oporraldi garaian ere zer ikusi eta zer entzun egon dadin.

Kale ikuskizunen tartean, lau emanaldi egongo dira abuztuan zehar. Abuztuaren 7an izango da lehenengo saioa: Aire Ahizpak taldearen emanaldia, Labegaraian, 20:00etan. Urepeleko Amaia, Miren eta Paxkalin Aire ahizpek osatzen dute taldea. 1992an sortutako taldea da; nabarmendu behar da Xalbadorren bilobak direla aipatutako hiru musikariak. Esperientzia handia dute herriko plazetan. Batez ere, *a cappella* abesten dute, baina nabait abestitan Sebastian Desgrans akordeoi jolearen laguntza izaten dute.

Abuztuaren 16an, La Jodedera taldeak eskainiko du kontzertua, Irala kalean, 20:00etan. Ondo pasatzeko eta dantza egiteko

aukera eskainiko du 2009an sortutako laukoteak. Musikari euskaldunek eta kubatarrek osatzen dute taldea.

Abuztuaren 21ean, bestelako diziplina landuko dute: Tor eta Txoborro magoak izango dira Espolioan, 20:00etan. *Aztikeriak* lana aurkeztuko dute: magia euskaraz ikusteko aukera egongo da. Ziur ikusleak aho zabalik utziko dituztela ikuskizunarekin.

Azkeneko emanaldia abuztuaren 28an izango da: Jon Gurrutxaga eta Urbil Artola musikariek kontzertua eskainiko dute, Fraiskozuri plazan, 20:00etan. Esperientzia handiko musikariak dira biak: Jon Gurrutxaga elgoibartarra Arima Beltza taldearekin egin zen ezagun; eta

EGURALDI TXARRA BADA, KALE IKUSKIZUNAK SEMINARIOKO KARPAN IZANGO DIRA

Urbil Artola hondarribiarra, aldiz, Txomin Artola musikariaren semea izateaz gain, Sorotan Bele taldearekin egin zen ezagun.

Eguraldi txarra eginez gero, lau emanaldiak seminarioko karpán egingo dira.

Aire libreko zinema

Bestalde, publiko guztiei zuzendutako lau zinema emanaldi eskainiko dituzte martitzenetan San Martin plazan, 22:00etan. Abuztuaren 6an, *Sing Street*; abuztuaren 13an, *Campeones* –gaztelaraz–; abuztuaren 20an, *Lego 2 pelikula*; eta abuztuaren 27an *Megalodon* –gaztelaraz eta 12 urtetik gorakoendako–. Eguraldi txarra egiten badu, emanaldiak seminarioko arkupeetan izango dira.

Aroztegin: Arantza Baskaran

Abuztuaren 2tik irailaren 8ra bitartean, Arantza Baskaran margolariaren lanak egongo dira ikusgai Aroztegi aretoan.

Feminismoaz irakurri eta ondoren hausnartzeko aukera

Udako irakurketa proposatu du Martxanterak taldeak; liburuaren inguruko solasaldia irailaren 11n egingo dute

A.E. BERGARA

Martxanterak talde feministak Bell Hooks idazlearen *Feminismoa denon kontua da* liburuaren irakurtzeko proposamena egin du uda honetarako. Izan ere, helburua da liburuaren irakurri eta ondoren horren inguruko solasaldia egitea.

Solasaldia irailaren 11n izango da, kartzela zaharrean, 18:30etik 20:00etara. Harrematarako helbidea hau da: marxanterak@gmail.com.



Liburuaren azala. @OIHANABARTRA

Euskaraz eta gaztelaraz

Liburuaren liburutegian edo liburutegietan eskura daiteke. Euskarazko bertsioa Katakarak argitaletxearen eskutik lor daiteke; bestalde, gaztelaraz irakurtzeko aukera ere egongo da, Traficantes De Sueños editorialaren eskutik. Gaztelarazko bertsioa sarean irakurtzeko aukera

ere badago, *Traficantes.net* atarian. Bell Hooks ezizenaren atzean, Gloria Jean Watkins aktibista feminista afroamerikarra dago. Liburuak, besteak beste, feminismoaren inguruan hedabideek sortutako aurreiritziak baztertzea du helburu.

De Diego Brothers taldeak itxiko du Berumuga zikloa


Gaur, barikua, izango da Berumuga zikloaren azkeneko emanaldia. Betiko moduan, emanaldia Espolioan izango da, 22:00etan, doan.

Izenak adierazten duen moduan, bi anaia izango dira taula gainean: De Diego Brothers. Abel Boquerak organoan eta Caspar St. Charles baterian lagundutako izango dira Espo-

loian. Jazza bere osotasunean eskaintzen dute Juan eta Victor anaiek. Bilbon sortuak eta goi mailako ikasketak Bilbon bertan egin ondoren, Bartzelonara joan ziren bizi izatera. Han sortutako proiektuarekin datoz oraingoan. *Bebop* eta *cool*-etik abiatutako musika eskaintzen dute, swing eta *hard bop* ukituarekin. Euren doinueta Horace Silver bezalako artisten eragina nabari da, baita Lee Morgani musikariari egindako keinuak ere. 25 urteko ibilbidea dute.

Euskadiko Gazte Orkestrarekin jo du Miriam Moñuxek

Miriam Moñux biolin-jole bergarra Euskadiko Gazte Orkestrarekin ibili da egunotan. Bi astez egon ziren entseatzeko Eibarren: Txaiikovskiren *5. Sinfonia* eta C. Saint Saëns-en *Dantza macabroa*. Entseguen ondoren, emanaldien txanda iritsi zen: Hondarribian, Bilbon, Gasteizko Printzipalean eta Victoria Eugeniean jo dute.



Miriam Moñux. IMANOL SORIANO



11 BIDER 1.000 ESKER!

GOIENA TELEBISTAK 11.000 IKUS-ENTZULE DITU GIPUZKOAN ETA 6.000 DEBAGOIENEAN, EGUNERO, CIES AUDIENTZIEN NEURKETA-ETXEA EMANDAKO DATUEN ARABERA.

ESKUALDEKO HIRUGARREN TELEBISTARIK IKUSIENA DA, ETB2REN (17.000) ETA ETB1EN (8.000) ONDOREN.

GAINERA, DEBAGOIENEAN, HAMAR HEDABIDE JARRAITUENEN ARTEAN DAGO GOIENA:

1: GOIENA ALDIZKARIA: 30.000 IRAKURLE ASTERO.

8: GOIENA.EUS: 7.000 BISITARI BAKAR EGUNERO.

9: GOIENA TELEBISTA: 11.000 IKUS-ENTZULE EGUNERO.

HORREGATIK GUZTIAGATIK, 11 BIDER 1.000 ESKER!

goiena

Zu hemen zaude.

"Aldarrikatu egin behar ditugu gure pertsonaiak"

DANI FANO 'XABIROI' ALDIZKARIKO KOORDINATZAILEA ETA ILUSTRATZAILEA
'Sasi artean Elgeta' izeneko sail berria estreinatu du 'Xabiroi' komiki-aldizkariak ekainean. Jacinto Rivas 'Elgeta' trikitilaria du protagonista

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Xabiroi aldizkariako koordinatzailea eta ilustratzailea da Dani Fano. Koldo Izagirrerekin eta Garluk Agirrerekin batera dihardu *Elgeta*-ri buruzko komikia sortzen.

Bi erakunderen arteko elkarlanaren ondorioz jaio da *Sasi artean Elgeta* saila, ezta?

Hala da. Euskal Herriko Trikitixa Elkartek proposatu zion Ikastolen Elkarteari gero album bihurtuko den sail bat martxan jartzeko, eta Jacinto Rivas *Elgeta*-ren figura proposatu zuten. Zergatik? Ziurrenik, oso musikari garrantzitsua izan zelako. Trikitiaren mundua modernizatu zuen, eta, bestalde, nobelako bizitza izan zuelako.

Koldo Izagirre eta Garluk Agirre dituzu bidelagun abentura honetan. Komikia talde lana izaten da, eta Koldo Izagirrek eginda zeukan gidoi bat *Elgeta*-ri buruz. Berea da baita ere *Elgeta*, *sasiaren sustraiak* biografia. Gidoia egiten digu. Nik marrazkiak egiten ditut, eta kolorea Garluk Agirrek ematen dio.

Ekainean argitaratu zenuten lehen atala eta urrirako da hurrengoa. Nola antolatu duzue saila?

Zazpi atal izango dira eta bi urteko epean joango gara argitaratzen. Guztira, 46 orri izango



Dani Fano, *Sasi artean Elgeta* sailerako egindako hainbat marrazkirekin. L.Z.L.

"JACINTO RIVAS 'ELGETA' BETI IBILI ZEN BOTERETIK URRUN ZEUDEN ESPARRUETAN"

dira. Atal guztiak bateratzen dituen komiki-albuma 2021ean argitaratuko dugu.

Nola laburbilduko zenuke Jacinto Rivas *Elgeta*-en bizimodua?

Topikoa da, akaso, baina bere garaiko pertsonaia zela esango

nuke. *Elgeta*-ren bizitza ezagutzeak garai hura ezagutzeko aukera ematen digu. Umezurtza zen eta Intxuzabal baserrian hartu zuten. Ez zituen baserriko lanak askorik maite, eta ez dakigu nola baina trikitiarekin hasi zen. Eibarren garatu zuen bere kontzientzia politikoa. Sozialista zen. Gerra eta kartzela ere ezagutu zituen. Beti ibili zen boteretik urrun zeuden esparruetan. Akaso, horregatik dago hain informazio gutxi, baina esan daiteke trikitilari belau-naldi oso baten maisu izan zela.



Jaietako argazki lehiaketako irudi irabazlea. JOSE ANTONIO OJANGUREN

Jaiak baloratzeko inkestetan puntuazio onak, orokorrean

Erantzun kopuruak gora egin du; paperean 15 izan dira, Google formatuan 51 eta Hirix plataformaren bitartez 5

L.Z.L. ELGETA

Aurreko astean elkartu zen jai batzordea eta gogobetetasun inkestan jasotako erantzunak aztertut zituen, besteak beste. Pozik dira kopuruarekin; izan ere, nabarmen egin du gora. Puntuazio orokorrak ere onak direla uste dute. Jaietan egon den giroari 7,49ko puntuazioa eman diote erantzun dutenek; plazako musikari 6,41; gazteendako egon den eskaintzari 7; eta elgetarren parte hartzeari 6,41. "Iaz, gaizki baloratuak izan ziren, baina jendeak aurtan faltan igarri ditu kuadrillen arteko jolasak. Plazako musikarekin, denetik dago.

Batzuek eskatzen dute barietate handiagoa eta talde hobeak ekartzeko eta beste batzuek nahi dute gaueko kontzertuak kentzea eta egunez txaranga eta elektrotxaranga gehiago ipintzea", azaldu du alkateak. Herri bazkarian saiheskia amaitu izana hobetu beharrekoen artean dagoela esan du. Sokamuturrak, berriz, aldeko eta kontrako iritziak jasotzen ditu, Lazkanoren esanetan, antzerako kopuruetan: "50 erantzunetik zazpi bat. Feria kentzeko proposamena ere jaso dugu hiruzpalau aldiz".

Oxido kuprosoa botatzen ari dira hainbat pinuditan

Hasita daude Elgetan ere pinudietako banda marroiaren eta gorriaren kontrako tratamenduak erabiltzen. Legezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako baimenarekin oxido kuprosoa erabiltzea, baina baldintza jakin batzuk bete behar dira: lurretik eta herrigune zein ur ibilguetatik ehun metrora botatzea, gutxienez, eta euririk ari ez duenean eta haize gutxi dabilenean izatea.

Kanpanzarko errepidean zein Eguzkitzatik Egoarbitzara doan bidean ikusi dira tratamendua botatzeko ibilgailuak azken asteotan. "Badakigu botatzen ari direla, baina udal moduan ez dugu komunikaziorik jaso", esan du alkateak.

OHARRAK

Baserritarren azoka

Irailaren 21ean izango da aurtun Elgetako baserritarren azoka. Bertan postua ipini nahi duten ekoizleek irailaren 16ko 12:30ak arte dute udaletxean izena emateko. Egunean bertan bazkari bana ordainduko die Udalak.

Abuztuko ordutegiak

Herriko saltokiek eta zerbitzuek abuztuan izango duten ordutegia ikusgai dago *Elgeta.eus* eta *Goiena.eus/elgeta* webguneetan.

Udal osoko bilkura

Elgetako udalbatzak martitzenean, hilak 30, egingo du uztailako osoko bilkura. 19:00etan izango du hasiera.

Nobelako bizimodua, komiki eginda

Zortzi orri ditu *Sasi artean Elgeta* saileko lehen atalak eta sei izango ditu urrikoak. Intxuzabal baserria agertu da ekaineko zenbakian eta gaztetxo Jacinto Rivas *Elgeta*. Urriko argitalpenean, berriz, trikiti eskolak ematen azalduko da, besteak beste.

Harpidetza bidez eskura daiteke *Xabiroi* aldizkaria *Xabiroi.eus* atari digitalean.



Elgeta, soinu berria asmatzen, bi ikasle begira dituela. 'XABIROI' ALDIZKARIA



Udalekuetako neska-mutikoez gurasoendako egindako zirku emanaldiaren ostean ateratako talde argazkia. L.Z.L.

Zirku emanaldiarekin agurtu dituzte udalekuak

Askotariko abileziak dituzte Elgetako neska-mutikoez, eta, uztailako aisialdi eskaintzari amaiera emateko, ikuskizuna egin zuten eguaztenean. Dantzariak, abeslariak, bi hankako lehoiak, magoak eta bihurrikariak nabarmendu ziren, besteak beste

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA Ekainaren 24an hasita, bost astez izan dira udalekuak Elgetan. Beti batera egon ez badira ere, 86 neska-mutikok hartu dute parte, eta askotariko ekintzak egin dituzte sei hezitzailearen gidaritzapean. Eguaztenean egin zuten amaiera ekitaldia, eta zirku emanaldia egin zuten gu-

rasoendako eta senitartekoen-dako. Nork bere onena eman zuen eta txalo ugari jaso zituzten.

Txangoak eta horma-irudiak Aire zabalean egin dituzte ekintza gehienak, eta herrigunetik kanpo dauden Elgetako hainbat txokotara ere heldu dira. Herri kirolak, ginkanak, henna tatua-

jeak eta bi horma-irudi egin dituzte, besteak beste. Bata eskolako ganbaran egin dute eta bestea, Domingo Iturbe kaleko hondakin-gunean. Amaitu dira udalekuak, eta abuztua gelditzen da oraindik ere aisialdiaz gozatzeko. Udalak, orain, gogobetetasun inkesta bidaliko die familiei, zerbitzua balora dezaten.

Bost asteko egitaraua izan dute



Arantzeta auzora egindako txangoa. ELGETAKO UDALEKUAK

Txangoak Asentziora eta Arantzetara hainbat txango egin dituzte udalekuetan. Antzuolako ur txorrotetara ere egin zuten irteera, eta, jaiak zirela kontuan izanda, puzgarrietan ere ibili ziren elgetarrak.



Umeak ur putzuetan jolasean. AITOR AGIRIANO

Ur jolasak Udalekuetako neska-mutikoez hainbat egunez izan dituzte ur putzuak aurten. Ur jolasek eta zikin jolasek ere arrakasta polita izan dute.



KANTSATZEKE MENDI TALDEA

Hurrengo mendi irteera, irailean

Biriatu ingurura egin zuen uda aurreko azken irteera Kantsatzeke Mendi Taldeak. Manddale eta Xoldokogaina ezagutu zituzten, besteak beste. Abuztuan ez dute mendi irteerarik egingo eta irailerako iragarri dute hurrengoak. Gauzak ondo bidean, Urkiolako parke naturalean dauden Larrano eta Artolako lepoa izango dituzte helmuga irailearen 22an.



INTXORTAKO LEHOIAK

Intxortako Lehoiak, Palentzian

Zapatuan, egun osoko senidetze festa egin zuten Sardaña herriko Guardo lagunarteko kideek eta Intxortako Lehoiak taldeko dozena bat lagunek. "Ehun bat zale elkartu ginen. Guardoren egoitza bisitatu genuen eta mus, tute eta areto futbol txapelketak jokatu genituen. Hurrengo urtean, berriz elkartuko gara", adierazi dute Elgetatik joandakoek.

Martxan dira hiru baserri-bide konpontzeko lanak

Hainbat baserri-bide konpontzen dihardute azken asteotan. Baserriarren batzordeko buru Sebastian Arantzabalek jakinarazi du Txulokua baserriak Aiolatik duen sarrerako bidean lanak egin dituztela. Aurrekontua 5.723,30 euro da, eta Foru Aldundiak hartuko du bere gain %60. "San Antonio baserri inguruan apurtutako zatiak konpondu dira, eta aurrekontua 3.267 euro da, guztia Udalaren kontu". Zalbide baserriko bidean ere lanak egin behar direla aurreratu du. Pinua ateratzeko lanak bukatutakoan egingo dituzte. Kasu honetan ere, Udalak egingo du inbertsio guztia: 10.055 euro, hain zuzen ere.



Herriko jaietako hasiera ofiziala emateko ikurrin dantza, Oinarin taldearen eskutik. ARGAZKIAK: AITOR AGIRIANO

Jai oso parte hartzaileak eta alaiak aurten

Lau egunez jai giro aparta eduki dute antzuolarrek. Eguraldia ere lagun izan dute eta jende ugari ibili da kalean barrena. Udal ordezkariak eta jai batzordeko kideak aho batez azpimarratu dute jai oso parte hartzaileak izan direla aurtengoak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aho zapore ona utzi dute Antzuolako jaiak. "Ondo joan dira eta ez da aparteko arazorik izan. Jendea ibili da, gainera", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak. "Oso jai alaiak eta parte hartzaileak izan dira. Oso pozik eta inpresio onarekin gaude", esan du Kultura teknikari Jone Larrañagak.

Ekitaldi nagusia, Mairuaren Alardea, primeran joan zen, eta gustura zeuden parte hartzaileak zein antolatzaileak amaieran.

Hamar urte bete dira Antzuolako Mairuaren Alardea berriren zenetik, eta mugari garrantzitsuak izan dira. Horietako bat izan da emakume bat izatea kapitain lanetan. Hala, Edurne Iturberen agindupean egin zituzten Alardeko joan-etorriak eta deskargak, zapatuan.

Horren harira, Antzuolako Mairuaren Alardea bertatik bertara ikusten izan dira Irungo alarde parekideko ordezkariak eta Hondarribiko Jaizkibel konpainiako kideak.

Hainbat aitortza

Herriaren izenean, alkateak eta Mairuaren Alardea Elkarteko presidente Xabier Legorburuk Jesus Agirre eta Juan Tomas Zabalo omendu zituzten. Juan Tomas Zabaloren alargun Mariasun Narbaizak jaso zuen abesbatza urteetan egindako lanagatik herriak senarrari eskainitako oroigarria. Agirrek, berriz, alardea antolatzen egindako lanagatik. Oroigarria Pili Arinek akuarelaz egindako alardearen erreproduktzio bat da.



Kuadrillen arteko jolasak, Zurrategin.



Zapia herriko jaiaberri eta nagusiak.



Edurne Iturbe, Alardeko kapitaina.



Domekan, herri bazkari jendetsua.



Udalbatza berriaren lehen dantza saioa.



Tio Teronen Semeak taldearen ikuskizuna, plazan.



Jesus Agirrerri aitortza.



Eskolako patioan haur-jolas parkea, gainezka.



Huntza taldearen emanaldiaz gozatzen egunka lagun.



Gastronomia lehiaketan, neska kuadrilla bat pasta prestatzen.

Torresorua konpontzeko lanak asteon hasi dira

Uztailen hainbat lan potolo abiatuko dira Antzuolan: Herri Eskola handitzeko lanak hilaren 29an eta Antiguako errotako presa berregiteko lanak uztailko azken astean. Torresorua konpontzeko lanak, ordea, hasi dira, baina abuztuan etenaldia izango dute

Maidar Arregi ANTZUOLA

Eguaztenean hasi zituzten Torresorua aretoa konpontzeko eta berregiteko lanak. "Abuztuan gelditu egingo da obra eta irail hasieran berriz hasiko da", argitu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek.

Behin lanak abiatuta, bi hilabeteko epean egin beharko dira eta udazkenerako amaituta egon beharko dute. Torresorua berri-
tuak, baina, izango ditu hobe-
kuntzak: sarrerako bigarren
atea automatikoa izango da;
gizarte laguntzailearen inguru-
ko segurtasun kontuak direla-eta
kamera jarriko da; ikasteko gune

Eztalako obra, neguan

Ikasturte berrian zehar jarraipena izango dute, noski, Torresorua aretoko eta Herri Eskolako obrek; neguan, baina, beste bat hasiko da: Eztalako aldagela berriak egiteko lanak. Azaroan hasia bazen ere asmoa, neguan hasiko dira eta 2020/2021eko denboraldirako gertu egongo dira lau aldagelak.

berria sortzeko ate bat aterako da; eta kanpoaldea margotuko da, besteak beste.

Bestetik, Hezkuntza Sailaren arabera, uztailaren 29an hasiko dela eskolako obra handia.

Antiguako errotako presa

Urtebete pasatxoaren ostean, uztailen egingo da Antiguako errotako presa konpontzeko obra. "Jaurlaritzako Ura Departamentuak baimena eman digu eta baldintza da uztailen egitea obra. Echaide enpresak egingo du. Datorren astean hasiko dira lanean, eta obra motza izango da", argitu du Moñuxek.

Abuztuan ere elkartasunez bustiko dira antzuolarrak

Kongoko eta Senegalgo proiektuei laguntzeko, sardina-jana egingo dute, urtero legez, abuztuan

Maidar Arregi ANTZUOLA

Abuztuan herrian geratzen diren antzuolarrendako ezinbesteko festa bilakatu da San Bartolome eguneko. Hala, abuztuaren 24an, sardina-jan solidarioa egingo dute plazako errekararen alboan, 12:00etan.

Herritarren borondatez batzen den dirua Anelkarrek Kongon eta Senegalen dituen hezkuntza proiektuak bultzatzen jarraitze-ko izango da.

Urtetik urtera goraka doan festa bilakatu da. Orain dela hiru urte, 13 kilo sardina erre zituzten; orain dela bi, 17,5 kilo; eta iaz, aldiz, 18 kilo.

Elkartasun Festa

Eta helburu berak lortzeko eta sustatzeko asmoz, Elkartasun Festa egingo du aurten ere Anelkarrek. Abuztuaren 30ean, egubakoitzan, egingo du -Zurrategi



Sardinak erretzen. GOIENA

plazan, 19:30ean hasita-. Oporren osteko data esanguratsua bilakatu da antzuolarrendako, eta aurten ere askotariko pintxo eta edariak izango dira protagonista. Eta, nola ez, baita ere herritarrek eginiko tortilla solidarioak.

Udal zerbitzuak normaltasunez abuztuan

Udal zerbitzuek abuztuan ez dute aparteko aldaketarik, eta ez dute etenaldirik egingo. Hala, udal bulegoak 08:00etatik 14:00etara irekita egongo dira -asteleheneretik egubakoitzera, ohi bezala-. Abuztuaren 15ean eta 16an, ordea, zubia dela-eta udaletxea itxita egongo da.

"Eguneroko garbiketa zerbitzua, publikorako harrera eta herritarrendako zerbitzu minimo horiek abuztuko egun guztietan egongo dira. Abuztuan ez du Udalak etenaldirik egiten", argitu du Beñardo Kortabarria alkateak.

Liburutegia, aldiz, itxita egongo da abuztuan eta iraileko lehen astean irekiko dute.

Sagasti auzoko ur-jolas parkea, berriz, irekita egongo da normaltasun osoz abuztuan, neska-mutikoen gozamenerako: 10:00etatik 20:00etara bitartean, hain zuzen ere. Eskolako patioa eta Udal Pilotalekua ere zabalik egongo dira herritarrendako.

Kiroldegia lehenengo, eta Olaitturri ondoren

Epe motzean izango diren proiektuak egiteko, hamaika milioi euroko mailegua eskatuko du Oñatiko Udalak, dena batera, hamabost milioi eta erdiko inbertsioak egiteko. Horrek herria zertan baldintzatuko duen ez dute berdin ikusten bi alderdiek

Oihana Elortza OÑATI

Datozen hiru urteetan herrian egingo dituzten inbertsioen berrantolaketa egitea onartu du udalbatzak uztailako osoko bilkuran, eta inbertsio horien artean lehentasuna Zubiko kiroldegia handitzeko eta eraberritzeko lehen faseko lanei eman.

Hiru urterako

Kiroldegiko proiektua egiteko, mailegua eskatu behar du Oñatiko Udalak. 2019ko aurrekontuetan hori egitea aurreikusita zegoen. Araudi ezberdinak tarteko, Foru Aldundiaren eta Udaleko kontu-hartzailearen gomendioei jarraituz, mailegu hori zatika edo urteka eskatu beharrean, dena batera eskatuko dute orain: hamaika milioi euro, guztira. Horietatik hiru Udala %81ean jabe den Ur Jauziak enpresari eskatuko dizkio eta beste zortzi eskaintza onena egiten dion herriko banketxeari. Asmoa da hamabost urtean



Olaitturriko proiektua egin gura den espazioa. O.E.

buelatatzea diru hori. Datozen hiru urteetan egingo diren inbertsioei aurre egiteko da mailegu hori, ez bakarrik kiroldegi berriko gastuak ordaintzeko. Izan ere, Udal Gobernuak datozen hiru urteetan 15,5 milioi euro

inbertituko dituela aurreikusi du. Lehentasuna, baina, kiroldegiaren handitze eta eraberritze proiektuaren lehen faseak izango du. Horrekin bukatu arte ez dira Olaitturriko proiektuarekin hasiko. "Uste dugu eraikin

horrek –zortzi milioi euroko inbertsioa– baliabide tekniko eta pertsonal handiak eskatuko dizkigula buru-belarri lan egiteko, proiektua garaiz eta ondo atera dadin. Hala ere, hurrengo bi urteetarako, urteko beste milioi bat aurreikusi ditugu inbertsioetarako, eta, egoera ekonomikoa orain arteko bidetik badoa, partida berriak gehituko ditugu", adierazi du Ogasuneko batzordeburuak, Xabier Igartuak.

Egoera ekonomikoa

EAJrendako ere "estrategikoa" da kiroldegiaren proiektua, eta, horregatik, aldeko botoa eman dio inbertsioak berrantolatzeke proposamenari. Baina gauzak ez ditu EH Bilduk beste argi ikusten. Ainhoa Galdos jeltzaleen bozeramaileak adierazi zuen Udalaren egoera ekonomikoa "kezagarria" dela aurreko legegaldiko Udal Gobernuak, kiroldegiko proiektuari dagokionez, egin zuen "kudeaketa txarraren-gatik". Gaineratu zuen ez dagoe la gerakinik eta "ondorengo urteetan Udala hipotekatu" egin beharko dela. Herritarrei ez zaiela egia esan ere esan zuen Galdosek, eta ez dela plan finantzariorik egin. EH Bilduren ustez, baina, azken zortzi urteetan Udalaren zorra "ia ezerezera" murriztu da, eta, "zorionez, egoera ekonomikoa on baten" daude inbertsio horri aurre egiteko. Proposamena aho batez onartu izana pozik hartu du Gobernuak.

Zinegotzi liberatuak eta soldatak

Alkatea, Iزارo Elorza, da %100ean liberatuta egongo den udal ordezkari bakarra; 3.480,7 euroko soldata gordina kobratuko du hilean (48.729,8 urtean), Mikel Biainek (53.159 urtean) baino %8,33 gutxiago urtean. Alkateaz gain, Udal Gobernuak beste hiru egongo dira liberatuta: Xabier Igartua %50ean (1.341,68 euro), Anik Zubizarreta %60an (1.610,016 euro) eta Iñaki Olalde %30ean (805 euro). Bosgarren liberatua EAJko udal bozeramaileak, Ainhoa Galdos, izango da, %60an (1.449,02).

Zinegotzien bertaratzeei dagokionez, aldaketa izan da. Ekaineko osoko bilkuran, asistentziak ez kobratzea onartu zuten alderdi biek, baina zinegotzi jeltzaleek kobratzea eskatu dute, eta honela egingo dute: 214,14 euro zinegotziko eta hileko. EH Bilduk uko egin dio. "Herrigintzan dihardutenek ez dute kobratzen eta Udala herrigintza dela ulertzen dugu", azaldu du Elorzak.

Meza eta erromeria bakarrik egingo dituzte Urbiako jaian

Zalduondotik doan errepidea itxi egin du hango Udalak, "egoera txarrean" dagoelako, eta ezingo da autoz igo

O.E. OÑATI

Uztailako azken egunean, 31n, San Inazio egunean, ospatu ohi da urtero Urbiako jaia, eta aurtengo ere egingo da, baina aldaketak egongo dira eta aurreko urteetan baino ekitaldi gutxiago antolatuko dituzte.

Meza eta erromeria

Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoak jakinarazi duen moduan, Urbiara igotzeko erabiltzen den Arabako Zumarraundi ize nez ezagutzen den bidea ixteko erabakia hartu du Zalduondoko

Udalak, errepidearen egoera txarra argudiatuz, eta, ondorioz, aurtengo ezingo da ibilgailuz igo.

Gauzak horrela, aurtengo ez da ez herri kiroltik ezta artzain txakur txapelketarik egingo. Meza eta Fondak antolatzen duen erromeria bakarrik egingo dira. Bazkalaurtean eta ostean egingo den erromerian, Miren, Agur eta Maider trikitilariak izango dira. Meza 11:30ean hasiko da.

Jaieguna izanik, Oñatitik Arantzazurako autobus zerbitzua egongo da egun horretan Urbiara joan gura duenak erabiltzeko.

Domekan askatuko dute Xabier Ugarte preso oñatiarra

Domekan, hilak 28, utziko dute aske Xabier Ugarte euskal preso oñatiarra. Salamancan dagoen Topas espetxetik goizean atera eta Oñatira arratsaldean iritsiko dela espero dute.

Xabier Ugarte 1997ko uztailaren lehen atxilotu zuten, Arrasaten, Ortega Lara espetxe funtzionarioa askatzeko egin zuten polizia operazioan. Ortega Lara eta Julio Iglesias Zamora enpresariaren bahiketak, talde armatuko kide izan eta armak eta lehergailuak izatea leporatuta epaitu eta zigortu zuten Ugarte. 22 urte egin ditu preso, guztira, Madrilgo, Pontevedrako eta Salamancako espetxe ezberdinetan.

GORA ETA BEHERA



Beste batzuek botatako zaborra jasotzen

Horretan ibili da uztailako bigarren astean 13-14 urteko gaztetxo kuadrilla bat, beste batzuek botatako zaborra lurretik jasotzen. Ugarkalden eta Usakon aritu dira eta poltsa bat baino gehiago bete dituzte. Txaloak gaztetxoei eta txistuak zikinak lurrera bota dituztenei.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



'Parkour'-arekin, osatuta Ibarako aisialdigunea

Dagoeneko erabilgarri dago Ibarren egokitu duten 'parkour' txokoa, eta, hala, han gaztetxoendako prestatu den abenturarako eta aisialdirako gunea bukatuta gelditu da. Herriko gaztetxoek eskatu, diseinatu eta muntatzen lagundu dute

Oihana Elortza OÑATI

Skate pista lehenengo, tirolinetan botatzeko instalazioa ondoren, eta, bukatzeko, *parkour* gunea. Trenaren lokomotor ondoan jarritako ping-pong eta xake mahai banarekin, osatuta gelditu da Ibarren gaztetxoendako egindako abenturarako eta aisialdirako espazioa.

Akrobazia urbanoak

Herriko gazteek *Arazerixan* aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan proposatu zuten *parkour* gunea bat egitea Oñatin. Egun, bertako gazteek ez ezik, inguruko herrietakoek ere erabiltzen dute; Arrasateko hainbatek, esaterako. Autobusean etortzen dira Oñatira eta saltoak eta akrobaziak egiten disfrutatu ondoren bueltatzen dira etxera.

Mohamed Amine Mchichou eta Unai Tijera oñatiarrak ere gune horretako ohiko erabiltzaileak dira. Jatorria Frantzia duen kirol honen berri sare sozialen bitartez heldu zitzaielela diote biek. "Leku batetik bestera ahalik eta denbora gutxien heltzeko akrobazia eta irudimena erabiltzea da *parkour*-a. Askorendako, arriskuatsuak dirudite egiten ditugun saltoek, baina entrenatzea da gakoa. Oinarritik hasi eta asko entrenatzea. Indarra eta bizkortasuna, biak lortzen dituzu horrela. Duela hiru urte hasi nintzen ni eta orain arte egin dudana gauza zailena da bospasei metroko saltoa, pisu bateko altueran, eta prezisioa", dio Mchichouk. Unai Tijera ere bat dator berarekin, eta segurtasuna entrenamenduak ematen duela dio: "Pertsona batek burua erabili behar du minik ez hartzeko, kontuz ibili behar du. Gune hau oso ondo dago entrenatzeko, saltoak egiteko. Lurra biguna da, erorketak hain gorrak ez izateko. Beste herri batzuetara ere joaten gara,



Bi gaztetxo oñatiar Ibarren dagoen *parkour* gunean. MIREIA BIKUÑA

batzuetan, baina entrenatzeko oso gune aproposa da hau".

Elementu ezberdinak

Herrian horrelako gune bat egiteko proposamena egin bai, baina diseinuan eta muntaketa


lanetan ere parte hartu dute herriko gazteek. Barrak dituen egitura bat eta tamaina askotariko kubo nahiz prismak daude jarrita, *parkour*-a egoki egiteko beharrezko distantzietara kolokatu.

Parkour gunearen erabiltzaileak



UNAI TIJERA
OÑATIARRA

"Gustura nago gunearekin. Garrantzitsua da piezak, paretak, egonkorak izatea, saltoak egiterakoan ez mugitzeko. Hauek oso aproposak dira saltoak nola egin entrenatzeko. Diziiplina eskatzen du kirol honek eta bakoitzak ahal duen dena eman behar du hobetzeko".



MOHAMED AMINE MCHICHOU
OÑATIARRA

"Duela hiru urte hasi nintzen kirol hau egiten. Ikasturtean zehar gutxiagotan egiten dut, eskolako kontuak direla eta, baina orain, oporretan, topera nabil. Kirol honetan norberaren gorputza da tresna bakarra, indarra behar da, eta hori entrenatzen lortzen da. Baita bizkortasuna ere".

Gaztetxean egongo da Kubako kontsulatu ibiltaria gaur eta bihar

Datorren urtean Bilbon egingo den Espainiako Estatuko kubatarren topaketarako dei ere egingo du Acesmak

O.E. OÑATI

Uztailaren 26a da gaur, eta Kuban jaiegun handia dute, gaurko egunez hartu zutelako Moncadako kuartela, eta Kubako iraultzaren txinparta piztu. 66 urte pasa dira, eta kubatarrek iraultzaren ikur gisa dute oraindik uztailaren 26a. Eta hori ospatzeko ekitaldi bereziak egingo dituzte Antixena gaztetxean, Acesma elkarteak antolatuta.

Batetik, gaur eta bihar, gaztetxean egongo da Kubako kontsulatu ibiltaria. Bertan, kubatarrek eta euren senideek ad-

ministrazio kontuak bideratu ahaliko dituzte, Madrilera joan beharrik ez izateko. Gaur, egubakoitza, 15:00etatik 20:00etara eskainiko du zerbitzua kontsulatuak eta bihar, 10:00etatik 13:00etara. Ondoren, bazkaria eta kontzertua egongo dira: Son LT taldeak joko du.

Bestetik, datorren urtean Bilbon egingo dute Espainiako Estatuko kubatar guztien VI. topaketa, eta Euskal Herrian bizi diren kubatarrek izango dute antolatzeke ardura. Hara joateko dei ere egingo dute.

San Lorentzoko jaiak bi asteburutan ospatuko dituzte

San Lorentzo auzoko jaiak bi asteburutan ospatuko dituzte aurten: abuztuaren 2etik 4ra bitartean eta abuztuaren 10ean eta 11n. Potx eta Lotx pailazoak, Cronopios, Letagin eta Revertt taldeen kontzertua, auzo bazkaria, txirlo, pilota eta mus txapelketak eta bertsolariak egongo dira, besteak beste. Bazkaria Larraín Gainen izango da.

OHARRAK

Errepidea, itxita

Bihar, zapatua, Udanako auto igoera egingo da, eta, ondorioz Olabarrietatik Legazpirako bidea itxita egongo da, 12:00etatik 21:00etara.

Argia kendu

Abuztuaren 8an, herri guztian kenduko dute argia, 15:00etatik 19:00etara. Oñargik urteko azterketa egingo du argindar lineetan.



NIRE USTEZ

ESTEBAN IRUSTA

Zuhaitzak

Euskal Herri ia osoan, zuhaitzez inguratuta bizi gara. Horregatik, beharbada, ez ditugu behar beste baloratzen. Historikoki, behar-beharrezkoak izan dira gizakiontzat. Horien zurarekin etxebizitzak, itsasontziak eta zernahi tresna egin dira; eta sua egiteko. Garai bateko baserritarrek beste helburu batzuetarako ere erabiltzen zituzten. Baserriek zuhaitzen laguntza -arteak, gehienbat- izaten zuten haize boladez defenditzeko eta beren ezkurak janari izateko. Intxaurrenondok inguruan landatzen zituzten. Gereziendokak eta pikondok ez ziren oso urruti izaten. Hurritzak nonahi aurkitzen ziren. Beste arbolak, ahaztu ezinak, pagoak, haritzak eta gaztainondok ziren. Azken horiek, gaixotasun baten ondorioz, aspaldi desagertu ziren. Zuhaitzek ematen diguten oxigeno eta freskotasunaz, xurgatzen duten oxido karbono eta beste toxikoak, eta ingurua edertzen dutenaz, ez da samurra ulertzea, han eta hemen, herri barruetan egiten diren mozketak eta inausketak batzuk. Herrien eta hirien alde ederrenak zuhaitzez inguratuak diren lekuko, hor ditugu aberatsen jauregiak.



Enaitz Sagasta eta Josune Odriozola, joan den asteburuan Tarragonan, Espainiako Txapelketan. ALOÑA MENDI

Denborak jaisteko gogoz doaz Espainiakoetara

Enaitz Sagasta joan den asteburuan lehiatu zen eta denborak hobetu zituen. Kepa Aldekoa eta Ane Madina, berriz, gaur doaz Bartzelonara, zapatuan, domekan eta astelehenean igeri egiteko. Josune Odriozola entrenatzailea ere eurekin doa

Oihana Elortza OÑATI

Katalunian ari dira egiten igeriketako Espainiako Txapelketak eta han izango dira Aloña Mendiko hainbat igerilari. Enaitz Sagasta, esaterako, Tarragonan izan zen joan den asteburuan eta Kepa Aldekoa eta Ane Madina doaz, oraingoan, Bartzelonara. Josune Odriozola entrenatzailea ere eurekin egon eta egongo da. "Proba ezberdinetan hartuko dute parte, eta denborak jaistea ederra izango litzateke, baina disfrutatzeke asteburu ere bada: beste toki baten, maila handiko beste igerilariekin batera lehiatzen... Sekulako lana egin dute hona heltzeko, eta zoriondu egin behar ditugu horregatik bakarrik. Ondo pasatzeko asmoarekin goaz denok", dio Odriozolak.

Ilusioa

Kepa Aldekoak, esaterako, 100 eta 200 metroko probetan hartuko du parte, bietan bizkar estiloan. Lehen aldiz hartuko

du parte Espainiako txapelketan. "Pozik nago hara joatea lortu dudalako. Badut gogoa Bartzelonara joan eta hango igerilekuan igeri egiteko". Gogotsu dago Ane Madina ere: "Niretzat ere, lehenengo aldia da; urduri samar nago, eta horrek badu bere pisua nigan. Ea aurreko egunetan ondo lo egiten dudana". 50 metro estilo librean eta 100 metro bizkar estiloan egingo ditu Madinak.

Gaztetxoan mailan lehiatuko dira Kepa Aldekoa eta Ane Madina, Aloña Mendi elkartearen ordezkariak. Enaitz Sagastak gauza bera egin zuen aurreko asteburuan alebinen mailan. "Oso pozik bueltatu naiz. 100 metrokoan segundo bat hobetu dut denbora eta 200 metrokoan,

**ALOÑA MENDI
ORDEZKATUZ EGINGO
DUTE IGERI ALDEKOAK
ETA MADINAK
BARTZELONAN**

hiru. Hutsagatik, 50 segundo-hamarrenetara gelditu naiz hurrengo urteko Espainiako Txapelketan parte hartzeko txartel zuzena lortzetik. Urte osoa dut orain gutxieneko hori egiteko, eta uste dut lortuko dudala", dio Sagastak.

Opor gosez

Espainiako Txapelketarako sailkatzeak denboraldia luzatzea ekarri die hiru igerilari hauei, eta oporrak berandu hartzea. Hilabete honetan, uztailan, entrenamenduak izan dituzte, Espainiakoak prestatzeko. "Especifikoki izan dira. Ea zernolako emaitzak lortzen ditugun asteburuan. Hala ere, asteburu ona pasatzeko asmoarekin goaz, esperientziak gozatzerat", dio entrenatzaileak. Zapatuan, domekan eta astelehenean dira probak, eta gaur, egubakoitza, doaz, trenez, Bartzelonara, Aldekoa, Madina, euren senideak eta Odriozola. Denboraldi berria irailaren hasieran hasiko dute.

130ek baino gehiagok dute izena emanda mendi martxan

Irailaren 14an izango da Oñatiko V. mendi martxa eta aurtengoan ere ibilbide luzea eta motza egongo dira

O.E. OÑATI

Bosgarren urtez egingo dute, aurtun, Oñatiko mendi martxa eta dagoeneko 130 lagunek baino gehiagok eman dute izena parte hartzeko.

Aurtun ere bi ibilbide egongo dira: luzea (32,5 kilometro) eta motza (22,2 kilometro). Beste behin, Oñatiko lurretan egingo diren ibilbideak izango dira, bakoitzak bere martxan, lehia izan barik.

Kamiseta opari

Aurtengo ediziorako opari berezia prestatu dute mendi martxako antolatzaileek parte hartuko duten mendizaleendako: kamiseta tekniko bat. Kamiseta ziurtatzeko, baina, abuztuaren 23a aurretik eman behar da izena, antolatzaileek denbora izan dezaten eskatutako adina kamiseta ateratzeko, inor barik gel-



Joan den urteko mendi martxan. GOIENA

ditu ez dadin. Izena emateko bideak bi dira: Internet bidez www.kirolprobak.com webgunean edo herriko Aloña eta Itturri tabernetan. Prezioak dira: 12 euro federatuek eta 14 euro federatu gabek, aurrez; egunean bertan, bi euro gehiago.

Kiroldegiko taberna eta zelaia itxita abuztuaren 1etik

Abuztuaren 1ean hasiko dituzte Zubikoa kiroldegia handitzeko eta eraberritzeko lehen faseko lanak eta egun horretatik aurrera itxita egongo dira taberna eta igerilekuen ondoan dagoen belardia.

Lan horiek egiteko, kiroldegi inguruko aparkaleku batzuk ere libre utzi behar dira, materiala sartu eta kamioiak sartu eta

irten ibiltzeko. Astelehenean, uztailak 29, libre utzi beharko dira aparkaleku hauek: osasun zentrokoan lau plaza eta Bidebarrieta kalean, azoka ondoko biribilgunetik Zurrust tabernarako tartean, kiroldegiko pare-taren aldamenean dauden aparkaleku guztiak. Obrak kiroldegi kanpotik hasiko dituzte eta urtarrilera arte ez diete igerilekuei eragingo; ordura arte, zabalik egongo da eremu hori. Abuztuan, itxita egongo da kiroldegia jaiegunetan.

Parapenteek lur hartzeko tokia prest dago Berezaon

Berezaon auzoan egokitu dute lursail bat parapenteek lur hartzeko. Amillenak, Debagoieneko aire kirol taldeak, egin zion eskaera Oñatiko Udalari. Udal ordezkariak Zelabarren baserriko jabeekin jarri ziren harremanetan aukera aztertzeko, eta akordioa egin dute baserriarrek, uda sasoiaren, lur zati bat uzteko parapente-zaleek erabil dezaten.

Futbol taldea abuztuaren 14an hasiko da lanean

Abuztuaren 14an hasiko ditu entrenamendu saioak Aloña Mendiko futbol talde nagusiak, Endika Ruiz en esanetara. Liga denboraldi berria irailaren 15ean hasiko dute, baina, aurretik, lagunarteko partiduak jokatuko dituzte, Donezteberen, Bergararen, Lekeitiorren eta Elorrioren kontra. Azken hori, Jose Luis Agirreren omenezkoa.

Sorpresaz beteriko komunitate-antzerkia

Bridges Nazioarteko Antzerki Egoitzak mundu osotik etorritako eta diziplina ezberdinetako hogeit hamar artista batu ditu. Hamar egunez aritu dira komunitate-antzerkia lantzen eta ikuskizuna plazan erakutsiko dute hilaren 28an, domekan, 19:00etan

Maialen Regueiro OÑATI

Eltziak mundu osotik etorritako eta diziplina askotariko hogeit hamar artista batu ditu egun hauetan, Bridges Nazioarteko Antzerki Egoitza dela eta. Italiako Residui Teatro da egitasmo honen antolatzailea, eta, orain arte Italian eta Frantzia aritu badira ere, oraingoan, Oñatin eskainiko dute "komunitate-antzerkia". Hori domekan izango da, herriko plazan, 19:00etan, eta, Resui Teatroko zuzendari Gregorio Amicuziren esanetan, "sorpresaz beteriko ekitaldia" izango da.

Hitzarmena Udalarekin

Oñatiko Udalak proiektu honetan parte hartzen dihardu, asteen egindako aurkezpenen azaldu dutenez. Izan ere, domekako emanaldia oñatiar jatorria duen Ilargi Zabaleta aktorearen bitartez egin dute; bera izan zen, hain zuzen, duela sei hilabete Udalari proiektua aurkeztu ziona, German Meabebasterretxea Kultura teknikariaren esanetan.

Meabebasterretxeak, gainera, proiektu hau aurrera eramateko hitzarmen bat sinatu dutela adierazi zuen aurkezpenen: "Proiektua aztertu eta harekin bat egitea erabaki genuen. Horregatik, hitzarmen baten bidez, Udalak dirua jarri du". Inaki Olalde Kultura zinegotzia ere aurkezpenen izan zen eta pozik azaldu zen Brigdes proiektuak Italia eta Frantziaren ostean Oñatin geldialdia egin izanagatik: "Hainbeste nazioarteko aktore herrian izatea garrantzitsua da. Horrek esan nahi du, gainera, aurretik herrian ditugun baliabideak eta inguruak ikusi dituztela eta proiektu hau hemen egitea apropostzat jo dutela".

DANTZA ETA KANTU TRADIZIONALAK IZANGO DIRA DOMEKAN, HERRIKO PLAZAN, 19:00ETAN

Gaurko eta biharko hitzorduak

Gaur, 20:00etan hasita, *Apuntes sobre la felicidad* ikuskizuna izango da, Santa Ana aretoan, eta 22:00etan, elkartruke saioa egingo dute Pako tabernan. Bihar, berriz, 13:30ean, Oñatin bizi diren kubatarrek antolatutako bazkaria izango da, eta, ondoren, elkartruke ikuskizuna egingo dute gaztetxean.

Domekako ikuskizuna

Domekako emanaldian, herriko hainbat eragilek ere parte hartuko dute, Amicuzik azaldu zuenez: "Swing taldea, saharar erakundea, bertsolari bat eta Creciendo Con Arte taldea ari tuko dira, besteak beste. Guztien artean, komunitate-antzerkia osatuko dugu, antzerkia berezko erakundeetatik atzeratzeko helburua duena". Dantza eta kantu tradizionalak ikusteko aukera izango da, eta, asteen egindako aurkezpenen, herri-tarrei dei egin diete ikuskizuna ikustera joan daitezen.

"Antzuolatik ere etortzen da jendea Lizargarate egunera"

ALAZNE AYERBE LIZARGARATE TRIKITIZALE ELKARTEA Lizargarateko eguna abuztuaren 25ean izango da

M.R. OÑATI

Urtero bezala, abuztuko azken igandean, Lizargarate eguna izaten da. Aurten, abuztuaren 25ean izango da. Alazne Ayerbe Lizargarate Trikitizale Elkarte-ko kide da eta hitzordu honen xehetasunak eman ditu.

Lizargarate egunak jende asko erakartzen du?

Bai. Bazkaltzeko 160 lagun elkartzen gara, baina, horiez gain, jende gehiago izaten da Lizargaraten. Adin guztietako herri-tarrak elkartzen gara, eta ez oñatiarrak bakarrik; Antzuolatik ere etortzen da jendea, esate baterako.

Abuztuaren 25ean, jendea oporretatik bueltan izango da dagoeneko.

Hori da, hain zuzen, jai hau abuztuko azken domekan egitearen arrazoia. Normalean, garai horretarako, gehienok oporretatik bueltatu gara.

Noiztik egiten da jai hau Lizargaraten?

Garai batean, jai hau Asaldittan egiten zen, eta, Lizargarate Trikitizale Elkarte sortu zenean, jai berreskuratzeari erabaki zuten eta Lizargarate horretarako leku aproposa zela pentsatu zuten.



Alazne Ayerbe trikitiarekin. ALAZNE AYERBE

Lizargarate eguna elkarlanean antolatzen duzue.

Lizargarate elkarteak eta guk elkarlanean antolatzen dugu jai hau.

Ekintza aukera zabala du egitarauak.

Kirolak, bola-jokoa, musika, erromeria... Egitaraua mantendu egiten da urtero, baina sortzen den giroa izugarria izaten da. **Bazkarirako sarrerak salgai daude dagoeneko.**

Bizipoz Kafan eros daitezke bazkarirako txartelak, 22 eurotan, eta azken eguna abuztuaren 16a izango da.

Donostiako Orfeoia izango da abuztuaren 16an Arantzazun

Donostiako Musika Hamabostaldien baitan, Donostiako Orfeoia emanaldia eskainiko du abuztuaren 16an Arantzazuko Santutegian, 19:00etan hasita. Ikusleek pantailatik jarraitu ahal izango dute kontzertua, Orfeoia koruan izango delako.

Dagoeneko salgai daude kontzertua ikusteko sarrerak, he-mezortzi eta hamalau eurotan. Emanaldi hau ikustera joateko autobus zerbitzua egongo da. Izan ere, autobus batek Donostia-Zarautz-Arantzazu ibilbidea egingo du eta bestea Oñatitik igoko da Arantzazura. Zerbitzu hau erabiltzeko abuztuaren 1etik aurrera egongo dira txartelak eskuragarri.

Abuztuaren 24an, bisita gidatua Gandiaga Topagunean

Ekainaren 28az geroztik dago Gandiaga Topagunean *Oteiza eta Arantzazuko estatuarria, 1950-1969* erakusketa. Erakusketari buruzko doako bisita gidatua egin zen ekainaren 29an, eta hurrengo hitzordua abuztuaren 24an izango da. Hau ere doakoa izango da eta Elena Martinek gidatuko du, 12:00etan hasita. Erakusketa honi dagokion azken bisita gidatua urrian izango da.

Izan ere, 50 urte bete dira dagoeneko Jorge Oteizak hamalau apostoluak Arantzazuko Santutegiaren kanpoaldean jarri zituela, eta hori da, hain zuzen, erakusketak adierazten duena, Oteizaren eta Arantzazuren arteko lotura.



Bridges proiektuaren aurkezpena, Udal ordezkariarekin batera. ARANTZAZU EZKIBEL



Ruben Nogueiras oñatiarraren autoa. IMANOL SORIANO

Autoak prest dituzte Udanan gora egiteko

AUTOMOBILISMOA Bihar, zapatua, Udanako XIV. auto igoera jokatu dute, Euskadiko eta Gipuzkoako mendiko txapelketarako puntuagarria izango dena. 12:00etan itxiko dute Udana eta igoera 14:00etan hasiko da. Sariak 20:00etan banatuko dituzte, plazan

Arantzazu Ezkibel Galdos OÑATI Bihar, zapatua, jokatu dute Udanako auto igoera, XIV. aldiz. Euskal Herriko auto gidari onenetakoak izango dira Udanan, txapela nork jantzi lehiatzen.

Autoen burrunba goizean hasiko da: 09:30etik 11:30era, autoen egiaztapen administratiboak eta teknikoak egingo dituzte plazan; 12:30ean, autoak karabanen igoera Olabarrietara, irteera

puntura. Entrenamendu saioak 14:00etan hasiko dituzte.

Bi entrenamendu saio

Aurtengo auto igoerak berrikuntza bat izango du: "Normalean, hiru saio izaten dira; horietatik bi, ofizialak. Bada, aurtengo, bi entrenamendu saio egingo ditugu eta beste bi saio ofizial. Saio ofizialetako emaitzak dira sailkapenerako balio

dukenak", azaldu du Ruben Nogueiras antolatzaileak.

Probak 4,460 kilometroko luzera du. Ibilbidea zelakoa den galdetuta, zera dio Nogueirasek: "Bi zati ditu ibilbideak. Beheko zatian paellak daude, eta zati azkarra dela esan daiteke; ondoren, begiratokitik gora dator zati zailena. Zati teknikoagoa dela esan daiteke, eta hor hainbat pilotuk arazoak

Zaborrik ez utzi errepide bazterrean

Nogueirasek azaldu du lan handia eskatzen duela lasterketa antolatzeak. 50 bat boluntario dabilta buru-belarri lanean biharko egunean dena ondo irten dadin. Martitzenean ibili ziren Udana, errepidean egin beharreko lanak egiten; izan ere, segurtasunari garrantzi handia ematen diote.

Segurtasuna bakarrik ez, antolatzaileek ingurunea errespetatzea eta sortutako zaborra norberak eramatea eskatu dute: "Egunean zehar egongo da jendea lanean, baina ez gara zaborra biltzen ibiliko. Hortaz, eskatzen dugu ez uztea zaborrik bide bazterrean eta sortutakoa norberak eramateko horretarako egokitutako tokietara edo etxera". Modu horretan, Udanako bide bazterrek txukun eta garbi mantenduko dira.

izaten dituzte", azaldu du Nogueirasek.

Oñatiarrak zazpi izango dira

Ibilbidea ondo ezagutzea garrantzitsua da, eta hor abantaila izango dute etxekoak. Bailerako hainbat pilotuk parte hartuko dute; tartean, zazpi oñatiarrek: Josu Agirre, David Ardions, Ruben Nogueiras, Monika Muñoz, Iñigo Errasti, Urtzi Samaniego eta Asier Mugarza.

Nogueirasek azaldu du Aitor Zabaleta bergararra izango dela "lasterketa irabazteko faborito" nagusia; bai, behintzat, jarleku bakarreko autoetan. Eta, turismo mailan, "ikusteke" dagoela Ardions-ek zer egingo duen. Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria da proba.

Segurtasuna bermatu

Segurtasunak garrantzi handia izaten du auto lasterketetan. Antolatzaileak martitzenean ibili ziren kontu handiz seinatzen bide bazter guztiak. Izan ere, 2011n gertatu zen istripuaren ondoren, segurtasun neurriak gogortu egin dituzte. Nogueira-

sek zera azaldu du: "Lasterketa ikustera datozen ikusleak jarri behar dira ikusleendako egokitutako tokietan, eta kasu egin behar diete komisarioen esanei". Euskadiko Automobilismo Federazioko atarian, horrelako proba batean zer ez den egin behar zehazten da: ezin da ezer bota errepidera, ezin da errepidera irten, segurtasun zintak ezin dira kendu, ezin da debekatuta dagoen tokian jarri, eta komisarioei kasu egitea gomen datzen dute.

Sarrerak 8 eurotan

Igoera ikusteko sarrerak 8 eurotan daude salgai; egunean bertan, 10 eurotan egongo dira. Sarrera erosten dutenen artean hiru sari zozkatuko dituzte: Oñatiko ostatueta asteburuko egonaldia. Lasterketako sari banaketa 20:00etan izango da.

SARRERAREKIN BATERA OÑATIN ASTEBURUKO EGONALDIK ZOKKATUKO DITUZTE

Taldekieekin eta herritarrekin eskegiko du bizikleta Irizarrek

TXIRRINDULARITZA Donostiako Klasikoaren ondoren Markelen Lagunarteak omenaldia egingo dio Oñatin

A.E. OÑATI

Abuztuaren 3an esango dio Markel Irizar txirrindulariak agur ibilbide profesionalari. Donostia Klasikoa jokatu du egun horretan; eta, iragarri duen moduan, bere azken lasterketa

izango da profesional moduan. Egun berezi hori lagunekin, familiarekin eta taldekideekin pasatu du oñatiarrak.

Izan ere, Markelen Lagunarteak antolatuta, agur berezia egingo diote txirrindulariari Oñatin.

20:00etan, Bizipoz kafetegian elkartuko dira. Trek-Segafredo-ko taldekideak etorriko dira Oñatira, eta familiaren eta herritarren laguntzarekin bizikleta eskegiko du kafetegian.

Gizonezkoen Donostia Klasikoa 11:49an hasiko dute, Ibaetan. 227,3 kilometroren ondoren, Bulebarrean amaituko da -17:13 inguruan-. Emakumezkoen lasterketa 10:15ean hasiko dute, Ibaetan, eta, 126,7 kilometroren ondoren, 13:25ean amaituko da, Bulebarrean.

FUTBOLA Realaren eta Osasunaren arteko partidua Agorrosinen

Abuztuaren 3an jokatu dute partidua, 11:30ean. Erreginaren Kopa irabazi duen Realak Lehenengo Mailara igotzeko lehiaren ondoren Osasunaren aurka jokatu du. Nabarmendu behar da talde gorritxo Mikel Bakakoa bergararrak zuzentzen duela. Sarrerak abuztuaren 2an salduko dituzte, 17:00etatik 19:00etara, eta egunean bertan.



Mikel Bakakoa. OSASUNA

"Urtero berrasmatu behar du Murias-ek"

JON ODRIOZOLA EUSKADI MURIAS TALDEKO MANAGERRA

TXIRRINDULARITZA Dagoeneko bost garaipen lortu ditu talde euskaldunak 2019an, baina orain dator hitzordu nagusia: Espainiako Vueltan albiste izan gura dute oster

Xabier Urzelai OÑATI

Oñatin, unibertsitate parean, Euskadi Muriaseko automobilarren termometroak 40 gradu erakusten ditu. Taldeko managerak, baina, ondo gogoan du txirrindulari zeneko garaietan Sevilla eta Portugal artean egin-dako lasterketa batean bizi izandakoa: "Portugalgo lasterketetan 40 gradu izatea normala da, baina egun hartan, 55 gradu izan genituen; zelan sufritu genuen...". Hala, Vueltako tenperatura ere igotzen saiatuko da aurten marea berdea.

Gaur moduan, Espainiako Vueltan ere bero egingo du, baina iaz Farraponan Oscar Rodriguezekin lortutako garaipena errepikatzeke bada...

Egun oso berezia izan zen hura, eta denborarekin gehiago baloratuko dugun garaipena izan zen. Badakigu oso zaila dela, baina iaz lortu bagenuen, zergatik ez dugu amesten jarraituko?



Jon Odriozola, aste barruan, Oñatin. X.U.

Taldeari, baina, ezin zaio halako garaipenik exijitu, ala?

Iaz, Oscar Rodriguezek Euskadi Muriasek aurrekontu osoa irabazten duten ziklistak utzi zituen Farraponan atzean. Hor erakutsi genuen zertarako kapaz garen,

etapak ondo prestatuta, ziklistak ondo eramanda, planifikazio zehatza eginda... Baina Vueltan beste etapa bat irabaztea da Realari urtero Txapeldunen Ligang egotea exijitzea eta, gainera, finalerdietara iristea.

Eta, hala ere, bost garaipen lortu dituzue aurten, denak Enrique Sanzekin.

Euskadi Muriasek urtero berrasmatu beharra dauka, gehien nabarmentzen diren txirrindulariak beste talde boteretsuago batzuetara joaten direlako. Horren harira, guk harrobi taldea izan behar dugu, garbi dugulako ezin dugula txirrindulari baten etorkizunarekin jolasean ibili. Eta, hala ere, garaipenak lortzeko kapaz izan gara aurten, mendiko sariak irabazi ditugu, protagonista izango gara proba askotan. Badakigu garaipenik gabeko urteak ere izango ditugula, hori izan beharko litzateke normalena, baina horrek ez luke esango lana txarto egiten gabiltzanik, ezta gutxiago ere. Izan ere, oso harro nago, eta oso pozik gure taldeko ziklistek, laguntzaileek... talde osoak egingen duen lanarekin.

Donostia Klasikoaren aurkezpenean egon zarete. Berdintasunaren aldeko apustua egin dute aurten.

Bai, emakumezkoen lasterketa ere egongo delako, eta oso albiste ona da hori; beharrezkoa zen. Gainera, saltsa handiagoa egongo da lasterketan, polita izango da.

Donostia Klasikoa etxeko lasterketako bat da Euskadi Muriasek.

Bai, eta egia da gure ziklistendako ez dela, egutegi aldetik, lasterketa aproposena. Izan ere, taldekideak garaieran entrena-

tzen dabilta orain, Vuelta dugu begiz jota, eta Klasikoa ez datorrigu ondo. Baina etxeko zaleen aurrean egongo gara eta ondo egin gura ditugu gauzak, iaz moduan, ihesaldietan sartuta, tarteko helmugak irabazita, mendiko saria... Lasterketa garrantzitsua da guretako.

Eta ez da batere erraza bertan nabarmentzea; Tourretik datorren jendea egongo da.

Oso zaila da euren aurrean nabarmentzea, batetik, munduko ziklista onenak direlako, eta, bestetik, Tourrak ematen duen sasoi puntuarekin etorriko direlako.

Klasikoan zure herrikide batek esango du agur, Markel Irizarrek.

Txirrindularitzako profesional izateari utzi eta hasierako hila-beteak ez dira errazak, urteak egin dituzulako zure burua zaintzen, lasterketetarako prestatzen... Eta orain, bizitza asko aldatzen da, beste eginbehar batzuk daude. Nik zortea izan nuen bizikleta utzi eta segituan hasi nintzelako Orbeako taldean lanean, eta Markelek ere segituan bilatuko du bere lekua, ez daukat zalantzarik. Gainera, egon den lekuetan estimatua izan da.

"IAZKO VUELTAN ERAKUTSI GENUEN ZERTARAKO KAPAZ GAREN, OSO HARRO NAGO TALDEAREKIN"

Munduko Txapelketan izango da Nere Arregi irailean, Errumanian

ATLETISMOA Zapatutik hasita, hamar egunez Espainiako selekzioko kideekin kontzentratuta egongo da Sorian

X.U. ARRASATE

"Ez dut Munduko Txapelketa nahi moduan prestatzeko astirik, eta ez naiz horregatik itsutuko, baina nire partetik dena eman-godut", dio Nere Arregi atletak.

Izan ere, Arrasatekoak ez ditu hilabete goxoak izan, eta irailaren 1ean Errumanian (Brasov) izango duen hitzordua [50 kilometroko Munduko Txapelketa] azken asteotako kalbarioa ahazteko baliatu gura du: "Orain justu hiru hilabete ebakuntzagelan nintzen, atzamarrean ebakuntza egiten [falangea galdu

zuen lan istripuan], eta ez naiz ondo errekuiperatu. Bigarren ebakuntza egin zidaten min handia nuelako, eta sendaketetan bizi izandakoa ez diot inori desio".

Hala ere, Errumanian egoteko gutxieneko marka izanda, ez dio hitzorduari muzin egin gura: "Iaz 100 kilometrokoan bizi izandako esperientzia ederra izan zen. Gainera, aurten, lehenengoz, ultramaratoiko taldea sortu dute Espainiako selekzioan".

"Distantziari begira, akaso, orain gehiago komeni zait distantzia oso luzeko proba bat,



Nere Arregi, iaz, Kroazian egindako 100 kilometroko proban. A.ARREGI

azken batean, 50 kilometroan erritmo azkarragoetan ibili beharko dudalako eta ez dudalako hori behar den moduan prestatzeko astirik; 12 aste, ez gehiago. Hala, badakit ez dudala nire markarik onena egingo

[Santanderren, iaz, 3.38 egin zuen distantzia berean], baina burugogorra naiz.

Hitzordua prestatzeko selekzioko kideek bihartik hasita 10 egun egingo dituzte Sorian, garaieran entrenatzen.

ZIKLISMOA Abuztuaren 16an Leintz Balarako Itzulia Aretxabaletan

Andramaixetan egingo dute Euskaldun Torneorako puntugarria izango den lasterketa, Leintz Balarari Itzulia. Lasterketa horren 82. edizioa izango da, eta irteera eta helmuga Aretxabaletako Durana kalean egongo da. Ziklistek 115 kilometro izango dituzte aurretik (10:00), eta, tartean, birritan igoko dira Gatzagara. Hala, aurreikuspena da helmuga 12:40 aldera izatea.

Iazko irabazlea Jaume Sureda izan zen, eta ez zuen Aretxabaletan bakarrik irabazi, aste gutxira Oñatin ere altxa zituen eta besoak. Egin zuen denboraldi onari esker, gaur egun, Burgos BH talde profesionalean dabil Sureda.

Sinfonia Kooperatiboa, dena emateko prest!

Irailaren 14an eskainiko dute Mondragon Taldearen 'Humanity at music' ikuskizuna Gasteizko Buesa Arenan, 18:00etan, eta, horrez gainera, egun osoko egitaraua antolatu dute; sarrerak dagoeneko eskuragarri daude 'Humanityatmusic.com' atarian

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE

Iaz azaroan aurkeztu zuen Mondragon Taldeak Arrasateko esperientzia kooperatiboari buruz begirada artistiko eta berritzailea proposatzen duen *Humanity at music* egitasmoa. Eskarmentu handiko Fernando Velazquez konpositoreak eta Jon Sarasua bertsolariak elkarrekin osatutako soinu banda-zortzi kantu dituen eta Maite Mutuberrria ilustratzaile nafarraren irudiak eta askotariko osagai gehiago dituen liburua izan ziren proiektuaren lehenengo emaitzak.

Otsailaren 22an abiatu zuten *Humanity herri* izeneko ikuskizun ibiltaria, eta hala eskaini zuten, gero, hurrenez hurren, Bizkaiko ikastolen aldeko Ibilaldia jaian, Aretxabaletan, Oñatin, Iruñean eta, azkenik, Tafallan, ekainaren 26an. Labetik ateratzear dute, baina, ikuskizun erraldoia, Gasteizko Buesa Arenan eskainiko dutena, irailaren 14an, 18:00etan hasita.

Taularen gainean mila lagun

500 abeslari, 100 musikari, 200 dantzari baino gehiago, zortzi bertsolari, lau aurkezle, txistulariak... horiek guztiak izango dira Buesa Arenako ikuskizunean parte hartzen Velazquez konpo-



Fernando Velazquez Baluarten eskaini zuten ikuskizuna zuzentzen. MONDRAGON

Kooperatiben ereserki bihurtuta

Euskadiko Kooperatiben Kontseiluak bat egin du Mondragon-en Sinfonia Kooperatiboarekin; eta, aurrerantzean, *Humanity at music* egitasmoaren baitan dagoen eta etorkizunari buruz jarduten duen *Bi hanka* abestia euskal kooperatibismoaren ereserkia izango da.

Dohaintza pozik hartu zuen Kooperatiben Goren Kontseiluak, eta honela adierazi zuen Kontseiluko presidente Patxi Olabarriak, uztailaren 11n Bilbon egin zuten dohaintza ekitaldian: "Kantuak argi islatzen ditu kooperatiben izaera eta balioak, eta produkzio artistiko eta berritzaile honen bitartez jende gehiagorengana heltzeko aukera ematen du. Sinfoniaren sortze prozesua elkarlanean egin dela kontuan hartzekoa da. Kantua gurea egiten badugu, munduko edozein tokitan ere egin ahal izango dute".

sitorearen batutapean. Ez dira, gainera, nolanahiko artistak: Euskadiko Orkestra; Amets eta Maddalen Arzallus, Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Xabi Igoa, Oihana Iguaran, Julio Soto eta Jone Uria bertsolariak; Kukai dantza taldea eta baita Gasteizko zein Gernikako dantza taldeak ere; Bilboko Iubilo eta Debagoieneko askotariko abesbatzak; Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak; eta aurkezle lanetan jardungo dute, besteak beste, Pili Kaltzadak, Gloria Totorikaguenak, Onintza Enbeitak eta Brendam Costellok.

Horien guztien artean ordu eta erdi inguruko ikuskizuna eskainiko dutela azaldu du ikuskizuneko Zuzendari Artistiko Josu Camarak: "Sinfonia koral bat da; hortaz, oinarrian, ahotsek eta musika tresnek dute protagonismo nagusia, baina irudiekin edo ikus-entzunezkoekin lagunduta; hau da, bideo-mapping teknikaren bitartez. Oso ikusgarria izango da".

Jendaurrean eskaini aurretik hainbat entsegu egingo dituztela azaldu du Camarak: "Banakako eta arloko entseguak egin ditugu herri ezberdinetan, eta irailaren 9tik aurrera Buesa Arena izango da entsegu-toki. Dena finkatuta eta lotuta dagoela ikusten dut, nahiz eta une hau bertigo-une moduan sentitu".

Sarrerak eskuragarri

Humanityatmusic.com atarian eros daitezke Gasteizerako sarrerak. Prezio ezberdinetakoak daude, 19 eurotan merkeena eta 60 eurotan garestiena.

Sarrerak eskuratzeko beste modu bat da Mondragon taldearen *Hanka bat* lehiaketan parte hartzea; *Humanityatmusic.com* atarian daude oinarriak.

Egitaraua

Gasteizko Buesa Arenan askotariko ekintzak izango dira irailaren 14an.

- **12:00** Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Musua* ikuskizuna eskainiko dute.
- **12:00-20:00** Alai Gunea. Ekintza eta zerbitzu asko izango dira Buesa Arena kanpoan: haurrentzako askotariko tailerrak eta jolasak, ludoteka, puzgarriak, jan eta edari saltokiak, *Bidezko mundu baten alde!* Mundukideren erakusketa...
- **18:00-20:00** *Humanity at music* ikuskizuna.
- **20:00-22:00** Jaia Buesa Arena kanpoan.

Oharra: autobusak izango dira; txartelak, 5 euroren truke. Izena emateko, *Tellevamos.eus* ataria.

Horrez gainera, Goiena Klube-ko harpide direnek sarreraren zozketan parte hartzeko aukera dute, 688 690 007 zenbakira me- zua idatzita.

'Ttap' berezia, irailaren 6an

Gasteizen eskainiko duten ikuskizunaren gaineko informazio zabalarekin *Ttap* aldizkari digitalaren zenbaki berezia kaleratuko dute irailaren 6an.

Aldizkaria eskuratu gura izanez gero, edozein gailu eramangarritako Playstore eta App store dendetan doan jaitsi daiteke aldizkariaren aplikazioa.

ABUZTUAN ZABALIK!

ABUZTUKO OPORRETAN ERE GERTUKO INFORMAZIOA ESKAINIKO DIZUEGU
GOIENA TELEBISTAN, GOIENA.EUS ATARIAN ETA GOIENA NAHIERAN APP-EAN.



goiena⁴
ZU HEMEN ZAUDE



Galiziako De Vacas laukoteak zabalduko du, irailaren 6an, Kulturete Akustikoa musika zikloa. DE VACAS

Elektronika ukitua duen Kulturete Akustikoa

Irailaren 6an hasi eta 15era bitartean, bi asteburutan banatuta, sei kontzertu egingo dituzte Udalak antolatutako musika zikloaren baitan; orain arte moduan, emanaldi guztiak Kultureteko areto nagusian izango dira, 20:00etan, eta sarrera doan da

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Hamaikagarren aldia du irailaren 6an abiatuko duten musika zikloak, eta, Arrasaten inoiz izan ez diren musikariak eta taldeak izango diren arren, oinarrian, aurrekoen bide beretik prestatu dutela dio Udaleko Kultura Sailko teknikari Karmelo Alberdik: "14.000 euroko aurrekontua du, iazko bera, eta oraingoan ere publiko ezberdina asetzen saiatu gara. Ordu eta erdi inguruko sei kontzertu izango dira, Kultureteko areto nagusian, jarrita entzutekoak eta doako sarrerekin. Akustikoa dauka zikloak ezaugarri nagusi, baina badira elektronikatik gertu dauden bi proposamen ere".

Hasteko, Galiziako laukotea Ahotsen harmoniarekin "ederto jolastuz" eta umorea ezinbesteko osagai dutela, izen handia ari da lortzen Galiziako De Vacas laukotea, Alberdiren esanetan: "Iaztik fitxatuta genituen, oso kritika onak dituztelako. Umorezko saioak egiten dituzte, ikuspegi feministatik eta nahiko lotsagabetik abiatuta".

Euskal Herriko bi proposamenekin borobilduko dute lehengo asteburuko eskaintza: "Bilboko Hakima Flissi, iazko Gaztea maketa lehiaketa irabazi zuena, izango da zapatuan, DJ batek lagunduta. Musika lasaia da, eta, aldi berean, berriazailea ere bai. Domekan,

Iparaldeko Lumi izeneko bikoiteak ere elektronika estiloa gerturatuko du Kulturetera".

Popa eta folka, bigarreanean

Mikel Inuntziaga zornotzarrek gidatzen duen Inun egitasmoak zabalduko du bigarren asteburua, irailaren 13an. "Talde formatuan ekartzea zen gure asmoa, baina, agenda kontuak tarteko, biko formatuan eskainiko du Inuntziagak tronpeta-jole bat lagun duela pop estiloko emanaldia".

Zikloa borobiltzeko, folk doinuak bestelako estiloekin nahastuta izango dira entzungai hurrengo egunetan: Gaztelako Los Hermanos Cubero eta Madrilgo Club Del Rio taldeen eskutik.

Donostia Zinemaldiko Sail Ofizialean, 'La trinchera infinita'

Moriarti ekoiztetxeak Irusoin eta La Claquetaekin egin duen filmak maskorragatik lehiatzeko aukera izango du

A. A. ARRASATE

Irailaren 20tik 28ra bitartean egingo dute 67. Donostia Zinemaldia, eta egubakoitzean jakinarazi zuten Sail Ofizialean lehiatuko diren Espainiako film zerrenda; horien artean

daude Aitor Arregi oñatiarra kide den Moriarti ekoiztetxeak egin duen *La trinchera infinita* –Irusoin eta La Claqueta ekoiztetxeekin elkarlanean– eta Leintz Gatzagan jaiotako Karra Elejalde aktorea protagonista den

Mientras dure la guerra eta *La hija de un ladrón* filmak.

Espainiako gerran kokatua

La trinchera infinita lehiaketa ofizialean egongo dela jakin bezain pronto bete ziren sare sozialak zorion mezuz; izan ere, asko dira *Handia*-k izan zuen arrakasta errepika dadin nahi dutenak. Espainiako gerran kokatutako istorioa da Arregiren lantaldeak kontatzen duena, Antonio de la Torre eta Belen Cuestak protagonizatuta.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko uztaileko sariak!



SPC Heaven 10.1 tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

www.bazkidearenzenbakia.com

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: kluba@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indusaren dogoen LCPD 151009 legearen arabera, jakingarria dugun zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio (Lehiaketa) enpresa indusaren datuak baten bitarteko dira. Datu-hilaketa honen helburua bakarra da indusaren dogoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak ezartzea, berrikuntza, zuzentzea edo ezartzea. Helbide pertsonala idatziz: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

ERUAN JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!

📞 943 25 05 05 ✉ kluba@goiena.eus

📍 KLUBA, Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez 2019ko uztailetik aurrera: 31€
Deitu: 943 25 05 05 • kluba@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza behar dut errentan hartzeko. 651 67 96 79

Arrasate. Hiru logela eta igogailua dituen etxebizitza hartuko genuke errentan erdigunean edo San Andresen. 688 85 44 78

105. ETXEAQ OSATU

Bartzelonan etxebizitza osatu. 2019/2020 ikas-turterako etxebizitza konpartitzeko ikasle bila nabil. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 695 71 94 64

Bergara. Logela ematen da errentan erdigunean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 15 19 94

Etxebizitza Gasteizen. 2019-2020 ikasurtean Gasteizen ikasiko dut eta partekatutako etxebizitza bila nabil. Zuenen logelaren bat badaukazue, deitu zerbaki hauetara: 688 64 78 51 (Alexander) edo 637 52 89 83

Oñatin etxekide bila. Oñatin lanean gabiltzan bi pertsona gara eta etxekide baten bila gabilta. Etxea erdigunean dago. 634 70 77 73

2. GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Altamirazpin garaje itxia salgai. 17 metro koadro dauka eta ate automatikoa. 670 29 60 12 edo 697 41 66 24

3. LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Bulegoak Oñatin. Bulegoak ematen dira errentan Kale Zaharrean. Hilean 350€ gastu guztiak barne. Interesatuok deitu telefono zerbaki honetara: 652 75 60 52

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Haurrak eskolara eramatea. 2019/2020 ikasurtean, Oñatin, goizetan haurrak eskolara eramateko pertsona euskaldun bila. Autoa edukitzea komeni da. 667 94 52 12

OÑATI

DBH eta Babilergoko ikasleentzat irakaslea behar da akademianati@gmail.com

BERGARA

Estetizista behar da.

674 47 55 77
algalaura@hotmail.com

402. ESKAERA

Abuztuan lan egiteko. Abuztuan zehar pertsona nagusiak edota laguntza behar dutenak zaintzeko gertu nago. 634 31 74 58

Arrasate eta inguruak. 23 urteko mutila lantegian jarduteko gertu. Telefonoa: 608 15 37 07

Arrasate. Etxe eta atariak garbitzen, sukaldean laguntzen, nagusiak zaintzen edota supermerkatuan elikagaiak jartzen lan egingo nuke. Telefonoa: 688 29 97 05

Bergara. Neska gazte, euskaldun eta arduratsua uztailaren eta abuztuan umeak zaintzeko prest. 688 62 90 09

Debagoiena. Abuztuan zehar etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke, ordezkapenak egiten. Telefonoa: 654 15 43 01

Debagoiena. Erizain laguntzailea nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarak egiteko gertu. 620 23 58 15

Debagoiena. Esperientzia duen neska gertu ume eta nagusiak zaintzen eta garbiketarak lan egiteko. 688 74 02 01 (Gloria)

Debagoiena. Euskal Herriko emakume euskalduna lan bila dabil. Erizain laguntzaile tituluduna eta keinu hizkuntza tituluduna.

na. Gida baimena. 647 46 68 53

Debagoiena. Garbiketarak egiten, nagusiak zaintzen edota sukaldeko lanetan aritzeko gertu nago. Telefonoa: 632 84 49 63 edo 612 42 03 62

Debagoiena. Gertu nago nagusiak zaintzeko edota garbiketarak jarduteko. Telefonoa: 632 89 77 33

Debagoiena. Mutila lan bila. Esperientzia dut janari dendan jendaurrean, biltegian, antolatzen eta abarrean. Baita gaixok gauetan ospitalean zaintzen ere. 692 02 94 72

Debagoiena. Nagusiak edo umeak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Telefonoa: 640 70 57 94

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edota garbiketarak esperientzia duen neska lan bila. Telefonoa: 697 86 48 91

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen eta garbiketarak lan egingo nuke. Soziosanitario titulua daukat. Berehala hasteko moduan. Telefonoa: 632 79 91 43

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketarak eta abarrean lan egingo nuke. Gomendio agiriak dauzkat. Telefonoa: 632 53 66 42

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketarak, sukalde laguntzaile, baserriko lanetan, margotzean, eraikuntzan, soldadura lanetan eta abarrean lan egingo nuke. 631 67 45 17

Debagoiena. Nagusiak zaintzeko gertu nago. Telefonoa: 622 71 65 68

Debagoiena. Nagusiak zaintzen edota garbiketarak lan egingo nuke. 603 25 79 96 (Marta)

Debagoiena. Nagusiak zaintzen eta garbiketarak jarduteko gertu nago. Legezko agiriak eta Jaur-larizaren ziurtagiria daukat. 659 57 93 89

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. 631 93 11 90

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. 631 67 96 77

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko gertu. 631 93 23 22

Debagoiena. Neska arduratsua, familia ardurarik gabekoa, nagusien zaintzan lan egiteko gertu. Erreferentziak eta esperientzia dauzkat. Interesatuok deitu telefono zerbaki: 632 64 35 07

Debagoiena. Neska euskalduna udan umeak zaintzeko prest. Telefonoa: 693 40 89 93

Debagoiena. Oporretako ordezkapenak egiteko gertu nago, nagusien eta umeen zaintzan edota garbiketarak lanetan. Telefonoa: 674 53 60 59

Debagoiena. Orduka, etxean bertan bizi izaten eta baita asteburuetan ere lan egingo nuke. Telefonoa: 632 04 13 49

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak

zaintzeko prest. Orduka. 632 27 58 61

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukan neska gertu etxean bertan bizi izaten edo orduka zaintza lanetan jarduteko. Interesatuok deitu telefono zerbaki: 600 01 48 81

Debagoiena. Ume eta nagusiak zaintzen, atariak garbitzen eta abarrean lan egingo nuke. 632 21 60 37

Debagoiena. Umeak eta nagusiak zaintzeko gertu nago. Interesatuok deitu telefono zerbaki: 604 12 68 70

Debagoiena. Zaintza eta garbiketarak lanetan aritzeko gertu. 612 27 82 34

Debagoiena. Zaintza eta garbiketarak lanetan aritzeko gertu. 627 62 50 08

Debagoiena. Zaintza lanak eta atari zein beste-lakeen garbiketarak egiteko gertu nago. 663 46 71 10

6. MOTORRA

602. EROSI

Lan Rover bila nabil. Land Rover Defenderra erosiko nuke. Berdin dio zein egoeratan dagoen: IAT gabe, matxuratuta, kolpearekin. 623 17 95 37

8. DENETARIK

801. SALDU

Txabola salgai Leintz-Gatzagan. Egoera onean, tximiniarekin, ekipatuta eta inguruan lursail txiki bat duena. Errepide generaletik metro gutxira, Arabako mugatik oso gertu. 669 29 29 38

802. EROSI

Artzain elektrikoa. Bigarren eskuko artzain elektrikoa erosiko nuke. 656 75 76 98

807. AURKITU

Audifonoa Oñala Zelain. Audifono bat aurkitu dugu Urkuluko Oñala Zelain. Arrasateko BAZen utzi dugu.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

DANA D'CAPRICHORI ELKARRIZKETA

'Elkarrizkettap' Egubakoitza, 21:30 eta 23:30



GOIENA

OÑATIKO OSOKO BILKURA

'Bereziak' Domeka, 15:00 eta 18:30



GOIENA TELEBISTAKO
PROGRAMAZIO OSOA:
goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu
aldameneko qr kodea.

URTEURRENA



Imanol Olabe Zabala

Maritxu Aranzabalaren alarguna

2018ko abuztuaren 1ean hil zen, 90 urte zituela.



Urteurreneko meza domekan izango da, uztailaren 28an, 12:00etan, Elgetako Jasokundeko Andra Mari parrokian.

Beti izango zaitugu gogoan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Elgetan, 2019ko uztailaren 26an.

URTEURRENA

Juan Olasolo Eizaguirre

'Ziardei'

2018ko abuztuaren 2an hil zen, 76 urte zituela.



Urteurreneko meza abuztuaren 11n izango da, domeka, 12:00etan, Bergarako Santa Marina parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran, 2019ko uztailaren 26an.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 20 euro 18 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagor argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 25 euro (+BEZ).



Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmolekrosia.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA:

- Zubikendi, 80 m², 2 logia, igogailu, berriketa, bihotza sartuko. 140.000€
- Martillo, 67 m², 3 logia, erretxatzen/berria, berriketa, igogailu. 125.000€
- Gola, 65 m², traxelaketa, igogailu, bihotza sartuko. 145.000€ GORRAKALAN
- Martillo, 72 m², 2 logia, traxelaketa, bihotza sartuko. 140.000€ PREZIO JEITSIERA
- Urteaga, 92 m², 3 logia, bihotza 40 m², garajea barne, bihotza sartuko. 219.000€
- Martillo, 96 m², 4 logia, traxelaketa, igogailu. 149.500€ PREZIO JEITSIERA
- Martillo, 86 m², 2 logia, zoko berriketa. Taloa eta bihotza berriketa 145.000€
- Arreola, 82 m², 3 logia, traxelaketa, bihotza sartuko. 95.000€ PREZIO JEITSIERA
- Martillo, 80 m², 3 logia, traxelaketa, igogailu. Bihotza sartuko. 210.000€
- Martillo, 82 m², 3 logia, bi traxelaketa, garajea, igogailu. 240.000€
- Martillo, 90 m², 4 logia, igogailu, bihotza sartuko. 160.000€ GORRAKALAN
- San Martin Agneta Plaza, 70 m², 2 logia, igogailu, bihotza sartuko. 180.000€
- Alameda Etxe, 360 m², duplex berria, berriketa. 350.000 € PREZIO JEITSIERA
- Urteaga, 94 m², 3 logia, traxelaketa eta garajea barne. Bihotza sartuko. 250.000€
- Martillo, 100 m², 4 logia, 2 bihotz, igogailu. 180.000€ PREZIO JEITSIERA
- Zubikendi, 45 m², 3 logia, berriketa. Bihotza sartuko. 94.000€
- Zubikendi, 120 m², duplex, 4 logia, igogailu. 180.000€ PREZIO JEITSIERA
- Ibarra, (Luzagorri) 59 m², 3 logia, traxelaketa. 70.000€
- Martillo, 66 m², 2 logia, traxelaketa, bihotza sartuko. 115.000€
- San Antonio, 49 m², 2 logia, igogailu, traxelaketa, garajea. Bihotza sartuko 155.000€
- Arreola, 180 m², duplex, 4 logia, igogailu. Bihotza sartuko. 373.500€
- Borsari, 70 m², 3 logia, erretxatzen, bihotz berria. Garajea bihotz sartuko. 135.000€
- Martillo, 180 m², 3 logia, igogailu. Bihotza sartuko. 178.000€ PREZIO JEITSIERA
- Finkaketa, 180 m², 4 logia, traxelaketa, igogailu. 180.000€

ANGIOZAR:

- Etxebizitza 60 m², 2 logia, erretxatzen, traxelaketa. 80.000 €
- Borsari 233 m², lur zatiak eta bihotz berria egiteko perruak. 250.000 €

OSINTXU:

- Oñate, 87 m², 3 logia, igogailu. 70.000€
- Oñate, 70 m², 2 logia eta igogailu. 62.000€ AUKERA ONA
- Oñate, 63 m², 3 logia, traxelaketa, berriketa. Bihotz berria. 69.000€ PREZIO JEITSIERA

UBERA:

- Borsari eta 15 hektareako lurralde (jauki, zaldiak) 340.000€ PREZIO JEITSIERA

ANTZUOLA:

- Ibarra, 80 m², 2 logia, traxelaketa, bihotza sartuko. igogailu. 125.000€ EGUTIAK
- Erreola, 90 m², 3 logia, igogailu, bihotza sartuko, garajea sartuko. 140.000€
- Arreola, 78 m², 3 logia, bihotza sartuko, traxelaketa. 74.000€ PREZIO JEITSIERA
- Erreola, 70 m², 2 logia. Etxe du berria bihotz sartuko. 125.000€
- Borsari, 65 m², 2 logia. Etxe du berria bihotz sartuko. 165.000€ GORRAKALAN
- Erreola, 80 m², 3 logia, igogailu, egutia. 113.000€ PREZIO JEITSIERA

ELGETA:

- San Roke, Duplex 83 m², zorro duen etxea, 3 logia, bihotz s. 210.000€
- Martillo, 77 m², 3 logia. Berria. Oñate.
- San Roke, 72 m², 3 logia, igogailu. 174.300€
- San Roke, Duplex 140 m², 3 logia, igogailu, garajea 50 m² barne. 250.000€

OROIGARRIA

Jose Maria Ormaetxea Uribeetxeberria



Fagor Electrodomeesticos (aurretik ULGOR)-eko fundatzailea Arrasateko Kooperatiba Esperientziaren fundatzailea.



Fagor Taldea.
Arrasaten, 2019ko uztailaren 26an.

OROIGARRIA

Jose Maria Ormaetxea Uribeetxeberria



MONDRAGON Korporazioak atsekabea adierazten du Jose Maria Ormaetxea Uribeetxeberriaren heriotzagatik, "Arrasateko kooperatiba Esperientziaren" fundatzaile eta sustatzaile, eta gure doluminik biziak agertzen dizkiegu bere familia eta adiskideei.



Arrasaten, 2019ko uztailaren 26an.

OROIGARRIA

Jose Maria Ormaetxea Uribeetxeberria



2019ko uztailaren 20an hil zen, 92 urte zituela.

Eskerrik asko, Jose Mari balio kooperatiboak gure artean zabalteagatik eta gure gizarteari eginiko ekarpenagatik.

Otalorako lankideak.
Aretxabaletan, 2019ko uztailaren 26an.

ESKER ONA



Juli Crucelaegui Altuna

Jose Garciaren alarguna

2019ko uztailaren 17an hil zen, 87 urte zituela.

Amama, Izar berri bat piztutzero zoaz han zeru ederrean.
Eskerrik asko eman diguzun guztiagatik.

Eskerrik asko Juliri agur esateko orduan, mila modutan, zuen berotasuna eskaini diguzuen guztioi. Arrasateko Egoitzako langileei eskerrak eman nahi dizkizuegu gure senideari eskainitako arreta eta maitasunagatik.

Etxekoak.
Arrasaten, 2019ko uztailaren 26an.

ESKER ONA

M. Pilar Gonzalez Tosantos

Luis M. Odriozolaren alarguna

2019ko uztailaren 12an hil zen, 80 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2019ko uztailaren 26an.

ESKER ONA

Rosario Belastegui Ojanguren

'Aierdi'

Juan Jose Murguiondo Mugicaren alarguna

2019ko uztailaren 20an hil zen, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ez duzu izan bizimodu arina, bai ordea indarra eta grina.
Bilobak zaintzen ere egin duzun alegina hauen artean gelditzen da zure ogiaren mamiña.

Zure familiak.
Bergaran (Elorregin), 2019ko uztailaren 26an.

OROIGARRIA

Jose Mari Lasaga Heriz



2019ko uztailaren 24an hil zen, 64 urte zituela.

Lagun handia, pertsona ona.
Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Rafa eta Maite, Amaia eta Nico, Garazi eta Roger, Javi eta Isa, Koldo eta Vanesa, eta Jokin.

Arrasaten, 2019ko uztailaren 26an.

OROIGARRIA

Jose Mari Lasaga Heriz



2019ko uztailaren 24an hil zen, 64 urte zituela.

Gaztebotatik jua izan gare ezautzen Pirineua
Maite ditugun parajietan beti mendixai lotua

Lotura hori bezain estua da bizitzeko hautua
Itxi diguzun irakaspena da bizitzeko gogua.

Gure bihotzean izango zara beti.

Juanpe-Mariasun, Igor-Mireia, Eñaut-Maddi.
Arrasaten, 2019ko uztailaren 26an.

OROIGARRIA

Jose Mari Lasaga Heriz



2019ko uztailaren 24an hil zen, 64 urte zituela.

Josemari,
bizitzan emandako pausoak gugan utzitako aztarna bihurtuko dira bertan landatutako haziak loratuz.
Mila esker!



Herri-Gain elkartea.
Arrasaten, 2019ko uztailaren 26an.

OROIGARRIA

Jose Ramon Madina Letamendi



2019ko uztailaren 21ean hil zen, 67 urte zituela.

Kalezarreko kuadrilla.

Oñatin, 2019ko uztailaren 26an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 26 ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Zapatua, 27 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Domeka, 28 ALBERTO AZKAGA: Ferrerias kalea 1 / 943 79 15 15
Astelehena, 29 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Martitzena, 30 ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Eguaztena, 31 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Eguena, 1 SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 7

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 26 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Zapatua, 27 ESTELA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Domeka, 28 ESTELA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Astelehena, 29 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 30 ESTELA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63
Eguaztena, 31 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguena, 1 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

ONATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 26 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 27 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 28 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 29 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 30 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguaztena, 31 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguena, 1 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2019ko abuztuaren 30era arte:
ESPANOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2019 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue nahiz eta heriotz aseguru izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA


TXUTXU-MUTXUAK

**1. Serbian gaita jotzen**

Arrasateko gaiteroak Urretxuko Lurra dantza taldekoekin egon dira Etnofest jaialdian. Dantza erakustaldiaz gain, turismo apur bat egiteko aprobetxatu dute bidaia.

2. Omenaldia Portasolen

Karmen Baleztenak jaso zuen aipamena, 93 urterekin auzoko nagusiena delako. Bestalde, Lia Anduaga ere omendu zuten, gazteena izatearren: urtarilaren 5ean jaio zen.

**3. Lezetxikira bisitan**

Aurreko domekan egindako bisita gidatuan, adi-adi entzun zituzten Aran Otaduy historialaren kontuak. Garagartzan hasitako bidaia Lezetxikin bukatu zuten.

4. Futboleko Santa Marina jaietan

Auzoko txikienak izan ziren protagonista Bergarako Santa Marina jaietan. Futbol partidu parekatua jokatu zuten: 11-12 bukatu zen norgehiagoka.

5. Degurixatik, "pozik"

Aretxabaletako Loramendi elkarteko toponimia taldekoak gustura ibili ziren asteburuan. Hamalau herritarrek parte hartu zuten mendi bueltan.

6. Bihar ezkonduko dira

Ainhoa Sanchez eta Tiago Pais aretxabaletarrak Laukizen ezkonduko dira. "Zorionak, etxekoen partetik! Segi zoriontsu izaten eta ondo pasa eztei-bidaian!".

Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkariatzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko
12:00ak arte
jasotakoak bakarrik
iragarriko ditugu.
Hortik aurrera
jasotakoak irailaren
6an argitaratuko
ditugu.

ZORION AGURRAK



ONATI
Auritz Urzelai Aizpeolea
Irailaren 5ean, 6 urte. Zorionak, txikitxo! Sei urte jada; handi-handi egiten ari zara! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Merendola itzela egingo dugu laguntxoekin! Muxu potolo pila familia guztiaren eta, batez ere, Oinatzan partetik.




ARETXABALETA
Manex Amozarrain Olabarria
Abuztuaren 25ean, 9 urte. Zorionak, Manex! Ederto ospatuko dou! Maitte zaittugu!



ONATI
Ane Zulueta Igartua
Abuztuaren 21ean, 4 urte. Zorionak, Ane. Lau urte! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat, etxeko danon partetik!



LEINTZ GATZAGA
Manex Ugarte Zubizarreta
Abuztuaren 15ean, 10 urte. Etxeko danon partetik... Zorionak, Manex! Eta egun ederra pasatu!



BERGARA
Unai Beistegi Frias
Abuztuaren 5ean, 8 urte. Zorionak, Unai! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Segi horren alai eta jatorra izaten! Muxu bero-bero bat, guztion partetik.



BERGARA
Danel Goikoetxea Blanco
Abuztuaren 4an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Egun politxa pasatu! Patxo handi bat, familia osoaren partetik.



ONATI
Liher Osa Velez de Mendizabal
Abuztuaren 3an, 2 urte. Zorionak, titiritero! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzian. Patxo handi bat, familiakoen partetik.



BERGARA
Maialen Garcia Urbieto
Abuztuaren 2an, 8 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetzia oporretan! Muxu handi bat familia osoaren, eta bereziki, Naroaren partetik.



ARRASATE
Amaia Garcia Sanchez
Uztailaren 31n, 8 urte. Zorionak, printzesa. Jada zortzi urte! Egun zoragarria pasatu zure urtebetetzean. Besarkada handia.



ONATI
Eider Erostarbe, Joane Arriaran eta Martin Arregi
Uztailaren 31n, Urtebetetzea. Eiderrek uztailaren 31n, 10 urte, Martinek abuztuaren 3an, 6 urte eta Joanek 12an, 7 urte. Zorionak, hirukote! Festa mundiala antolatuko dugu zuen eguna ospatzeko. Muxu handi bat, etxeko denon partetik.



BERGARA
Inaki Osa, Naia Osa eta Inaxi Larranaga
Uztailaren 31n, 4 urte. Gure txikiak 4 urte, aittak 65 urte eta Naiaren birramamak, berriz, 92 urte! Bihotz-bihotzez zorionak zuen urtebetetze egunean. Lau belaunaldi ezberdinetakoak zareten arren, ederki konpontzen zaretelako, bejondeizuela! Etxeko guztion partetik, muxu potoloak hiruroi!



ONATI
Maddalen Intxaurtieta Arregi
Uztailaren 30ean, 4 urte. Zorionak, printzesa! Ondo-ondo pasatu zure egunian. Muxu pila bat etxeko danon, eta bereziki, zure lehengusu Sara, Paul eta Martinen partetik. Asko maite zaitugu.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariatzaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak irailaren 6an argitaratuko ditugu.



BERGARA
Uxue Arrieta
Uztailaren 29an, 5 urte. Zorionak, Uxue! Jada bost urte, maitxia! Muxu erraldoi bat, familia osoaren partetik.




ONATI
Nora Kortabarria Sainz
Uztailaren 28an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Laztan handi bat, etxeko denon partetik.



ONATI
Noa Mugarza Urizar
Uztailaren 28an, 8 urte. Noa, 8 urte bete ditzuzu, polit hori! Ederto ospatuko ditzugu. Muxu potolo pila etxeko danon partetik eta infinitura!



ONATI
Peio Xpe Elkoroiribe
Uztailaren 27an, 12 urte. Zorionak, Peio! Muxu handi bat etxeko denon partetik eta disfrutatu egunaz.



ONATI
Katixa Arranbide Amundarain
Uztailaren 27an, 8 urte. Urepeleko Bortaluzean bizi den gure bilobari, zortzigarren urtebetetzean, asko maite dugula esanez, Oñatiko aittaitaren eta amamaren partetik.



ONATI
Iraia Leibar
Uztailaren 27an, 3 urte. Zorionak, Iraia! Jarraitu zaren moduko zoriontsu izaten. Disfrutatu zure eguna eta muxu handi bat, familiakoen partetik. Asko maite zaitugu!



BERGARA
Laia Arrieta
Uztailaren 27an, 8 urte. Zorionak, Laia! Jarraitu beti bezain alai. Muxu asko familia osoaren partetik.



BERGARA
Izar Goikoetxea Makazaga
Uztailaren 26an, 2 urte. Zorionak, sorgintxo! Egun politxa euki. Patxo handi bat, familia osoaren partetik!



BERGARA
Ander Ortiz Lizarralde
Uztailaren 26an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Primeran ospatu zure eguna familiarekin eta lagunekin, eta segi horrela! Patxo handi bat, familiaren partetik.



ONATI
Ander Castell Tejada
Uztailaren 26an, 5 urte. Zorionak, Ander! Bost urte. Ondo pasatu zure urtebetetzean. Etxeko denon partetik. Muxu handi bat.



ANTZUOLA
Unai eta Iñaki Narbaiza
Uztailaren 25ean. Zorionak gure etxeko bi gizontxoei, etxeko nesken partetik! Unai 7 urte eta aittak 43.



BERGARA
Oihan Gisasola Sevillano
Uztailaren 25ean, 6 urte. Zorionak, Oihan! Segi horren jator. Oso pozik gare zurekin. Egun politxa pasatu. Muxu potolo bat, etxeko denon partetik.



ESKORIATZA
Ixaso Lopez Feijoo
Uztailaren 22an, 13 urte. Zorionak, Ixaso! Familia osoaren partetik, egun ederra pasatu!



ARRASATE
Jare Bergaretxe Arkauz
Uztailaren 19an, 4 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure egunean! Patxo potolo bat, etxeko guztien partetik!

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENeko EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 26

ESKORIATZA Aire akrobazia ikastaroa
Agurtzane Telleriaren eskutik.
Mendiola auzoan, 11:00etan.

OÑATI 'Ezusteak' erakusketa
Orbelaun taldeko kideen lanak.
Turismo Bulegoan, 12:00etan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Parrokia eta unibertsitate zaharra ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan eta 17:00etan.

OÑATI 'Día de la rebeldía nacional' eguna
Kubako ospakizun egunaren 66. urteurrena ospatuko dute, Acesmak antolatuta.
Gaztetxean, 15:00etan.

ELGETA Bisita berezia Intxortako frontera
Gaur, 16:30ean. Izena, aurrez: *turismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
Asentzion.

BERGARA Santa Ana jaiak
19:00etan, Gauargi taldearen erromeria; 20:00etan, jaien hasiera; 21:00etan, sardina-jana; eta 22:00etan, rock kontzertuak.
Boluan.

OÑATI Bridges proiektua
Apuntes sobre la felicidad ikuskizuna eta ondoren, aktoreekin topaketa. Tartean, Ilargi Zabaleta oñatiarra egongo da.
Santa Ana antzokian, 20:00etan.

BERGARA DeDiego Brothers taldearen emanaldia
Berumugako kontzertua egingo du Juan eta Victor de Diego anaiak sortutako taldeak. 1960ko hamarkadara gerturatzeko jatorrizko kantuak egiten dituzte.
Espolioan, 22:00etan.

OÑATI Bridges proiektua
Nazioarteko antzerki egoitzako aktoreen emanaldia.
Pako tabernan, 22:00etan.

ZAPATUA 27

BERGARA Semicup txapelketa
Seigarren urtez egingo dute areto-futbol txapelketa.
Seminarioko patioan, 09:00etan

OÑATI Bazkaria eta Son LT taldearen kontzertua
Acesma taldearen eskutik, *Día de la rebeldía nacional* eguna ospatzeko. Kubako kontsulatuaren zerbitzuak egongo dira.
Gaztetxean, 10:00etan.

BERGARA Santa Ana jaiak
10:00etan, diana eta marrazki eta pintura lehiaketa: 11:30ean, patata-tortilla lehiaketa: 12:00etan, globoflexia eta aurpegi-margotze tailerrak; 13:00etan, lehiaketen sari banaketa: 14:30ean, bazkaria; 17:30ean, umeendako ikuskizuna; eta 19:30ean, Ibiza festa.
Boluan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Parrokia eta unibertsitate zaharra ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan eta 17:00etan.

ELGETA Bisita berezia Intxortako frontera
Gaur, 11:00etan. Izena, aurrez: *turismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
Asentzion.

OÑATI Lezesarriko jaiak
12:00etan, herri kirolak; 13:00etan, luncha eta bertso saioa; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, haurrendako tailerra; 18:00etan, Potx magoa; eta 19:00etan, Takitto taldearekin erromeria.
Lezesarri auzoan.

OÑATI Udanako auto igoera
14:00etan hasiko dituzte entrenamendu saioak.
Udanan.

ARRASATE Gospel kontzertua
Cada Día En Su Presencia taldeak *Halelu Ya!* emanaldia egingo du.
Debalde.
Biteri plazan, 19:30ean.

DOMEKA 28

BERGARA Santa Ana jaiak
10:00etan, pilota partiduak; 12:00etan, meza; 12:30ean, umeendako puzgarriak; 13:00etan, apar festa; 13:30ean, txorizo-pintxoak; 17:00etan, puzgarriak; 17:30ean, Bolu Txiki Master Txef lehiaketa; 19:30ean, Romance Latino taldearen kontzertua; eta 21:30ean, jaien bukaera.
Boluan.

BERGARA Dolmenen ibilbidea
Euskarazko bisita egingo dute gaur. Izena, aurrez: *info@begi-bistan.com* eta 657 79 46 77.
Karakateko aparkalekuan, 10:00etan.

ESKORIATZA Zubiate labean bisita
Izena, aurrez: *ibarraundi@eskoriatza.eus* edo 943-71 54 53.
Ibarraundin, 10:00etan.

ARETXABALETA Bola-joko txapelketa
San Inazioaren omenezko txapelketa. Lehenengo hiruendako sariak egongo dira.
Bolatokian, 11:00etan.

BERGARA 'Naturari, irribarria' erakusketa
Gaur da Guillermo Azkarateren eta Agustín Amasorrainen argazki bilduma ikusteko azken eguna.
Aroztegin, 12:00etan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Parrokia eta unibertsitate zaharra ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan eta 17:00etan.

OÑATI Espeleotxiki irteera
Pasarelaz kanpo abentura familiendako, 6 urtetik gorako haurrendako. Izena, aurrez: 943-08 20 00.
Arrikutzen, 15:30ean.

OÑATI Bridges proiektua
Bridges proiektuko artisten ikuskizun ibiltaria, erdigunean.
Oñatiko kaleak, 19:00etan.



HEZURBELTZAK

ARRASATE Hezurbeltzak taldea

Ibilbide luzeko eta nortasun eta izen handiko hiru artista bildu ditu: Jon Maia, Pitti eta Gorka Hermosa. Kantuetan, besteak beste, emigrazioa, pertsonaia baztertuak eta horien inguruko istorioak kontatzen dituzte.
Etzi, domeka, Aldai plazan, 20:00etan.

ASTELEHENA 29

BERGARA 'Bergara monumental' bisita gidatua
Abuztuaren 31ra arte, egunero, 11:00etan eta 12:30ean. Izena, aurrez: *turismoa@bergara.eus* edo 943-76 90 03.
Laboratorium museoan.

ESKORIATZA Odol ematea
Oporren aurreko azken deialdia egin dute Arabako odol bankuko kideek.
Fernando Eskoriatza plazan, 16:30ean.

MARTITZENA 30

OÑATI 'Oteiza eta Arantzazuko estatuaria' erakusketa
Oriko artistaren eta Arantzazuren arteko harremanaren bilakaera ezagutzeko aukera, apostoluak fatxadan ipini zireneko 50. urteurrenean. Hurrengo bisita gidatua abuztuaren 24an egingo du, Elena Martinek.
Gandiaga Topagunean, 11:00etan.

OÑATI 'Pride' pelikula
Filma LGBT mugimenduko Mar Ashton ingeles ekintzailearen bizitzan oinarrituta dago.
Gaztetxean, 22:00etan.

ESKORIATZA Suzko errubera
San Inazio bezperako ekintza. Suak ikusteko lekuri aproposena Olazar auzoa da.
Gernika plazan, 00:00etan.

EGUAZTENA 31

ARETXABALETA 'Imaginagintza laikoa' erakusketa
Gaur da Jabier Oiartzunen bilduma ikusteko azken eguna.
Arkupen, 11:00etan.

OÑATI San Inazio eguna Urban
11:30ean, meza, bertsolariekin; 12:30ean, bertso saioa; 13:00etan, aizkolariak; eta 14:30ean, bazkaria. Bazkariaren aurretik eta ondoren, erromeria, Miren, Agur eta Oier taldearekin.
Urban.

LEINTZ GATZAGA Gatz Museoan bisita gidatua
Eguenetik domekara arte eta jaiegunetan bina bisita egingo dituzte: 11:30ean euskaraz eta 13:00etan gaztelaraz. Izena, aurrez: *reservas@gatzmuseoa.com* edo 943-71 47 92.
Gatz Museoan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Parrokia eta unibertsitate zaharra ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan eta 17:00etan.

BERGARA Eguaztenetako azoka
Herriko baserriarren produktuak eta garaiak erosteko aukera. Abuztuko eguaztenetan ere egongo da azoka.
Oxirondon, 18:00etan.

EGUENA 1

OÑATI Ordutegi aldaketa liburutegian

Abuztuan egongo da zabalik 09:30etik 13:30era arte astelehenetik egubakoitzera. Zapatuan, itxita. *Liburutegian.*

OÑATI Arrikrutzen bisitak

Abuztuan egunero egingo dituzte bisitak: 09:30-14:30 eta 15:30-19:00. Izena, aurrez: 943-08 20 00. *Arrikrutzen.*

OÑATI Ordutegi aldaketa kiroldegian

Abuztuan, 10:00etaik 20:00etara arte, astelehenetik zapatura. Domekan, itxita. *Zubikoan.*

OÑATI Garbigune ibiltaria

Herritarren materiala batuko dute. *Azokan, 10:30ean.*

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Parrokia eta unibertsitate zaharra ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan eta 17:00etan.*

EGUBAKOITZA 2

ESKORIATZA Ibarraundi museora bisita gidatua

Etnografia, historia eta amoniteen erakusketa iraunkorrak ikusteko aukera egongo da. Izena, aurrez: *ibarraundi@eskoriatza.eus* edo 943-71 54 53. *Ibarraundi museoan, 10:00etan.*

OÑATI Txokolatearen interpretazio gunea

Kakaotik txokolateraino dagoen prozesua erakusten duen bisita gidatua, egunero. Izena, aurrez: 605 76 35 95. *Txokolateixan, 10:30ean.*

OÑATI San Lorentzoko jaiak

16:00etan, etxafuego jaurtiketa; 16:30ean, Aratz Ugarteren omenezko mendi bizikleta irteera; 17:30ean, txorimaloak; 18:30ean,

poteoa; eta 23:00etan, Cronopios taldearen kontzertua. Ostean, Ezten Giroarekin erromeria. *San Lorentzo auzoan.*

BERGARA Arantza Baskaranen erakusketa

Gaur zabalduko dute bilduma, eta ikusgai egongo da irailaren 19ra arte, martitzenetik domekara. *Aroztegin, 18:00etan.*

ZAPATUA 3

OÑATI Parketxean bisita

Aizkorri-Aratz parke naturalaren ezaugarriak ezagutzeko aukera, martitzenetik domekara. *Parketxean, 10:00etan.*

BERGARA Realta eta Osasuna, aurrez aurre

Denboraldi-aurreko emakumezkoen futbol partidua. Sarreraren salmenta, Agorrosingo leihatilan, abuztuaren 2an, 17:00etatik 19:00etara, eta abuztuaren 3an, 09:00etatik aurrera. Nagusiek, bost euro; eta 18 urte artekoek, hiru euro. *Agorrosinen, 11:30ean.*

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Parrokia eta unibertsitate zaharra ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan eta 17:00etan.*

OÑATI San Lorentzoko jaiak

16:00etan, 26. mus txapelketa; 18:00etan, Potx eta Lotx pailazoak, marrazki lehiaketa eta pilota txapelketako finalerdiak eta finala; 19:00etan, poteoa; eta 22:30ean, Letagin, Revertt eta beste talde sorpresa baten kontzertua. Ostean, dantzaldia Javi Sound-ekin. *San Lorentzon.*

BERGARA 'Biribilak mendian' bisita gidatua

Euskal Herriko nekazaritzan biribilek izan duten garrantzia azaltzen duen bilduma. XVII. eta XVIII. mendeetako krokis originalak, biribilei buruzko antzinako dokumentuak, garaiko mugarriak eta beste hainbat ikus daitezke irailaren 19ra arte. *Laboratoriumen.*

DOMEKA 4

ARRASATE 'Arrasate historikoa' bisita gidatua

Hiribilduaren historia eta pasarteak ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: *Arrasate.eus.* *Herriko Plazan, 10:00etan.*

BERGARA Laboratorium museoan bisita gidatua

Errege Mintegiak utzitako bilduma zientifikoak ezagutzeko aukera: XVIII. eta XIX. mendeetako zientzia bildumak, fisika, kimika, geologia, giza anatomia eta zoologia arlokoak. *Laboratoriumen, 10:00etan.*

OÑATI Zaldi behaketa

Izena, aurrez: 670 27 44 61. *Pottokalekun, 11:00etan.*

OÑATI San Migel errotan bisita gidatua

Turismo Bulegoan bertan dagoen errota martxan ikusteko aukera. Erabileraren eta historiaren inguruko kontakizuna egingo dute. Izena, aurrez: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 11:00etan.*

OÑATI Lezesarriko jaiak

12:00etan, meza San Esteban ermitan. *Lezesarrin.*

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua

Parrokia eta unibertsitate zaharra ezagutzeko aukera. Izena, aurrez: 943-78 34 53. *Turismo Bulegoan, 13:00etan eta 17:00etan.*

OÑATI Espeleotxiki irteera

Pasarelaz kanpo abentura familiendako, 6 urtetik gorako haurrendako. Izena, aurrez: 943-08 20 00. Hurrengoak abuztuaren 17an eta 31n egingo dituzte. Bestalde, Espeleo Arrikruz, abuztuaren 10ean egingo dute. *Arrikrutzen, 15:30ean.*

OÑATI San Lorentzoko jaiak

22:00etan, Aitor Regueiroren eta Paul Sarramendiren kontzertua, jaiak bukatzeko. *San Lorentzon.*

ZINEMA

GASTEIZ

GORBEIA

Aladdin

Egunero, domeka izan ezik: 17:30. Domeka: 11:45, 17:30.

Anabelle vuelve a casa

Egunero: 17:45, 20:15, 22:25.

El rey leon

Egunero, domeka izan ezik: 17:30, 20:00, 22:30. Domeka: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30. Egunero: 16:45, 19:15, 21:45.

Los Japon

Egunero, domeka izan ezik: 16:30, 20:35. Domeka: 12:15, 20:00, 22:30.

Men in black internacional

Egunero, domeka izan ezik: 20:00, 22:30. Domeka: 12:15, 20:00, 22:30.

Midsomar

Egunero: 16:55, 19:35, 22:15.

Spider-man

Egunero, domeka izan ezik: 17:15, 19:45, 22:15. Domeka: 12:15, 17:15, 19:45, 22:15.

Super empollonas

Egunero, domeka izan ezik: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30. Domeka: 12:00, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Toy story 4

Egunero, domeka izan ezik: 16:30, 18:30, 20:30. Domeka: 11:45, 16:30, 18:30, 20:30.

Venganza bajo cero

Egunero, domeka izan ezik: 17:45, 20:10, 22:30. Domeka: 12:15, 17:45, 20:10, 22:30.

Vitoria, 3 de marzo

Egunero, domeka izan ezik: 22:30. Domeka: 12:00, 22:30.

Yesterday

Egunero, domeka

izan ezik: 18:20, 22:25. Domeka: 12:00, 18:20, 22:25.

FLORIDA

303

Egunero: 17:30, 20:00.

Al agua gambas

Egunero: 12:00, 22:30.

Aladdin

Egunero: 17:30.

Apolo 11

Egunero: 22:30.

Elcano eta Magallanes

Egunero: 12:00.

El cuento de las comadreas

Egunero: 20:00, 22:30.

El emperador de Paris

Egunero: 17:30, 20:00

El rey leon

Egunero: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.

Quien me quiere que me siga

Egunero: 18:30, 20:30, 22:30.

Spider-man

Egunero: 12:00,

17:00.

Toy story 4

Egunero: 12:00, 16:30.

Un amor imposible

Egunero: 19:45.

Venganza bajo cero

Egunero: 12:00, 17:30, 20:00, 22:30.

Vitoria, 3 de marzo

Egunero: 12:00, 16:40.

Yesterday

Egunero: 12:00, 22:30.

BOULEVARD

Venganza bajo cero

Egunero, martitzena izan ezik: 13:35, 16:40, 19:10, 21:40, 00:15. Martitzena: 16:40, 19:10.

Midsommar

Egunero, martitzena eta eguena izan ezik: 12:40, 15:45, 18:35, 21:30. Martitzena: 15:45, 18:35.

KRITIKA

Genesis ★★★★★

Zuz.: Philippe Lesage. **Herr.:** Kanada (2019). **Aktoreak:** Noee Abita, Theodore Pellerin, Edouard Temblay-Grenier, Emilie Bierre.

Pertsonaiei hurbiltzeko modua

ANTONIO ZABALA

Genesis pelikula lehenengo amodioei buruz hitz egiten diguten hiru istorioz osaturik dago. Lehenengo bi istorioak paraleloki gertatzen dira. Soilik istorioen erdian eta bukaeran bata bestearekin elkartzen dira. Hirugarren istorioa beste biak bukatu ondoren garatzen da. Protagonista bat unibertsitatean dago, bestea institutuan eta azkenekoak, gazteagoak direnak; eta udalekuetan elkar ezagutuko dute. Aipagarria da zuzendariak istorioetara hurbiltzeko duen modua. Kamera pertsonaien egoerara hurbiltzen du, baina distantzia bat mantenduz. Harremanak pausoz pauso jarraitzen ditu, gertakizunak derrigortu gabe, gertatzen dena behatzen eta aditzera ematen. Hau dela eta,

filmak ikuslearen partaidetza behar du. Izan ere, ematen du ezer gutxi gertatzen ari dela, baina gertatzen ari da. Zuzendaria pertsonaien intimitatera hurbiltzen da, eta errespetua eta distantzia mantentzen ditu hori azaltzerakoan. Filma Kanadarra bada ere, Frantzian egiten den zinema gogoratzen du, eta ez bakarrik frantsesez filmatuta dagoelako. Pertsonaiak oso gazteak izan arren, eta euren adinaren zalantzak eta esperientzia falta izan arren, badute heldutasun puntu bat portaeran. Hasiera batean, badirudi *Genesis* filma hotza izan daitekeela. Bada, zuzendaria bere modu zuhurrarekin ederki moldatzen da pertsonaien intimitatea sentiberatasunez azaltzeko.



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Semearen ateraldia

Emakumeen eta gizonezkoen arteko diferentziaz aritzen garenean, sarritan esaten dugu: "Gizonezkoek ez dakizue bi gauza batera egiten". Harro baino harroago esaten dugun esaldia da, emakumeon abilezia berezitat hartzen baitugu bi gauza desberdin batera egiteko gaitasuna.

Lehenagoan, azkazalak margotzen, liburu bat irakurtzen, telebistako film bat jarraitzen eta senarrari semearen gorabeherak kontatzen aritu nintzen. Ekintza guztiak batera, aldi berean. Zer egiten zuen bitartean senarrak? Telebista ikusi. Zer gehiago? Telebista ikusi. Zergatik ez zidan erantzuten? Telebista ikusten ari zelako. Telebista ikusi eta emazteari erantzutea... konplikatu.

Gizonezkoek abilezia berezia daukate telebista ikusten ari direnean emazteak esaten duena ez entzuteko, ezta semeak esaten duena ere. Baina kontuz, gurasook seme-alaben aurrean esaten ditugunak ez ditu haizeak eramaten. Joan den astean, 14 urteko semeari, sarritan bezala, esan nion: "Hustu motxila eta ipini mahaia!". Ez zuen bi aldiz pentsatu amari erantzun aurretik: "Ama, ez al duzu, ba, esaten gizonezkoek ezin ditugula bi gauza batera egin?" Harrapazak!

BUKATZEKO

Euskal Herria zentzu zabalean ezagutzen

Maulen abiatu eta Getxon amaituko den 'EuskarAbentura' espedizioan dabilta Irea Egaña oñatiarra eta Kattalin Linazisoro aretxabaletarra. Donejakue bidea jarraituz, 783 kilometroko ibilbidean barrena ari dira Euskal Herria oinez zeharkatzen

Aitor Agiriano ARRASATE

Euskal Herriko zazpi lurraldeetako eta diasporako 16-17 urte bitarteko 120 neska-mutil geografía, kultura eta historia lagunartean ezagutzera eraman dituen oinezko espedizioa da *EuskarAbentura*.

Hala, Irea Egaña eta Kattalin Linazisoro debagoiendarrek, errealitate linguistikoa, soziala, ekonomikoa nahiz kultural ezberdinetako beste neska-mutil batzuekin nahastuz, "oso aberasgarria" izaten ari den esperientzia dute bizigai. "Oso ondo doa. Emigratioaren gaineko ipuin labur bat aurkeztuta nago hemen. Aurrez ez nuen ezer berezirik espero, baina etorri eta gauza oso handia ari gara bizi izaten", dio Linazisorok. Egañak ere ez zuen horrelakoa izango zenik espero: "1936an Gernikan egon zen *Habana* ontziaren gaineko marrazkia aurkeztu eta bertan egoteko aukera izan dut. Oso interesgarria da".

20 kilometroko etapak egunero

Uztailaren 1ean abiatu ziren, Maulen, eta hilaren 31n amaituko dute, Getxon, 31 etapatan banatuta egiten ari diren ibilbidea. Guztira, zehazki, 483 ki-



Kattalin Linazisoro eta Irea Egaña. 'EUSKARABENTURA'



EuskarAbentura-ko gazteak ibilbidean barrena. 'EUSKARABENTURA'

lometro dira oinez egiten ari direnak.

Dinamika bertsua dute egunero: goizeko zazpietan esnatu, prestatu, gosaltu, eta 08:00etan lehen taldeak abiarazten du etapa. Bidean edo herrian bertan bazkaltzen dute, eta, arratsaldean, orotariko ekintza ugari izaten dituzte. "Batez beste, 20 kilometroko etapak egiten ditugu aldiro. Eta egin ditugun ekintza ugarietatik, Orreagan Asisko Urmeneta komikilari nafarra-ekin gozatutakoa azpimarratuko nuke", dio Linazisorok. Bestetik, Egañarentzat, Glaukoma taldeko Juantxo Arakamarekin izan ziren eguna da orain arte gehien gozatu duena: "Asko gustatu zitzaidan. Baita berba egiteko duen era ere".

Helmuga zapaltzeaz

Azken txanpan sartuta daude jada, espedizioaren amaieran. Gipuzkoako eta Bizkaiko kostaldea zeharkatzea da gelditzen zaiena. Espedizioa 26. eguna beteko dute gaur, eta gertu dute helmuga. "Bere euskara areagotu, euskaraz hitz egin eta lagun berriak egiteko prest dagoen orori gomendatuko nioke, kristoren aukera eta esperientzia da-eta bizitzen ari garena", dio aretxabaletarrak.

Oñatiarrak ere gainerako partaideekin egin duen harreman ona adierazi nahi izan du: "Ez dut sinisten zenbat jende, leku ezberdinetakoak, ezagutu ditugun hemen. Eta daramatzagun egunotan elkarren artean nola-ko erlazioak garatu ditugun. Itzela da!".

Hala, laster itzuliko dira biak etxera: alde batetik, "gogoz"; eta, bestetik, "pena pixka batekin".

Oporretan ere, Goiena Nahieran



APP-A JEITSI

Goiena Nahieran app-a jeitsi eta ikus-entzunezkoak nahieran ikusi ahal izango dituzu.



goiena
Zu hemen zaude.

